

urteko txostenak

# Eusko Legebiltzararentzako urteko txostena 2012

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*

**Haur eta Nerabeentzako  
Bulegoaren txostena**

[www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)





**urteko  
txostenak**



# **Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena**

---

# **2012**



**Haur eta Nerabeentzako  
Bulegoaren txostena**

**Vitoria-Gasteiz 2013**

Lan hau Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziarekin dago



Lizentziaren kopia bat ikusteko,

- sartu hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/>

- edo gutun bat bidali helbide honetara: Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.

#### **Euskadi. Arartekoa**

Eusko Legebiltzararentzako urteko txostena 2012. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena [Baliabide elektronikoa] / Ararteko. – Vitoria-Gasteiz : Ararteko, 2013

90 or. – (Urteko txostenak)

Sistemaren eskakizunak: Adobe Acrobat Reader

Sartzeko modua: [World Wide Web](#)

ISSN 2255-4947

1. Euskadi. Arartekoa 2. Jarduerari buruzko txostena 3. Giza eskubideak

351.941(460.15)2012(060.55)

#### **Formatuak eta edizioak:**

Paperean, CD-ROMean, [RTF](#) eta [XML](#) formatuetan ere bai

**Gaztelaniazko edizioa:** [Informe anual al Parlamento Vasco 2012. Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia](#)

**Dibulgaziozko edizioa:** [Eusko Legebiltzararentzako urteko txostena 2012. Laburpena](#)

ARARTEKO

Multimedia: UTE MANIPULADOS - EPS

ISSN 2255-4947



# Aurkihidea





# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	11
<b>■ I. Atala</b>	
<b>Arau- eta antolaketa-testuingurua</b> .....	13
1. 2010-2014 Jarduera-esparrua .....	15
2. Arau- eta eskumen-esparrua .....	16
<b>■ II. Atala</b>	
<b>Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak</b> .....	19
1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatzeko kuantitatiboa .....	21
2. Aztertutako gaiak: .....	23
2.1. Hezkuntza .....	23
2.2. Babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak .....	28
2.3. Familiak .....	41
2.4. Osasuna .....	43
2.5. Justizia .....	48
2.6. Mendeko adingabeak .....	51
2.7. Kultur jarduerak eta kirola .....	52
2.8. Beste batzuk: "lapurtutako jaioberrak"; atzerritarren seme-alabak .....	52
<b>■ III. Atala</b>	
<b>Azterlana: Krisiaren eragina haurren: EAEko errealitatea</b> .....	55
<b>■ IV. Atala</b>	
<b>Gure haur eta nerabeen ahotsa: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua</b> .....	63

## ■ V. Atala

<b>Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko beste jarduera batzuk</b> .....	69
1. Gizarte-eragileekiko lankidetza .....	71
2. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetza .....	71
3. Ekitaldietako parte-hartzea .....	72
4. Material didaktikoak eta ikastetxeekiko kolaborazioa .....	73
5. Adingabeentzako web gunea .....	74

## ■ VI. Atala

<b>Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea</b> .....	75
---	----

## ■ VII. Atala

<b>Eranskinak</b> .....	81
Grafikoen eta taulen aurkibidea .....	83
Arloko araudia .....	85
Arartekoaren argitalpenak .....	87

## Aurkezpena

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2012. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Hirugarren urtez, segidan, erantsitako txostenaren formatua errepikatu dugu, hau da, osotasun integratu baten (Legebiltzarrarentzako 2012. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek adingabearen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa sei kapitulutan egituratuta dago. Lehenengoan bulegoaren jardueraren araudi-testuingurua azaltzen da, bai eta txostenak hizpide duen urterako ezarritako plangintzaren barruan dauden lan-ildoak ere.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, haurren eta nerabeen eskubideen inguruan antzemandako arazo nagusiak aipatzen dira. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikas-kuntzak birpasatzen dira.

III. kapituluan, “Krisiak haurrengan duen eragina: euskal errealitatea. Gogoeta kuantitatiboa” izenburuko azterlanen bildutako datu nagusiak aipatzen dira. Datu horiek,

bigarren mailako estatistika-iturrietatik datozen 58 adierazleren bitartez, argazki moduan erakusten dute EAEn haurren pobrezia errealitatearen oraingo egoera eta azken urteotan izan duen bilakaera.

IV. kapituluak haurrek eta nerabeek parte hartu dezaten eratu dugun organoan garatutako jardueraren aipamen berezia egiten du: Haurren eta Nerabeen Kontseilua. Haren egitura, funtzionamendua eta, batez ere, 2012. urtean zehar jorratu diren gaien inguruan, gure haurren eta nerabeen berezko ahotsa atal horretako orrialdeetan jaso dira.

V. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduerak bildu ditu: ezagutza trukatzeko foroetan parte hartzea, beste gizarte eta erakundeen arteko eragileekin lankidetzan aritzea, hezkuntzako materialak argitaratzea edo 6-11 urteko haurrentzako Ararteko erakundearen web orrialdea bertan aipatzen diren ekimenetako batzuk dira.

Azkenik, VI. kapituluak ixten du agiria. Bertan, haur eta nerabeen eskubideen egoeraren balorazioa egiten da, labur-bilketa gisa.





# Arau- eta antolaketa- testuingurua

**a t a l a**



## I. Atala

# Arau- eta antolaketa-testuingurua

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2012. urtean zehar garatu duen jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu da, bai eta 2010-2014 denboraldirako bulegorako marraztu diren jarduera ildoak kontuan hartuta ere. Plangintzaren aukera horiek gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean gertatzen dira. Plangintza erantzunak ematen saiatzen da baina testuinguruak egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatu egiten du. Hori dela eta, adingabeen esparruan egindakoa xehetasunez azaltzen hasi baino lehen, hurrengo orrialdeetan, Haur eta Nerabeen Bulegoaren lan-lerroak gogora ekarriko ditugu. Halaber, jardueraren arau-testuingurua osatzen duten lege, dekretu eta erregelamendu nagusiak aurkeztuko ditugu.

Aurreko urteetan, atal hau osatzeko, haur eta nerabeen taldearen ezaugarriak aipatu ziren labur-labur, informazio-iturriek emandako adierazle sozio-demografiko nagusietan oinarrituta. Lan hori egitera animatu ginen, izan ere, ez zegoen haur eta nerabeen errealtateaz urtez urte adierazten ziren ahultasunak gaindituko zituen informazio-sistematik. 2011. urtean pozik hartu genuen Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren [Haur eta Nerabeen Behatokiak EAEko haur eta nerabeen errealtatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema](#) prestatu izana. Sistema horri lotzen gatzazkio gai hauetarako.

1.

## 2010-2014 Jarduera-esparrua

Haur eta Nerabeen Bulegoaren 2010-2014 jarduera-esparruan, [2010. urteko txostenean](#) aurkeztu zen horretan, esku-hartze ildo nagusiak nolabaiteko zehaztasunez azaltzen ziren. Hala, erakundearen gainontzeko eremuetan bezala, bulegoak adingabeek aurkezten dituzten edo eurengan eragina duten kexak eta eskaerak jaso eta aztertzen ditu. Kexak eta eskaerak modu zuzenean edo legezko ordezkarien bitartez aurkeztu ditzakete. Lan hori modu batean norbaitek (pertsonek, kolektibok) edo zerbaitek (komunikabideen bitartez edo beste bideren bitartez ezagutu den eskubideen urraketa posible bat) aurkezten digunaren aurrean “erreakzionatzean” datza eta lan-ildo proaktiboagoen bidez osatzen da. Azken horien artean jarduera hauek daude: sarean, modu kolektiboan eta lankidetzaren erabiliz egindako lana sustatzera eta haurren eskubidearen kultura zabaltzera zuzendutako jarduerak, bereziki, adingabeen parte hartzea eta euren ahotsa entzunarazteko aukera bultzatzen dituztenak.

Ararteko erakundeak gain hartu duen “matrize-eredua” dela-eta, eremu materialetan espezializatutako sektore-arloak zeharkako begiradek osatzen dituzte, kasu honetan, haurren eta nerabeen eskubideenak. Horren xedea elkar abarastea eta lan koherente eta sinergikoa lortzea da. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa berezko langileen hornidura txikiarekin egituratu da, haurrei eta nerabeei maiztasun handiarekin eragiten dieten gaien arloko aholkularien laguntzarekin batera. Horiek guztiak, arartekoak, arartekoaren ondokoak, gizarte harreman, ikerketa eta modernizazioko zuzendariak eta idazkari nagusiak **Haur eta Nerabeentzako Bulegoko Aholkularien Kontseilua** osatzen dute eta jarduera-esparru orokor hori abiapuntutzat hartuta, urtero egiten diren

lanerako planen definizioan eta konpromisoan eginkizun nabarmena daukate.

2012ko Jarduera Planak, esku artean dugun denboraldirako, lehen aipatu ditugun lan-ildoak zehaztu ditu. Plan hori gure bidai orria da eta horri esker adierazitako bidean zehar aurrera egin dezakegu ahaleginak batuz eta gure helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean lortzeko beharrezkoak diren sinergiak sortuz. Ondorengo kapituluetan aipatuko diren jarduerak plan horren emaitza dira:

## 2.

### Arau- eta eskumen-esparrua

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestarekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean Espainiak **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (HEK)** berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an **Nazio Batuen Erakundearen (NBE)** batzarrak hartu zuena. HEK modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuek errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundeen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena.

**Bereizkeriarik ezaren printzipioaren** arabera, haur bakar batek ere ez du bereizkeriarik jasango haurraren, gurasoen edo ordezkari legalen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, estatus ekonomikoa, oztupo fisikoak, jaiotza edo beste edozein baldintzaren ondorioz. Hala ere, printzipio horrek nesken eta mutilen, atzerritarren eta bertakoen, ezintasunen bat duten haurren eta ez dutenen eta abarren arteko aukera berdintasuna ere barne hartzen du.

**Adingabearen interes gorena**, hitzez hitz, honela formulatu da: “Herri-administrazioek edo administrazio pribatuek, epaitegiek, administrazio aginpideek edo erakunde legegileek haurren inguruan hartzen dituzten neurri guztietan ezinbestekoa izango da adingabearen interes gorena aintzat hartzea”.

6. artikulutik aurrera hiru eskubide talde handiak zerrendatu dira, HBP letren bitartez adierazi daitezkeenak: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera edukitzeko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzea; **babesa**, hau da, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta

ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **parte hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nor bere burua aditzera emateko eta banaka zein kolektibo batean ahotsa edukitzeko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak baziren ere (hautazkoak) Espainiak bi protokolo sinatu (2000) eta berretsi (2002) zituen. Protokolo horiek babesaren arloaren barruko bi alderdi zehatz jorratzen dituzte: **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa**, gatazka armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa eta **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa**, haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografiaren haurrak erabiltzearen gainekoa. Bi horiei hirugarren bat gehitu behar zaie: **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa**, komunikazio prozedura baten ingurukoa. Espainiak 2012an sinatu zuen, parlamentuak oraindik berretsi ez duen arren. Protokolo hori sakonago jorratuko dugu garrantzi berezia baitauka.

Izan ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren inguruan gabezi esanguratsu bat konpontzera dator: banakako komunikazio eta erreklamazio prozedura bat ezarri ez duen giza eskubideen nazioarteko hitzarmen bakarra da. Bitxia bada ere, haurrak banaka joan daitezke **beste hitzarmenen** batzordeetara (giza eskubideak, eskubide ekonomikoa, sozialak eta kulturalak, eskubide zibilak eta politikoak, arrazagatiko bazterkeria, emakumearen aurkako bazterkeria, tortura, langile migratzaileak, ezintasunen bat duten pertsonak) baina hitzarmen horietako batzordeek ez “dakite ezer” haurren inguruan. Hala, protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek eta/edo euren ordezkariak salaketa ezartzeko aukera eduki dezaten **espezializatutako** nazioarteko batzorde baten aurrean euren eskubideak defendatzeko aldera, urratuak izan direla uste dutenean. Hauxe oinarritzat hartzen badugu: ez gara eskubideen titularrak ez baldin badugu horiek aldarrikatzeko mekanismorik, protokolo horrek duen garrantzia ukazina da.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zenetik 23 urte pasa dira eta orain, lehenengo aldiz, haurren ahotsa modu zuzenean helduko da Haurren Eskubideei buruzko Batzordera. Azken horrek informazio hori eta ordura arte estatuen eta gizarte erakundearen txostenen inguruan heldu zaion informazioa baliatu ahalko du “estatu parte hartzaileen aurrerapen bikainak aztertzeko” lana burutzeko, HEH eta horri lotutako protokoloak betez. Bestalde, aurreikus daiteke epe ertainean antzerako mekanismoak sortuko direla maila nazionalen.

Nazioartean, lehen haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko marko unibertsala den **Nazio Batuen Hitzarmena** aipatu da, baina komeni da jakitea badaudela Espainiak berretsi dituen adingabeen eragiten dieten gai sektorialeko buruzko zenbait nazioarteko itun –hainbat nazioarteko erakundeak sustatu dituzte itun horiek, hala nola **Nazio Batuen, Nazioarteko Lan Erakundeak, Europako Kontseilua, Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Konferentzia:**



Haurren lana, adingabeak ostea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar. Gainera, Espainiako Estatuak gai horri dagozkion nazioarteko foroekiko duen lotura eta konpromisoaren adierazle gisa azpimarratu behar da Nazio Batuen Hurrei buruzko Biltzar Berezian (2002ko maiatzean egin zen) parte hartu zuela eta “[Un mundo apropiado para los Niños y Niñas](#)” izeneko dokumentuan jasotako Adierazpena eta Ekintza-plana onartu zituela.

Europar Batasunaren markoan ere berriaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uztailearen 8ko A-3.0172/92 Ebazpena](#), [Haurren Eskubidearen Europako Gutuna onartzen duena](#). Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kexak jaso beharko ditu, hurrei babes ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoen jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena.

Halaber, [Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna](#) (Lisboako Itunaren zatia) ere aipatzekoa da. Gutun horrek, adingabeek dagokienez, adingabeen entzunak izateko eskubidea, adingabearen interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin harremana izateko eskubidea ospetsu egiten ditu. Garapenean, bi gertaera gogoangarri: lehenbizikoa, «[Haurren Eskubideen gaineko Europar Batasuneko Estrategiarantz](#)» izeneko jakinarazpena, Europako Batzordearena (2006), zeinak hainbat egitura ezarri baititu EBko erakundeek haurren eskubideei lotutako arazoei aurre egiteko duten ahalmena indartzeko, eta egintzetan oinarritutako politiken zimenduak finkatu baititu, interesdunekiko elkarrekintza arintzeko asmoz; eta, bigarrena, [Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agenda](#) (2011), zeinak batez ere eremu jakin batzuetan jartzen duen arreta, EBk eremu horietan benetako balio gehigarria ekar dezakeelako, adibidez, haurrentzako justizia eskuragarri egiteko arloan, egoera zaurgarrietan dauden umeak babestuz eta Europar Batasunaren barruan zein kanpoan hurrengan eragina daukan indarkeriaren kontra borrokatuz. Agenda horretatik eratorritako ekintza batzuk txosten honen beste puntu batzuetan agertuko dira, erakunde honek parte hartu duen topaketa, foro edo dispositiboak baitira.

Edonola ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipioak -goian azaldutakoak- jada Espainiako Estatuak ordenamendu juridikoaren zati dira, **Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan** sartu ziren heinean (lege horren bidez partzialki aldatu ziren Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea. Lege hori botere publiko guztiak, berriaz hurrekin lotutako erakundeak, gurasoak eta senideak, eta biztanleria oro har lotzen dituen babeserako marko juridikoa da estatu-mailan. Lege horretan jasotzen dira nazioarteko araudiaren legearen eta haurren eskubideen aplikazio-esparrua, eta bereziki aipatzen da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Herri-administrazioen jardunaren printzipio gidariak ezartzen dira, eta haurren babes gabeko egoeretan zer egin zehazten da, bai eta haurrak babesteko erakundeak ere.

lazio txostenean adierazi genuenez, adin txikikoak babesteari buruzko Estatuak legeria eguneratzeko prozesu bat hasi zen eta oraindik bukatzeko dago.

Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan autonomiako legeria garatu zuen [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, “Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera” izenekoan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babes ematen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatuko dugu legea.

Bukatzeko, adierazi behar da adingabeen eskubideak eta haurren babesean eta zainketan hartutako konpromisoak zehaztea oso lan luzea dela, hainbat arlo eragiten baitie, besteak beste: osasunari, hezkuntzari, gizarte-babesari, arrisku-egoerei eta babes gabeko egoerei, birgizarteratzeari eta haurren osotasunaren babesari. Hori dela eta, lege, dekretu eta gainerako garapen ugari aipatzen da, arau-marko zabal bat eratuz. Marko horretatik elementu nagusi hauek nabarmendu ditugu dokumentu honen [eranskinean](#). Arloko araudi horretan 2012an egin diren berrikuntzak txosten honetako II. atalean azalduko dira, arlo bakoitzeko azalpenen.





# Eskubideak urratzea?

**Kexak, kontsultak  
eta ekimen propioako  
jarduerak**

**a t a l a**



## II. Atala

# Eskubideak urrratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak

Arartekoaren erakundeak ikertutako kexen eta kontsulten espedienteen azterketaren hurbiltzeak helburu diagnostikoa du Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren dokumentu espezifiko honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkagarriak haute-matea da, eta espediente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentsore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

Ez dira zenbatu, baina aintzat hartu beharko lirateke gizarte bazterketaren kontra borrokatzeko tresnekin zerikusia duten eta zenbait familiak egin dituzten 1.010 kexak; izan ere, portzentaje handian, familia horietan adin txikikoak daude. Hainbat ikerketatan, baliabide ekonomikorik eta ondasun materialak eskuratzetik ez izatea zenbait eskubide (hezkuntzarakoa eta osasunerakoa, besteak beste) berdintasunean baliatzeko zailtasunekin lotzen dira. Horrez gain, pobrezia eta gizarte bazterkeria testuinguruek familian eta haurren ongizatean eragina daukate, hala nola, familia eta gizarte harremanetan, tratu txarren, indarkeriaren eta eskola uztearen aurrean zaurkorrago bihurtuz. Errealitate konplexu horri txosten honetako kapitulu berezi bat eskainiko diogu. Bertan, ekonomiako eta laneko krisia euskal haurren bizitzan izaten ari den eragina argi lezaketen adierazle nagusietara hurbilduko gara.

### 1.

#### Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditateak: gerturatze kuantitatiboa


2012an, alde batek eskatuta bideratu diren kexen artean (hau da, erakundeak bere kabuz irekitako ofiziozko espedienteak eta Arartekoaren jarduera orokorra osatzen duten gainontzeko jarduerak kanpoan utzita), haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa argi eta garbi aipatzen zuten 300 kexa-espeditate izan dira guztira, alegia, Arartekoari azaldutako kexa guztietatik ia %10,2. Komeni da azpimarratzea zenbaketa horretan bi kasu hartu direla kontuan:

- a. Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- b. Adin txikikoen ordezkariak egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

**Kexa aurkezten duen pertsonari** dagokionez, hauxe baieztatu dezakegu: 2012an, kexetatik %20 adin txikikoek berek egin dituzte, eta ia kasu guztietan, horiek legezko adin nagusitasunaren mugan zeuden. Adin txikiko horietatik %80k emantzipazio prozesuari lotutako arazoak aipatu dituzte, eta gainontzekoek, berriz, goi mailako lanbide-heziketan sartzeko sortu diren zailtasunak. Kexen gainontzeko %80 helduek egin dituzte eta eragindako adingabeak tartean zeuden egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 26tan, edo %10,9tan, zenbait haur edo neraberi, hau da, adingabeen talde zehatz bati dagozkien egoerak azaldu dizkigute eta elkarte bat, erakunde kolektibo bat edo eragindako pertsona-multzoaren ordezkari gisa diharduen norbanako bat dute titulartzat.

(1. grafikoa)

**Kexen banaketa, adingabearekiko harremanaren arabera**




Iturria: guk geuk egina

**Gaikako esparruen** araberako espedienteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo grafikoan islatutakoa da:

(2. grafikoa)

**Kexen banaketa, arlo tematikoaren arabera**



Hezkuntza	138	%46,00
Gizarte arloa: babesik gabeko haurrak	52	%17,33
Familiak	26	%8,67
Gizarte arloa: gizarteratzea	18	%6,00
Osasuna	16	%5,33
Administrazio egoera	14	%4,67
Justizia	13	%4,33
Kirol eta kultura jarduerak	9	%3,00
Gizarte arloa: mendekotasuna duten haurrak	5	%1,67
Beste batzuk	9	%3,00




Iturria: guk geuk egina

Jaso ditugun 300 kexen artean eta txosten hau idatzi zen unean eskura genuen informazioari jarraiki, 29 gaitzetsi egin dira eta gainontzekoak itxita (bakoitza bere emaitzarekin) edo izapidetzearen fase jakin batean daude.

(3. grafikoa)

**Baztertutako eta tramiterako onartutako kexen ehunekoa**




Iturria: guk geuk egina

**Kexak ez onartzeko** hiru arrazoi nagusiak (kexetatik %76 biltzen baitituzte) hauek dira: argi eta garbi legez kontrako ezer ez egotea (%48,28), epailearen erabakiaren zain egoetea (%13,79), aurretiaz erreklamaziorik ez egin izana edo erantzuna jasotzeko legezko epeak bete arte itxaron behar izatea (%13,79). Gainontzeko % 25etik 42 erakundeak jarduteko duen eskumen-eremutik kanpo daude, beste bi izenik gabekoak dira eta horrek aintzat hartzea eragozten du, eta gainontzekoak neurri berean banatuta daude: batzuk **Herriaren Defendatzaileari** igorri zaizkio, azaldutako gaietan duen eskumenaz baliatuta iker ditzan, egokitzen josten badu; beste batzuk norbanakoen arteko gatazkak dira; beste batzuetan, kexagileak ez zuen bidezko interesik salaututako gaian.

Edonola ere, kasu horietan kexan azaldutako egoeraren gaineko ikerketa edo esku-hartzea posible izan ez bada ere eta bistakoa den irregulartasun baten ondorioz gaitzetsi diren kexak alde batera utzita, izapidetzeko onartu ez diren kexen azterketak informazio baliagarria eman digu herritarrek euren eskubideak arriskuan ikusi dituzten egoerei buruzkoa.

Bestalde, Defentsa Bulego honen irizpidea honako hau da: alde batera utzita aipatutako eskumen-eragozpenen ondorioz erreklamazio bat formalki izapidetu dezakegun edo ez, erreklamazio hori jarri duenari gure esku dagoen laguntza gutzia eman behar diogula, betiere haren funtsa egiaztatu badugu. Modu horretan, gure esku-hartzea, nahiz eta beti ezin zaion zuzenean lotu adierazitako asegabetasunaren zioari, eraginkorra izan dadin saiatzan gara, behintzat horrek erreklamatzaillearen bizitzan izan dezakeen eraginari dagokionez. Horixe da hurrengo orrialdeetan jaso ditugun jardueretako batzuen helburua.

(4. grafikoa)

**Baztertutako kexak: baztertzeko arrazoiak**GUZTIRA **29****Iturria:** guk geuk egina

Amaitzeko, esan beharra dago gure jardueraren zati gehienaren jatorria aditzera eman ditugun kexak direla. Dena den, kexa horiek azaltzen dizkiguten arazoen banakako kasuak gainditzen dituztenean edo gizartean alarma pizten dutenean, gure ustez haurren eskubideetako bat arriskuan jartzen ari den egoera bati dagokionez, Ararteko erakundearen jardura-planak ofiziozko espedienteak abian jartzea aurreikusten du. Horren inguruan arituko gara hurrengo ataleko gaien azalpenaren harira.

**2.****Aztertutako gaiak**

2012. urtean, adingabeen eremuan Ararteko erakundearen jardueraren ikuspegi kuantitatiboak agiri honetako atalik luzeena osatzen du, antzemandako arazoen eta kezken, burututako jardueren eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzen edo ondorioen aurkezpen kualitatiboa barne hartzen baitu. Zenbatu diren kexen portzentajeak iradoki duen ordenan, informazio hori gaikako esparruen arabera antolatuta aurkeztu da.

**2.1. Hezkuntza**

Aurreko grafikoetan adierazi bezala, aurtun izapidetu diren eta adingabeekin lotura zeukaten kexen ia erdiak (%46k) hezkuntza sistema formalari lotutako egoerak ditu hizpide. Arlo horretan gertatutakoa azaltzeko, hemen errepikatuko dugu Eusko Legebiltzarrarentzako txosten orokorrean herri-administrazioen jardura ikuskatzeari buruzko kapituluaren bildutakoa, **Hezkuntzari** dagokiona; izan ere, gehienbat haur eta nerabeengan dauka eragina.

**Ikasleen onarpenari** buruzko kexa kopurua aurreko urteetan aurkeztutakoen antzekoa da. Kexak eragin dituzten arrazoiak errepikatu egin dira. Hala, aurtun berriz ere lekurik ez dagoenean aplikatzen diren onarpenerako **lehen-tasunezko irizpideak** zalantzan jarri dira -bereziki, familia unitatearen urteko errentaren irizpideari lotutakoa- eta berriro agerian jarri da **errolaren** datuen gehiegizko erabilera.

Halaber, hezkuntza-administrazioak **baimendutako ratioa** berriro aintzat har dezan hizpide duten kexak jasotzen jarraitu dugu. Horri dagokionez, interesdunei jakinarazi diegu indarrean dauden ratioak gandi daitezkeela, bakarrik, eta salbuespenez, ezarritako arrazoiaren ondotik, aurretik zentroen berariazko eskaera eginda, eta ratioa ehuneko hamar handitzeko egungo aurreikuspenak xede duela behin ikasurtea hasita eskolatu behar diren ikasleak eskolatzea.

Hori horrela, azpimarratu nahi dugu, gure iritziz, hezkuntza-administrazioak prozesuaren kudeaketa mekanizaturako bidea emango duen **aplikazio informatikoaren** xehetasunak argitaratu beharko lituzkeela, bereziki, bigarren eta hirugarren aukeren esleipenari buruzkoak.

Jakina den moduan, ohiko prozesu horretatik kanpo, ikasleen onarpena **eskolatzeko lurralde batzordeen** bidez kudeatzen da. Proposamenak aurkezterakoan, batzorde horiek, familiek adierazitako borondateaz gain, euskal hezkuntza-sisteman ahalik eta integrazioerik normalizatuena jarraitu behar dute, zehazki honako irizpideen babesean: 1) zentroaren gertutasuna familia etxebizitzari dagokionez eta eskolan dagoeneko anai-arrebarik ote dagoen; 2) funts publikoekin mantendutako zentro guztien (publikoak eta itunduak) arteko oreka; 3) zentroetan dauden baliabide teknikoak eta giza baliabideen erabilera eraginkorra eta 4) zentroaren egokitasuna ikasleari hezkuntza-erantzuna emateko.

Joan den urtean, aipatu genuen izapidetutako kexa batzuen ondotik beldur ginela ea familien nahia behar bezala kontuan hartzen ari ote zen, adierazi baikenuen hainbat kasutan eskolatzeko proposamenak hizkuntza ereditik eta familiek eskatutako zentro motatik aldentzen zirela. Hori horrela, aurtun are kezka handiagoaren isla agerian jarri behar dugu. Hain zuzen, familia batzuen kexak jaso ditugu eta horiek, egindako eskolatzeko-proposamenarekin ados ez egoteaz gain, eskolatzeko-gastuak gain hartzea zailtzen duen egoera ekonomiko zailaren egoera agerian jartzen saiatu dira. Ildo horretan, kexa horiek eskolatzeko-gastuen arteko desberdintasuna mahaigaineratzen dute, dela ikastetxe publikoa edo pribatu hitzartua, egoera hori alde batera utzi ezin dela argudiatzeko, hain zuzen,

familien asmotik aldentzen diren eskolatzeko proposamenak egiteko irizpideak ponderatzerakoan.

Hezkuntza Sailak nabarmendu du ikastetxe pribatu hitzartuen finantzaketa baldintzek eta eskola-garraio, -jantoki eta -materialerako familiei emandako laguntzek aukera ematen dietela herritar guztiei eskola-mapa konfiguratzeko duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe-sarean (bai titulartasun publikoko bai pribatu hitzartuko ikastetxeek osatutakoa) erabateko sarbide unibertsala izan dezaten.

Halaber, **ikastetxe aldaketa edo lekualdaketa**ren aukerari lotutako kexa nahikotxo izapidetu ditugu, ikasleak onartzeko ohiko prozesua alde batera utzita. Egoera horren ondorioz egiaztatu ahal izan dugu bi arrazoi daudela aurretik eskatutako zentroan ikasturte batez egotetik salbuesten dutenak: ikaslearentzako arriskua edo pairamendua dakarten egoerak eta hezkuntza-ikuskapenaren txosten baten bitartez behar bezala egiaztatuta egon daitezela, eta adin oso goiztiarretan distantzia esanguratsuetara aldatzea dakarten bat-batean jasotako helbide aldaketak -azken egoera hori eguneratutako eroldaren egiaztagiriarekin froga daiteke-.

Gure ustez, beharrezkoa da zenbait adingaberen eskolatzetik ezaren egoerarekin amaitzen saiatu diren erabaki judizialen gainean jarraitu diren **eskolatzeko aginduak** jorratu dituzten hainbat kasu aipatzea. Halaber, erakunde honetara jo dute deseskolatzea eta eskola-absentismoa erotik kentzeko onartutako programa aplikatzeko moduaren aurka dauden hainbat familiak. Gure iritziz, kexa horiek guztiek agerian jartzen dute gizarte-izaerako demanda bat dagoela “**etxeko hezkuntza**” edo “**homeschooling**” izenarekin ezagutzen den hezkuntza-aukeraren inguruan.

Beste kontu batzuk aintzat hartuz, esan behar dugu, oro har, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako datuek optimistak izateko bidea ematen digutela, hain zuzen, **hezkuntza-eskaintzaren** etengabeko hobekuntzarako ezarritako adierazleak betetzeari dagokionez. Hori bai zailtasunik handienek **zero eta hiru urteko hasierako tartean** egoten jarraitzen dute, batez ere, **bi urteko** gelen eskaintzan.

Horri dagokionez, urte horretan aurkeztutako kexa guztien artean **Barakaldon** dagoen herritarren demanda bideratzeko asmoz aurkeztutako kexa gailentzen da. Jakin dugun eskaera horrek ekimen garrantzitsuak eragin dituela, horien artean, udalbatzak 2011ko abenduaren 29an egindako ohiko bilkuran onartutako mozioa. Horren arabera, dagozkion aginduak eman daitezkeen eskatu da Barakaldo **Haurreskolak Partzuergoan** sar dadin. Hain zuzen ere, mozio hori ez betetzeak herritarren demandari funtsa ematen dio, kontuan hartuta une honetan zero eta bi urteko tarte horretarako programatutako hezkuntza-eskaintza zabal dadin eskatuz erakunde honetan kexa moduan aurkeztu dela. **Euskadiko Eskola Kontseiluak aurkeztutako Txostena 2008-2010** urteetakoak Barakaldon jasotako plaza eskasiaren arazo partikularrak biltzen ditu.

**Hezkuntza-plangintza edo -programazioaren** alderdiei dagokionez, 2012. urtean hainbat ebazpen eman ditugu **Iruarteta HLHI**ren hezkuntza-komunitateak hala eskatuta izapidetutako kexen ondorioz. Lehenengoa (Arartekoaren ebazpena, 2012ko urtarrilaren 31koa) ikastetxe honetara

Mujika-Solokoetxe HLHIko ikasleak lekualdatzea hizpide duen hartutako erabakiari buruzkoa, hain zuzen, azken ikastetxe hori barne hartzen duen eraikinaren egitura berritzeko obraren ondorioz eta, jarraian, bigarrena (**Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 12koa**) Iruarteta HLHIren hezkuntza-eskaintza laugarren ildo batera zabaltzeko erabaki administratiboari buruzkoa. Bi ebazpenetan nahitaez aintzat hartu behar diren bi alderdi gailendu behar ditugu hezkuntza-programazioari edo -plangintzari lotutako hainbat kontu jorratzen direnean: alde batetik, egoeran sartuta dauden hezkuntza-agenteen parte-hartzea eta, bestetik, hartutako erabakien motibazioa betea.

Hain zuzen, Irungo **Elatzeta HLHI**rako aurreikusitako hezkuntza-ibilbide berriari buruzko kexa bat izapidetzeak aukera eman digu egiaztatzeko hezkuntza-administrazioaren aldetik jarrera harkorra egon dela. Ildo horretan, interesdunei adierazi diegu oso positibotzat jo dugula Hezkuntza Sailak aintzat hartu izana familiek 2. zk.ko ibilbide hori prestatu eta indartzeaz arduratu den lantaldean (Hirubide BHI, Elatzeta HLHI eta Leka-enea HLHI zentroak barne hartzen ditu) zuzenean parte hartu izana.

Are gehiago, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Hezkuntza Batzordearen aurrean **Arabako eskola-maparen** berri emateko egindako Legebiltzarreko agerraldi batean gailendu nahi izan du aipatu mapa plangintza demokratikoaren ondorioz dela, hezkuntza-komunitatearen ordezkari guztien partaidetzarekin, erakunde honek behin eta berriro errepikatu duen moduan.

Aurreko honi lotuta, onartu behar dugu Gasteiz hirirako mapa berri honetan ezarritako programazioak aukera eman duela joan den urteko (2011) txostenean jaso genuen egoera bideratzeko; bertan haur kopuru esanguratsua geratu zen plazarik gabe ikasleen onarpenerako prozesuan.

2012. urtean **Gasteiz hirian bi urteko geletan hezkuntza-plangintzan** ezarritako adierazleak betetzeari jarraitzea egiteko hasitako ofiziozko jarduerak amaitu dugu. Ikastetxeen zuzendariak emandako erantzuna eta, bereziki, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2012ko martxoaren 19ko saioan Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean izandako esku-hartzeak aukera eman du plaza eskaintza familien demandara egoki dadin hezkuntza-administrazioak egindako plangintzaren ahalegina berresteko. Hala, adierazi behar dugu 2012-2013 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesua itxi egin dela eta ez dela aparteko kexarik erregistratu Gasteizen zabalkuntza eremu berrietan bi urteko plazen eskaintzaren inguruan.

Horrez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak haur hezkuntzako lehenengo zikloaren gainean egindako diagnosiaren lehenengo aurrerapenaren berri izan dugu. Jakin badakigu, diagnosi horren esparruan, hezkuntza-ikuskapenak txosten bat egin duela hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeetako bi urteko geletarako langile laguntzaileei buruzkoa, eta honako alderdi hauek jorratzen dituela: (1) Bi urteko geletan Hezkuntza Sailekoak ez diren zenbat langile dauden; (2) eskaintzen dituzten zerbitzuaren modalitateak, kontratuen tipologia eta kontratatzen dituzten eragileak; (3) geletan langile horiek eman beharreko denbora -ordutegiak- eta esku-hartze motak; eta (4) familiek ordaindu beharreko kuota.



Txosten hori egiterakoan sailak beharrezko esku-hartze ildoak zehazteko eta horretarako jarduera egutegi bat ezartzeko proposamenaren berri baino ez dugu izan. Hor-taz, jarduera horrek eman ditzaken erantzunak ezagutzeko zain geratzen gara.

**Lanbide heziketaren** esparruan **goi-mailako irakas-kuntzen eskaintza handiagoa** ez egotearen ondotik haserre dauden herritarren kexak jaso ditugu. Horrez gain, nabarmendu beharrekoak iruditzen zaizkigu zenbait inter-esdunek egindakoak, kontuan hartuta alde aurretik euren aukeraren barruan dagoen familietako bati lotutako erdi-mailako ziklo bat gainditu ostean, probaren zati zehatza egitetik salbuetsita egongo zirela uste zutela. Haien matrikulak izapidetzerakoan horiek izapidetzeaz arduratzen ziren ikastetxeen akats baten ondotik, probaren emaitzak argitaratzerakoan, zati zehatzean kalifikatu gabeko hauta-gaitzat jo ziren. Dena den, azkenean, salatutako akatsak konpondu egin dira.

**Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren** onarpenaren berri eman nahi dugu. Horren bidez **euskaraz egindako ikasketa ofi-zialak aintzat hartzen dira eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesten da** (EHAA, 74. zk., apirilaren 16koa).

Halaber, berriz ere **ikastetxe atzerritarretan euskara eta euskal literaturaren irakaskuntza ezartzearen** ondotik sortutako arazoak mahaigaineratu behar ditugu. Tamalez, aipatu arazoek oraindik ere dihardute hainbat zentrotan, zehazki, **San Bonifacio** ikastetxe alemanean, eta arazok bideratzeko hezkuntza-administrazioaren jarrera erabaki-garriagoaren falta sumatzen dugu.

Horrez gain, 2012. urtean **Hezkuntza Marko Hirueleduna (HMH)** (**Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 22koa**) esperimentatzeko hautatutako ikastetxe batean erabilitako ikasleen banaketarako irizpideen gaineko iritzia azaldu behar izan dugu.

Egia da HMHren jardun esperimentalaren ezaugarri diren orientabide ireki eta malgukerak ikasleak taldekatzeko hainbat irizpide barne hartzen dituztela, ikastetxeei aitortu zaien antolakuntza-, pedagogia- eta kudeaketa-autonomia gauzatuz. Kexa eragin duen kasuan, aukeratutako sailkapena justifikatzeko argudiatu da baliabide gehiago esleitu dituzte-la taldeen artean zeuden desberdintasunak orekatzeko. Izan ere, ematen du taldeen ebaluazioaren emaitzek erabilitako estrategia bermatzen dutela. Edonola ere, emaitza horiek alde batera utzita, noiz nolakoak baitira, erakunde honen ustez, komenigarria litzateke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak azterketa sakonagoa egingo balu. Horrela, ondorioztatu ahalko da HMH esperientzian parte hartzeko baldintzak egokiak diren haien prestakuntza akademikoa hezkuntza hirueleduneko proiektu horrekin bat eginez jarraitu nahi duten ikasleen aukera berdintasuna bermatze aldera.

Ikastetxeei dagokionez, adieraziko dugu **Txingudi-Irungo ikastola HLHiko eta Txingudi BHiko** gurasoen elkarteak erakunde honen esku-hartzea eskatu dutela, zenbait helbururen artean, ikastetxe horien ohiko mantentzean tartean dauden hainbat administrazio-erakunde behar duten arduramaila zehazteko. Jakin badakigu ikastetxe horiek -ikastolako eta eskola publikoaren batzueko prozesuaren ondorioz irakas-kuntzako sare publikoaren zati direnak- egoera berezia

ari direla pairatzen. Izan ere, hezkuntza-egitasmoaren eta -plangintzaren ondorioetarako Irungo udalerrian bizi diren ikasleei erantzuna ematea aurreikusitako bada ere, zentro horiek dituzten ondare ondasunak eta 2011ra arte eman ez zen titulartasuna Hondarribiko Udalarari dagozkio. Bideratutako izapideetan Hondarribiko alkatetzaren jarrerak harritu gaitu, kategorikoa izan baita Txingudi ikastolako instalazioak barne hartzen dituen eraikinen sarbideak eta instalazioak mantentzeko baliabide ekonomiko gehiago ez emateki erabakiari dagokionez.

**Garraio eta jantoki zerbitzu osagarri** dagokionez, joan den urtean adierazi genuen garraio eta jantoki zerbitzu osagarriak konfiguratzeko moduak gure esku-hartzea baztertzea eragin zuela, hain zuzen, eztabaidatik salbuetsi gabeko hainbat kasutan, kontuan hartuta kudeaketa zuzenaren jantoki zerbitzuaren baimenak berekin dakarrela eguerdiko eskola-garraioaren zerbitzua ukatzea. Halaxe jazo zen Duranako Ikasbidea Ikastola IPlren inguruan aurkeztutako kexarekin.

Horri dagokionez, 2012. urtean agerian jarri behar da Ikasbidea ikastolako autobusaren erabilizailen guraso elkarteak (**TTIPI-TTAPA Ikasbidea elkarte**) hilabeteak daramatzala haren eskaeretan aintzat hartzeko bide formal bat gaitzeko helburuaren inguruan lanean. Ildo horretan, erakunde honen bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean mahaigaineratutako eskaera bat berariaz ebazten ahalegindu gara baina, saiakerak behin eta berriro egin arren, oraindik ez dugu aldeko emaitzarik lortu.

Halaber, eztabaida eragin du hezkuntza-administrazioak hartutako erabakiak, alegia, Ametzaga, Sarria eta Bitoriano herrietan bizi diren ikasleei ematen zitzaizkien eskola-garraioaren zerbitzua eteteari buruzkoak. Eskola-kontseiluetako hainbat ordezkari, baita Arabako **Zuia** udalerriko ikastetxeetako gurasoen elkarteetakoek ere, gure bitartekaritza eskatu dute.

Jantoki zerbitzuari dagokionez, jankideek garraiorako eskubidea izan edo ez izatearen arabera ordaindu behar dituzten zenbait **prezio** zalantzan jartzen dituzten kexak gailendu behar ditugu.

Zerbitzu horren gaineko irizpideek xedatzen dute garraiorako eskubidea duen ikaslearen jantokiko kuota eskubide hori ez duenarena baino baxuagoa izan dadin. Azken horiek tratatu desberdintasun horretaz kexu ziren eta, gure iritziz, ez dakar oinarririk gabeko bereizkeria, eskola-jantoki zerbitzua ezartzeko lehentasuna lotuta baitago eskola-garraiorako eskubidea duten ikasleak egoteari.

Hala, iruditzen zaigu kexa horiek agian agerian jartzen dituztela krisi ekonomikoaren ondorioak, beste ekitaldi batzuetan ez baitira mahaigaineratu, kontuan hartuta duela gutxi arte jantokirako eskubidea lortzeaz baino arduratzen ez ziren familiek orain prezio sistema zalantzan jarri dutela.

Horrez gain, azken urteotan familia batzuek behin eta berriro egindako bi eskaera jorratzen ari gara. Horietako bat, **dieta vegetarianorako** aukera aitortzea, azkenean onartu egin dena. Hain zuzen, **Administrazioen eta Zerbitzuen sailburuordearen zirkularra**. Horren bidez, kudeaketa zuzeneko erregimenean, 2012/2013 ikasturtetik aurrera, eskola-jantokien funtzionamendurako jarraibideak ematen dira, menu

basal orokorrak eta egon daitezkeen ikasleen intolerantziek, allergiek edo gaixotasunek eragin ditzaketen espezialetan gain –menu begetarianoa eta txerririk gabeko menua barne hartzen ditu–.

Azken horren bidez, erantzuna eman nahi zaie, hezkuntza-administrazioaren ustez, dieta desberdina arrazoi erlijiosoengatik eskatzen duten familiei, baina haien artean ez da nahikoa eta, horregatik, **halal dieta** izenekoak onar dadin eskatzen dute.

Eskaera hori, besteak beste, Euskadiko Kontseilu Islamikoak sinatu du eta haren eskaerak beste esparru batzuetara zabaltzen ditu, adibidez, arabiera eta Marokoko kultura irakastera bideratutako Espainia eta Maroko arteko programaren esparruan irakasleak kontratatzea.

**Hezkuntza-premia bereziak** dituzten ikasleei dagokienez, 2012. urtean osasun-arloko premia jakinei buruzko kexak (1 motako diabetes mellitus) izapidetzen jarraitu dugu eta [eskola-orduetan eskaini beharreko osasun arreta bereziari buruzko zirkularra, 2005eko azaroan onartutakoa](#), gure jardueraren oinarritzat hartu dugu.

Halaber, [2012ko azaroaren 29ko Arartekoaren ebazpenean](#) adierazitakoa gailendu behar dugu, hain zuzen, hezkuntza-premia bereziak dituen adingabe baten kasua (haren familia-etxebizitzatik gertu dagoen hitzartutako zentro batean matrikulatzea baimendu zaio eta hezkuntza-laguntzarako espezialista bat behar du).

Halaber, **Euskal Gorrak - Pertsona Gorren Elkarteak Euskal Federazioak** berriro ere entzumen ezgaitasunen bat duten ikasleen premien inguruko hainbat kexa helarazi dizkigu, bereziki hizkuntzak, lanbide heziketako ikasketak jakin batzuk edota, areago, unibertsitate ikasketak egiten ari direnak.

Horrez gain, familia baten kexa ebazteko aukera izan dugu. Familia horrek haren semearen **txosten psikopedagogikoak** eskuratu nahi zituen, baita adingabeak, **La Ola eskola** itxi eta Berango-Merana HLHIko gela egonkor batean eskolatuta egon ostean, Getxoko Julio Caro Baroja BHIIn egon eta gero, gelako arduradunaren, laguntzarako langileen eta garraio-arduradunaren laguntzarekin lekualdatu ziztuzten egiaztatu ere.

Beste urtebetez, eragindako familia batzuek azpimarratu dute **gaindohatzeko baldintza pertsonalei loturiko hezkuntza-premia bereziak dituzten eta arreta faltaren nahasmenduak dituzten ikasleei** erantzun hobea ematen ahalegintzeko premia. Horri dagokionez, [Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa](#) abian jartzeak xede hori lortzeko beharrezko estrategiak indartzeko aukera emango duelakoan gaude.

Aniztasun pertsonala eta kulturala gizartearen beraren ezaugarri atxiki gisa ulertzeak eta, ondorioz, modu positiboan baloratzeak eta gizartea osatzen dugun pertsona guzientzat aberasgarritzat jotzeak 2012. urtean abian jarri ziren beste bi plan barne hartzen ditu: [Ijitoen eskolatzeko hobetzeko plana 2012-2015](#) eta [Ikasle etorkinei arreta eskaintzeko plana, eskola inklusibo eta interkulturalaren testuinguruan 2012-2015](#). Argi dago erakunde honek urteetan zehar jarraipen berezia egin duela bi kolektibo horietako haurren eskolatzeari inguruan; izan ere, erakundearen

ustez, zaurkortasun egoera berezian daude. Ikuspuntu hori oinarritzat hartuta, poztasunez hartu ditugu plan eta lan-proposamen horiek, Ararteko erakundeak egindako iradokizun eta gomendioekin bat datozen jarduerak biltzen dituztenak eta euskal haur guztien (euren jatorria, identitate kulturala edo maila sozio-ekonomikoa alde batera utzita) aurrerapena berdintasun baldintzetan saihesten duten oztopoak gainditzeko bide eraginkorra izango direlakoan gaude.

Ikasle etorkinak zentro gutxi batzuetan biltzea saihestea bezalako planteamenduekin bereziki bat gatoz, ez haur etorkinen presentziak “bertako” haurren errendimenduari kalte egiten diola dioen oinarririk gabeko sinetsmena dela eta, baizik eta etorkinen portzentaje handi bat talde berean biltzea ez delako onuragarria etorkinentzat beraietzat, [PISA 2009](#) ikasleen nazioarteko ebaluazioan jasotako datuak kontuan hartuta, [ISEI-IVEI](#) erakundeak atera dituen ondorioei jarraiki. Ikasleen errendimendua ez da baxuagoa kanpoan jaio izan direlako bakarrik. Goian aipatutako planaren diagnosi-oinarria izan den ikerketa horren arabera, kalifikazioetan dagoen aldea “euren ezaugarri sozioekonomikoen eta kulturalen bitartez azaldu daiteke”. Egoera ekonomikoak familia jakin bat non biziko den eta euren seme-alabak zein ikastetxetan ikasiko duten zehazten du. Begi bistakoa da etorkin gehienak hirietako gunerik txiroenetan bizi direla eta eremu horietako eskolatan bildu ohi direla. Beraz, administrazioaren ardura da bere esku dauden baliabide guztiak baliatzea baztertzailak edo bigarriak izan daitezkeen jarduera mota guztiak saihesteko. Ez bakarrik arrazoi pedagogikoak direla eta, baita gizarte mailako arrazoiengatik ere: zentro edo sektore jakin batzuen ghetizazioa edo estigmatizazioa saihestea eta gizarteratzea sustatzea.

Egia da ikasle etorkinen edo ijitoen eskolatzeko ez duela inolako kexarik eragin erakunde honetan baina gizarte mailan laguntzarik ez duten ikasleentzako arreta eta programa konpentsatzaileak gure ustez garrantzitsuak diren bi espedientetan jorratu izan diren gaiak dira.

Horietako lehenengoak Gasteizko “Pedro Anitua” Hezkuntza Konpentsatzaile eta Lanbide Heziketarako Partzuergoaren deuseztapena dauka hizpide. Gure ofiziozko jarduera abian jartzea eragin zuen gertakaria hauxe izan zen: 2012ko ekainean, partzuergo horren Gizarteratzeko eta Laneratzeko Hezkuntza Ikasgelen (AISE) programaren deuseztapen posiblea. Dena den, zenbait hilabete beranduago partzuergoa bera desagertu zen, 27 urtetan zehar lanean aritu ostean.

Jasotako informazio guztia aztertu eta gero, ondorioztatu genuen 2011. urtean [Arabako Foru Aldundiak](#) bat-batean AISE programaren finantzazioa bertan behera utzi zuenez eta [Gasteizko Udalak](#) ordura arte egiten zuen ekarpen ekonomikoa aurreko urteekin alderatuz murriztu zuenez, horrek guztiak desoreka ekonomiko garrantzitsua eragin zuela. Are gehiago, partzuergoa “larriki zauritua” geratu zen eta ezin izan zuen 2012-2013 ikasturterako prestakuntza eskaintza bat abian jartzeko erronka bere gain hartu, ezta Hasierako Lanbide Prestakuntza Programan atalean ere. Estatutuen 3. artikuluan jasotakoarekin bat eginez, “Gasteizko lanbide heziketa eta hezkuntza konpentsatzailea” partzuergoaren xedea zenez, haren helburua lortzeko ezintasunak partzuer-

goaren desagertzea eragin zuen. Edonola ere, [Hezkuntza Sailak](#) Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programen jarraitutasuna bermatu zuen eta ohiko baldintzak mantentzen saiatu zen, ordura arte kudeatzen zituen erakundeak bere lana burutzen jarrai zezala bide alternatiboak topatuz. Gai-nontzeko programa eta zerbitzuak desagertu ziren.

Gertakari horrek gure artean eragin duen lehenengo erreakzioa atsekabe handia izan da. Jakin badakigu partzuergoaren jarraitutasunari buruzko erabakia bazkide diren erakundeen legezko erabaki politikoen eremuaren barruan eta lehentasunak ezartzeko lana zailtzen duen aurrekontuak mugatu dituen testuinguru estu baten barruan dagoela. Hala eta guztiz ere, adierazpen publiko zein pribatuetan aditzera eman ohi dugun moduan, ez daukagu inolako zalantzarik jarduera konpentsatzaile eta prebentzio jarduerak haurren eta nerabeen hezkuntzarako eskubidearen gauzatzean duten balioaren inguruan. Gure ustez, partzuergoak sortu zituenak bezalako hezkuntza inguru konpentsatzaile horiek modu erabakigarrian laguntzen dute desberdintasunak gizartratzean eta arriskuan dauden gazteek gaitasunak, ezagutzak eta jarrerak eskura ditzaten bidea errazten dute, eginkizun eta funtzio ezberdinak gara ditzaten pertsona helduaren estatusa lortu arte, emantzipazioa sustatuz.

Hori abiapuntutzat hartuta, gure iritziz, [mugaketa ekonomiko handia nagusi den garai hauetan, arrisku handienetako bat](#) hauxe da: administrazio, erakunde eta/edo sail bakoitzak (arauaren irakurketa zehatza eginez gero) bere eskumenekoak diren alderdiei dagokienez atzera egitea eta ordura arte eskaintzen zituen eta herritarrek baliatzen zizuten prestazio eta zerbitzuak bertan behera uztea (gure ustez, herritarren beharrak asebetetzen ziren programa/zerbitzu horien bitartez).

Hizpide dugun bigarren jardueraren jatorria familien, ikasleen eta profesionalen ordezkariak aditzera eman duten kezka da. Kezkaren arrazoia da orain arte [Bilboko Udalak](#) eskaintzen zuen Udako-Neguko Eskola gizarte- eta hezkuntza-laguntzarako programaren murrizketa gogorra. Programa horren xedea laguntzarik jasotzen ez duen gizarte inguruneke gazteei gizarte zein hezkuntzako laguntza ematea zen. Modu paraleloan hainbat dei jaso ditugu gure esku-hartzeari lotuta: zuzendaritza taldeak, ikastetxe jakin batzuetako gurasoen elkarteak, kolektibo pedagogikoak, 5. Barrutiko Gizarte, Hezkuntza eta Osasun Baliabideen Mahaia, etab.

Programari lotutako jaso dugun informazioa kontuan hartuta, hauxe baloratu dugu bereziki: [gizarte eta hezkuntza](#) izaera, hau da, elkargune eta partekatze guneeetan kokatua; izaera [konpentsatzailea eta prebentzio](#) izaera, hau da, taldearekin alderatuz desabantaila duten haurrei eta nerabeei zuzendua eta defizitak konpentsatzera zuzendua. Prebentzio izaera dauka arrisku eta zaurkotasun egoerek okerrera egitea zailago bihurtuko duelako; [familien artean sortutako konfiantza](#) eta laguntzeko eginkizuna, batez ere gurasoei, euren guraso-eskumenak garatze aldera (harremanetan jarri diren pertsonak gehienbat alderdi hori aipatu izan dute); [komunitate](#) izaera, mutikoen eta neskatilen inguruan bertan garatzen delako, filosofia normalizatzaile baten barruan, estigmatizazioaren aurkakoa; eta, azkenik, herrialdean duen

errotzea eta [gizarte-hezkuntzako eragileen sarean duen eginkizuna](#), izan ere, kasu batzuetan familien eta baliabide komunitarioen arteko (edo, batzuetan, azken horien arteko) elementu “konektore” bilakatu baita.

Aurreko kasuan bezala, erabakia udalaren legezko politiken erabakien esparruan kokatzen dela ulertzen dugun arren, egokitzat jo genuen unera arte zerbitzu hori jasotzen zuten [600 ume baino gehiagok](#) ordutik aurrera izango zuten egoerarekiko gure kezka helaraztea eta programa eragiten zuten beharren estaldurari buruzko aurreikuspenen inguruan galdetu genuen.

Bilboko Udalaren erantzunak alde aurretik azaldu zuen [hezkuntzaren eskumena Euskadin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokiola](#) eta udal programa horren existentzia nolabait azaldu zuen: duela hamar urte baino gehiago hasi zen une hartan ez baitzegoen programen bidezko gaur egungo eskaintza bezalako eskaintzarik [ikasleen gizarte eta kultura inguruari loturiko beharrak bideratzeko](#).

Argudio horiei erantzunez adierazi genuen moduan, ez dugu zalantzan jarriko hezkuntzarako eskubidea bermatzeko eskumena, hezkuntza behar berezi eta zehatzak dituzten haurrentzako derrigorrezkoak diren laguntzekin baina zalantzaren bat sortu da programak berdintsuak direla baieztatzeari dagokionez. Bestalde, administrazio edo erakunde jakin bat eskumenduna izateak argi uzten du zeinena den jarduteko erantzukizun saihestezina baina horrek ez du esan nahi gainontzekoak modu osagarrian jardun ezin dutenik, eremu jakin batzuetan ekintzak bideratu ahal izateko lankidetzan aritzea ezinbestekoa baita. Une honetan koordinazioak berebiziko garrantzia eskuratu du, koordinazioa baita bikoiztasunak eta sakabanaketa saihesteko helburua lortzea bermatuko duena. Gainera, horri esker, herritarrek euren beharrentzako erantzunak jaso ahalko dituzte.

Izan ere, hauxe da gure esku-hartzearen oinarriko eta funtsezko kezka: nork eta nola bideratuko diren zerbitzu hori jasotzen zuten neska, mutil eta familien beharrak programa desagertu denetik. Zentzu horretan bai lepora genezake, behintzat gure ikuspuntutik, ordura arte eskaintzen zen eta herritarrek jasotzen zuten zerbitzua bertan behera utzi izana, behar horren estaldura bermatuko duen eta eskudun izan daitekeen beste administrazio, erakunde edo sail baten erreleboa behar bezala kudeatu gabe.

Azkenik, [eskola-bizikidetzari](#) dagokionez, gure jarduerak ikastetxe batean berdinen artean jazotako tratu txarren kasu bati lotutako jarduera amaitzen duen [2012ko martxoaren 27ko Arartekoaren ebazpena](#) aipatuz laburtuko ditugu. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. mailan ikasten zegoen bitartean berdinen arteko tratu txarren kasu batean egon zen gazte baten familiak erakunde honen esku-hartzea eskatu du, hezkuntzako agenteek egoera horren aurrean jardun zuten moduatik. Erakunde honek positiboki baloratzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeetan berdinen artean gertatzen diren tratu txarrekin lotutako episodio posible guztiak ahalik eta arintasun, eraginkortasun eta segurtasun handienaz jorratzeko egiten duen ahalegina. Horretarako neurria izan da, esate baterako, [Ikastetxeetan berdinen arteko tratu](#)

txarrak gertatzen direnean jarduteko gida eta Eskolan cibrbullying-aren aurrean jarduteko protokoloa gida berriak onartu izana. Hala ere, kexa honetan aztertutako kasuaren errealitatearen ondorioz, berriz ere azpimarratu behar dugu jarduera burokratizatuak ekidin behar direla eta tratu txarren errealitatearen diagnostiko ona egiteko, biktimei laguntza, babesa eta segurtasuna emateko eta ukitutako familiekin konfiantzazko harremana eta komunikazio ona izateko helburu saihestezinak era arrakastatsuan bete eta aseko dituzten gida berri hauen aplikazio sistematiko eta eraginkorra sakondu behar dela.

Arazo horri dagokionez, 2012an Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren jarduerari hasiera eman genion. Ararteko erakundeak bertan parte hartzen du osoko bilkurako kide gisa. Horrela bada, eremu bikoitza sortzen da, denboran modu sistematiko eta egonkorrean, beharrezkoa den burutzarekin eta esku hartzen duten agente eta talde ezberdinen presentziarekin, errespetuan eta elkarriketan oinarritutako bizikidetzaren sustapenean aurrera eginez.

Behatokiak bilatzen dituen helburuetako bati jarraiki (ikus 19/2012 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzeko dena), urteko bigarren osoko bilkuran ISEI-IVEIk *Ikasleen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn* izeneko 2012ko txostenari buruz egindako ikerketa aurkeztu zen. Azterlan horrek adin ezberdinetako ikasleek euren zentroan eta hurbileneko inguruan gertatzen den ikasleen arteko tratu txarriari buruz dituzten iritziak eta ikuspuntuak biltzen ditu eta errealitate horren inguruko informazio oso garrantzitsua eskaintzen du. Azterlanak lortutako emaitzak aurreko ikerketetan (2004, 2005, 2008 eta 2009) lortutakoekin parekatzen ditu eta horren bidez antzemandako aldaketan azterketa eta balorazioa egin daiteke, baita arazoa konpontzeko bideratutako neurrien eraginarena ere. Hala eta guztiz ere, 2012ko txostenak aldagai kopuru gehiago gaineratu ditu azterketan (18 Lehen Hezkuntzan eta 19 Bigarren Hezkuntzan, azterlan guztietan egin izan diren 12 eta 13 aldagaien aurrean, hurrenez hurren) tratu txarren testuinguru berriak islatzeko helburuarekin, hala nola, ziberbullyinga, edo egun arte ezkutuan zeuden tratu txarren ezaugarriak ikusarazteko, besteak beste, eraso homofobikoa.

## 2.2. Babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuak


### 2.2.1. Zenbait datu kuantitatibo

Atal horretan jasotako informazioaren pisurik handiena bigarren mailako gizarte zerbitzuen jarduerak dauka, batez ere, eskumen foralekoei dagokienez, zenbait gogoeta eta ondoriok babesgabetasun egoeran edo egoera hori pairatzeko arriskuan dauden haurren eta nerabeen arretan parte hartzen duten gainontzeko eragile instituzionalak ere barne har ditzaketen arren (espero dugu haiek ere iritzi berdinekoak izatea). Hala, informazio kuantitatiboa eta egin dugun egoitza-baliabideen sareari buruzkoa 2012ko azaroan hiru foru aldundiei eskatu genien.

Eskatutako lehenengo datua foru aldundi bakoitzean artatutako populazioarena da: urtean ireki diren espediente berriak eta guztira zenbat espediente izapidetu diren, bai eta tartean dauden adingabeen kopurua ere. Eskaeraren aniztasuna foru aldundien praktika ezberdinen ondoriozkoa da, zenbait kasutan adingabe bakoitzari espediente bat esleitzen baitiote eta, beste batzuetan, espedienteak familia osoa identifikatzen du; beraz, adingabe bat baino gehiago tartean egon daiteke.

(5. grafikoa)

### 2012. urtean haurrentzako foru gizarte zerbitzuek artatu dituzten adingabe berrien kopurua




	1995	2001	2009	2010	2011	2012
Bizkaia	244	741	852	926	879	844
Gipuzkoa	194	414	496	570	758	776
Araba/Álava	136	180	205	189	190	298
<b>EAE</b>	<b>574</b>	<b>1.335</b>	<b>1.553</b>	<b>1.685</b>	<b>1.827</b>	<b>1.918</b>

**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Bizkaian eta Gipuzkoan ikusitako joera iazkoaren antzekoa da, zertxobait hazi da Gipuzkoan eta zertxobait gutxitu Bizkaian. Gipuzkoan, joan den urtean adierazitako joerari eusten zaio: “bertako” haur eta nerabeen kopurua hazi egin da eta, berriz ere, horiek %7,1 gehitu dute iazko ehunekoa; aldiz, %11,7 gutxitu da familia-erreferenterik gabeko adin txikiko atzerritarren ehunekoa. Araban dezente hazi da babesgabezia-maila baloratzeko asmoz Haurren Zerbitzura joaten diren adin txikikoen kopurua, eta horrek azaltzen du espediente-kopuruaren igoera. Igoera hori ez da islatzen, ordea, familia-banaketako neurrien kopuruan, izan ere, horietako asko familian esku-hartzeko programen bitartez (aldundiarenak nahiz udalarenak) artatzen dituzte.


Adingabe horiei eta ordura arte arreta jasotzen zutenei aplikatzen zaizkien babes-neurriak, funtsean, lau dira: familian esku-hartze trinkoa burutzeko programak, familia-harrera, egoitza-harrera eta adopzioa. Adingabeak euren gurasoetatik aldentzea barne hartzen duten bi neurri nagusien eboluzioa, hau da, egoitza-harrera eta familia-harreraren eboluzioa, ondorengo bi grafiko hauetan ikus daiteke:

(6. grafikoa)

**Egoitza-harrera neurriaren eboluzioa 1995-2012**


**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

(7. grafikoa)

**Familia-harrera neurriaren eboluzioa 1995-2012**

**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

(8. grafikoa)

**EAEn eta lurraldearen arabera, 2012. urtean egoitza- eta familia-harrera neurrien arteko konparaketa**


**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

2012ko datuetan ikusten denez, familia-harreraren kopurua egonkorra da eta Bizkaian apur bat gutxitu dira egoitza-harrerak. Dirudienez, datu horiek egiaztatzen dute gure foru aldundiek familiaren aukera lehenesteko egin duten apustua eta ahalegina, bai familia zabalean, bai besteren familian. Halaber, hirugarren grafikoa bi neurri horietako bakoitzak 2012. urtean lurralde bakoitzean eta EAEn izan duen garrantzi erlatiboa ikus dezakegu.

Adopzioei dagokienez, aurreko urtearekin alderatuz, bere horretan mantentzen da eskaera kopuruaren atzerakada, eskaerak nazionalak nahiz nazioartekoak izan. Daturik deigarriena da Estatuan eta nazioartean adoptatzeko egin diren eskaeren joeran aldaketa gertatu dela: lehenbizikoz urte askotan irauli egin da proportzioa, hau da, adopzio nazionalerako egin diren eskaerak askoz ugariagoak dira. Atzerakada nahiz eskaeretan ikusi den hobespena interpretatzean ondorio biribilak atera gabe ere, ezin dugu alde batera utzi krisi ekonomikoak adopzio-hartzaile diren familietan eduki duen inpaktua. Gainera, horri gehitu behar zaio adopzio prozesuaren errealitatea, konplexutasuna eta zailtasunak gero eta hobeto ezagutzen direla eta horrek erabakia oso ziur ez duten pertsonen asmoa kendu diezaiekeela.

(9. grafikoa)

**Adopzio eskaeren eboluzioa EAEn 1995-2012** (nazionala eta nazioartekoa)




**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Konplexutasun horren erakusgarri bat, behintzat prozesu-tik eraketara arte dagokionez, 2012. urtean benetan burutu diren adopzioei buruzko datuak dira: 27 eremu nazionalan eta 97 nazioarteko eremuan, kasu guztietan aurreko urteetan izapidetutako eskaerei dagozkienak.

(10. grafikoa)

**2012. urtean EAEn eta lurraldeen arabera burututako adopzioen kopurua** (nazionalak eta nazioartekoak)



**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Eta adopzioen arloan azken aipu bat egin behar dugu –araudiaren alderdiari badagokio ere–: pozik gaude foru aldundiek arlo horretan duten jarduera-prozedura erregulatzekeo **dekretua** aldatu delako. Gure ustez, bertan biltzen dira erakunde honek bere garaian azaldu zituen arrazoibideak, honako hau **gomendatu** zuenean: “belaunaldi arteko tartea ez dadila izan muga kronologiko absolutua, baizik eta kasuan kasu azter dadila, kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko ezaugarri pertsonal eta familiakoen inguruko iritzi oso eta banakatuaren”.

**2.2.2. Egoitza-harrera sarea**

Gaur egungo egoeraren lehenengo argazki bat eman eta babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzako arretaren eboluzioa (baita joerak ere) jakinarazi diguten datu kuantitatibo horiez gain, foru aldundiei egoitza-harrera sarearen konfigurazioaren gaineko informazioa eskatu genien, zehatz-mehatz 2012. urtean gertatutako baliabideen sorrera, aldaketa edo ezabapenen gainekoa.

**Bizkaiko** eta **Gipuzkoako Foru Aldundiek** eskainitako informazioaren arabera, bi lurralde horietako **egoitza arretako baliabide sareak** honako aldaketak pairatu ditu:

**Bizkaian** bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako bi egoitza baliabidek euren jarduera eten dute: “El Garmo” egoitza zentroak (20 plaza) eta San Ignazio egoitza erdiautonoma (6 plaza). Bestalde, Zabalotxe egoitza zentroak plaza kopurua murriztu du, 90etik 60ra, eta El Vivero egoitza zentroak, berrik, 27tik 30era igo du eta erantsitako eraikin berri bat egokitu du.

**Gipuzkoako** egoitza harrera sareak ere aldaketak pairatu ditu. Azpimarratzekoa da egun arte bakarrik dauden adingabe atzerritarrei soilik zuzendutako hainbat zentro “bertako” adingabeei ere zabaldu izana. gainera, 2012an egoitza harrera sarea berrantolatu da, arreta egokia bermatzea, lurralde oreka bilatzea eta ekonomia-eraginkortasuna hobetzea bezalako printzipioetatik abiatuta, 305 plaza dituen. Jarraian irakur daitezke aldaketarik nabarmentenak:

- Sareko zentrozen multzoan premiazko harrera programa kudeatzeko premiazko harrera zentroak kendu dira, haurrei egonkortasun handiagoa eskaini eta zentro aldaketak saiheste aldera.
- Hala ere, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak premiaz hartzeko berariazko zentro bat mantendu da, lehen uneetan eskainitako arretaren espezifikotasuna dela-eta (agiriak erregularizatzea, kultura ezberdintasunak...).
- Emantzipazio zentroak kendu dira, emantzipazio programa oinarritzko programaren eta jarrera arazoak dituzten nerabeei arretarako programaren zentroetatik kudeatzeko.
- Neurri judizialak jarraitzeko programa Uba zentrotik kudeatzea erabaki da, barnealdi-neurri judizialak betetzen ari diren adingabeen irteera jakinetarako edo, sare orokor edo espezializatutik neurri judizialak bete ondoren barneratzen diren gazteen kasuan.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak egoitza-harrera sarean egon diren *mugimendu* horien inguruan egon duen balorazioa positiboa da; izan ere, eskumena duten administrazioek

albeit lasterren baliabideak beharren eboluzioari egokitzeko eta lehentasuna duten beharrei erantzuteko duten interesa islatzen du. Bestalde, banakako zenbait kexen ikerketaren testuinguruan, hala nola, ofiziozko jarduerak, *in situ* ezagutu ahal izan ditugu zentro horietako batzuk eta inpresio orokor egokia berretsi ahal izan dugu.

Hala eta guztiz ere, aurten egoitza harrerako sareari buruzko kontu gehiagotan sakondu nahi izan dugu. Horrela bada, urrian ofiziozko espediente bat hasi zen egoitza baliabide horiek arautzen dituen [131/2008 Dekretuaren](#) betetze-mailari buruzko informazioa biltze aldera, izan ere, 2012ko abuztu amaieran araudia indarrean sartu zenean zeuden baliabideak egokitzeko ezarritako lau urteko epea amaitu zen. Urtero egindako jarraipenetan eta egoitza baliabide batzuetara egindako bisitetan antzeman ahal izan dugun arren administrazio arduradunek ahalegin handia egin dutela dekretu arautzailearen eskaeretara egokitzeko, hainbat kontu nekez balora daitezke bisita batean edo azterketa zehatzagoa eskatzen dute. Hori dela-eta, informazio eskaera bidali zitzaizen hiru foru aldundiei, [Gasteizko Udalari](#) eta Eusko Jaurlaritzako [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari](#). Bertan, hainbat gairi buruzko informazio zehatza eskatzen zen: baldintza materialen betetze-maila (baliabideen edukiera, irisgarritasuna, eremuen egokitasuna), baldintza funtzionalena (egoiliarren babes-neurriak eta zentro bakoitzean eskatutako gutxieneko agiriak), langileen baldintzena (titulazioak, gutxieneko ratioak, prestakuntza planak, laneko estresa saihesteko neurriak eta gainbegiratze sistema), baita araudia betetzeko zailtasun nagusiak eta betetzearen aurreikuspena ere. Bestalde, administrazio erantzuleek xedatutako ikuskapen mekanismoak ezagutu nahi genituen.

Urteko azken egunetara arte ez dugu aipatutako administrazio guztien erantzuna jaso, beraz, txosten hau ixterakoan ezin izan dugu egoeraren azterketa zehatza eta ondoriozko balorazioa egin. Hala eta guztiz ere, bi komentario labur egin ditzakegu. Lehenengoa administrazioek eskainitako informazioaren kalitatea eta inplikazio mailari buruzkoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Gasteizko Udalak eskatutako kontu guztiei buruzko informazio oso zehatza eta xehatua eskaini diguten bitartean, Arabako Foru Aldundiaren erantzunak, urria eta orokorra izan denak, asko zailduko digu dekretuaren eskaerek bere lurraldean izan duten betetze-maila ezagutzeko helburua lortzea.

Bigarrenik, egoeraren azterketan sakondu aurretik, eskainitako datuek bi konturen inguruko egoera oso kezagarria islatzen dutela aurreratu dezakegu: lehenengoa eta oinarritzakoa, langileen baldintzen egokitasun falta baliabideetako hezkuntza arloko langileen eta laguntzaileen titulazioei dagokienez (eta, ondorioz, gaitasun profesionalak eskuratzeko prestakuntza espezializatuari dagokienez), proportzio nahiko handian. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak emandako zirkularrak horren berri du, izan ere, titulazio mota ugari onartzen ditu lanbidean. Zentro-sareko baliabide ugariaren bigarren ahultasuna irisgarritasun baldintzak erabat betetzea da, nahiz eta hiru lurraldeetan berrantolatuta geratzen den mugikortasun urria duen adingabe bati baldintza egokietan arreta eskaintzeko aukera.

### 2.2.3. Programa espezializatuak

*Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan* espezializatu gisa definitutako programak, hau da, portaera-arazoak dituzten nerabeak zaintzeko programa espezializatua eta portaera-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua, arreta eta jarraibide berezia jasotzen dute Ararteko erakundearen aldetik, izan ere, programa espezializatuko berezko izaerari atxikitako euren ezaugarrietako batzuk direla-eta (mugimendu murrizketa baimendua, euste neurriak erabiltzeko aukera, bai inmobilizazio fisikoa bai isolamendua, etab.) eskubideen urraketa errazago gerta daiteke. Egoera hori, eta Espainiako testuinguruan antzeko ezaugarriko zentroetan dauden nerabeen eskubideen urratzea –hori egiaztatu baita- erakunde eta elkarte askoren arreta-gune dira.

EAEko programa espezializatuen uneko errealitatea zuzenean ezagutu eta egiaztatzeko asmoarekin, 2011n bisita plan bat hasi genuen. Lehenbiziko biak, urte horretan bertan bisitatutakoak, Gipuzkoako zentroak izan ziren: Aixola, Elgetan eta Endoia, Deban. Babesgabetasun larriaren dauden haurrentzako egoitza zerbitzuen kudeaketaren foru eskumena eta ondoriozko esku-hartze ereduaren aniztasuna kontuan hartuta, egokia zirudien aurreikusitako segimendua egiten jarraitzeak Bizkaia eta Arabako zentro/programetara hurbilduz, horiek in lurralde autonomiko guztian programa espezializatuen ikuspegi globalagoa osatze aldera.

Helburu orokor horren barnean, 2011n hasitako bisita planak erakunde honentzat bereziki kezkarriak diren eta bisiten gidoi gisa jarduten duten hainbat kontutan jarri du arreta. Hauexek dira kontu horiek:

- Programa espezifikokoak: zerk ezartzen du euren espezifikotasuna? adingabeen profilak? hezkuntza esku-hartze “espezifikokoak”? profesional talde ezberdinek?...
- Nork, nola eta noiz erabakitzen da programa espezializatu horietan sartzea eta ateratzea? protokoloek, jarraibideak, adierazleek?...
- Eskolatzea.
- Parte-hartzea: neska-mutilen hitza zentroko bitzitan.
- Ondasunetara heltzea. Eremuak pertsonalizatzea. Pri-batutasuna. Kanpokoarekin harremanetan jartzeko erregimena.
- Aisialdiak (autonomiak / lagunduta / taldeka...) eta estimuluen aberastasuna: jolasak, irakurketak, jolas-jarduerak...
- Dauden eta erabiltzen diren euste neurriak: inmobilizazio fisikoa eta isolamendua. Sendagaiak.
- Zigortzeko erregimena: neurriak, proportzionaltasuna...

2012an bisitatu dira Olabarrieta Etxea, Galdakaon, portaera-arazoak dituzten nerabeen arretarako programa espezializatu batekin, eta Laugune Etxea, Laukizen, portaera-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa eskaintzeko programa espezializatua. Araban Sansoheta gizarte eta hezkuntza zentrorra hurbildu ginen. Zentro ho-

rrek portaera-arazoak dituzten nerabeak artatzeko programa espezializatua du.

Bisitak ekainaren 12an eta 14an egin ziren Bizkaian, eta irailaren 19an Araban, aldez aurretik jakinarazi gabe, Arartekoak egindako ikuskapen bisitetan ohikoa den moduan. Erakundeko aholkulariak goizean goiz joan ziren egoitzetara, eta arduradunak, hezitzaileak eta arreta jasotzen duten neska-mutilak elkarriketatu zituzten. Instalazioak bisitatu ziren eta zegozkien haurren zerbitzuei agiriak eskatu zitzaizkien, lortutako informazioa osatzeko eta kontrastatzeko.

Ondorengo orrietan helarazitako informazioa gehien bat deskriptiboa da eta horren bere interesa zalantzan jar zitekeen hartutako nerabeek dituzten eskubideen bermeari dagokionez berariazko balorazioa eskaintzen ez duelako. Hala eta guztiz ere, gure ustez, deskribapen honen bidez, hain zuzen ere, irakurleek ulertu ahal izango dute zein modutan eta zein neurritan dauden babestuta eskubide horiek. Gure balorazioa, nolnahi ere, positiboa da.

Haurren foru zerbitzuen egitura eta antolamendua lurraldeen artean ezberdintasunak dituztenez, horiei dagokien informazioa banatuta aurkeztea nahiago izan dugu. Horrela bada, Bizkaiko programekin hasiko gara, ondoren, Arabako programaren inguruan kezkatzen gaituzten kontuei erantzuna emateko.

#### Olabarrieta etxea

- Jokabide-arazoak dituzten nerabeentzako arreta-programa espezializatua.
- Galdakaoko Olabarrieta auzoan kokatuta
- Komunitateko beste baliabideren batekin eraikina partekatzen du eta inguru hurbileko baliabide eta zerbitzuetarako irisgarritasun osoa dauka, garraio publikoko sarea barne.
- Mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarria
- Edukiera: 10 plaza, neska eta mutilen logelen eremua banantzeko aukerarekin. Bisita egin zenean guztiz beteta zegoen.
- 2006ko uztailan hasi zuen bere ibilbidea eta harez gozotik Bizgarri Elkartek kudeatzen du.
- Etxeko neska-mutilak egunero doaz euren hezkuntza zentroetara, ezberdinak direnak ikasketa motaren arabera. Era berean, komunitateko eskolaz kanpoko ekintzetan eta kultura, kirol eta jolas jardueretan parte hartzen dute eta euren kabuz kudeatzen dute norberaren aisialdirako denbora.

#### Laugune etxea

- Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeentzako arreta-programa espezializatua.
- Laukizko Mendiondo auzoko baserri batean kokatuta, landa inguruan eta berdegune zabal batekin.
- Garraio publikoko sarera heltzeko gunerik hurbilena 2 kilometrotara dago eta mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarria da.
- Edukiera: 8 plaza, neska eta mutilen logelen eremua banantzeko aukerarekin.
- Zentroak, uneko kokalekuan, 2011n hasi zuen bere jarduera, Urgatzik kudeatuta.
- Hezkuntza esku-hartzea, betiere banakakoa eta Banakako Esku-hartze Planean bilduta, hainbat fasetan egituratzen da eta horien bidez mailaka autonomia kota eta mugimendu askatasun gehiago lortzen dira egunerokotasuneko alor ezberdinetan. Hala eta guztiz ere, eta programa intentsibo gisa, jarduera gehiena zentroan bertan garatzen da eta neska-mutilak hezitzaileen gainbegiratzea dute ia une oro. Beraz, bizikidetzara oso intentsuko zentroa da eta eguneroko jarduera-programa oso zehaztuta dago, bai edukiari bai ordutegiari dagokionez.

#### 1. Programa espezifikoa: zerk ezartzen du euren espezifikotasuna?

Zentro horien elementu bereizgarri nagusia oinarriko sareko etxeekin alderatuz, gehien bat, profesionalen ratioa da. Programa espezializatu batera atxikitako neska-mutilen beharrak *hezkuntza* esku-hartze intentsuago batekin bideratzen dira, hezitzaile profesionalen eskuragarritasun handiago baten bidez eskaintzen dena. Hala ezartzen du 131/2008 Dekretuak eta hala ulertzen dute baliabideetako eta Haurren Zerbitzuko profesionalak ere.

#### 2. Nork, nola eta noiz erabakitzen da programa espezializatu horietan sartzea eta ateratzea? protokoloek, jarraibideak, adierazleek?...

Zentro horietara bideratzeari buruzko erabakiak (noiz eta zergatik sartzen da neska edo mutil bat etxean) Egoitza Harrera Unitatean hartzen dira, etxe sare guztirako ezarritako mekanismo berarekin. Programa espezializatueta babesik gabe dauden haurrentzako baliabide sareko beste zentroetatik, zuzenean euren familietatik, gazte-justiziako sistemaren baliabideetatik, etab. datozen nerabeak heltzen dira, eta orokorrean esango dugu kasuaren koordinatzaileak aurkezten duela proposamena. Proposamen hori garatzeko, esku hartzen duten edo adingabearekin lehenago lotura izan duten agente ezberdinetatik datorren informazioaz hornitu da. Proposamen hori Egoitza Harrera Unitatearekin kontrastatzen da, izan ere, haren berezko zeregina plaza esleitzea (banatzea) bada ere, kontraste hori egiten du, eta helmugako zentroko erreferentziazko koordinatzaileak ere parte hartzen du bertan. Erabakia COPIAk (Haur eta Nerabeen Babeserako Batzordea) burutzen du.

Nerabe bati programa horietako bat esleitzeko erabakia hartzeko portaera disruptibo maila eta baliabide arrunt



batera egokitzeko ahalmena baloratzen dira. Programa horiek esleitzen zaizkie arazoak okerrago konpontzen dituztelako, bizitzan nahaspilatze gehiago dutelako. Eta portaera arazoak orokorrak badira, hau da, eremu bakar batean bakarrik agertzen ez badira (familian, adibidez). Programa horietan hezkuntza profesional gehiago egoteak hezkuntza lan intentsiboagoa bideratzeko aukera eskaintzen du, ardura handiagoa neska-mutil horien beharrekiko.

Arazo psikiko bat egotea ez da adierazle erabakigarria, izan ere, portzentaje handi batek (guztiak ez esatearren) arazo psikologikoak, min emozionala, etab. dituzte, haztean bizitzen ari diren egoera oso zailak kontuan hartuta ulergarria dena. Hala behar duten guztiak arreta psikologikoa edota psikiatrikoa jasotzen dute Adin Txikikoak programaren bidez eta kanpoko baliabide arruntek eskainita, baina egoitza zentroetako lana guztiz hezitzailea da, ez terapeutikoa. Nolanahi ere, Bizkaiko Haurren Planak ezartzen du programa espezializatuak psikologo kualifikazioa duten profesionalak koordinatuko dituztela.

Nolanahi ere, etxean sarean buruko arazo garrantzitsua duten haurrentzako zentro berezia dutela azaldu ziguten. Babesgabetasun egoeran egoteaz gain buruko arazo (oinarri psikiatrikoa) handia duten adingabeei zuzenduta, errealitateak azaltzen du formalki babesik gabe ez dauden adingabe batzuk ere sartzan direla, familiek arreta eskaintzeko arazoak dituztelako. Gainerakoan, bitarteko baliabide kopuru handiagoa faltan botatzen dute, ospitaleko altaren ondorengo unek bideratzen dituztenak gertaera larri baten ondoren edo etxera itzuli aurretik.

Berme sistemaren zati gisa, erabakiak sistematikoki noizean behin berraztertzen dira, programa hauetan (edo beste batzuetan) jarraitzeko egokitasuna berriro eta uneko egoeren arabera balora dadin.

Irteerei buruzko erabakiak ere azken finean unitate horri dagozkio, nahiz eta kasu horretan etxeak garrantzi handiagoa izan bera delako banakako hezkuntza planean hartutako aurrerapausoak ebaluatzen dituen.

Agiriak eta etxeetako arduradunekin izandako elkarrizketak aztertzean jakin izan dugu 131/2008 dekretu erregulatzailerak ezarritako gehieneko egonaldi tarreak gainditzen ari direla. Profesionalen ustez ez dirudi kasu guztietan bete daitekeenik, baina hala ere ez da komeni desagertzea. Erreferentzia bat ezartzen du, hurbil izan beharreko helburua, baina neska edo mutil bakoitzaren banakako planaren hezkuntza helburuak betetzearen arabera izan behar da. Batzuek azkar egiten dute aurrera programa honetan, beste batzuek ez horrenbeste. Batzuek etxearekiko lotura positiboa ezartzen dute eta horrek egokiago bihurtzen du bertatik lanean jarraitzea berriro ere beste profesional batekin konfiantzazko harremana finkatu behar izan gabe... Gainera, ez dago horrenbeste lekurik "joateko". Ikuspuntu hori, hala ere, kontu bereziarekin hartu behar da eta zailago mantentzen da programa intentsiboan, izan ere, neska-mutilen autonomia eta pribatutasun maila askoz ere handiagoa da eta horren murriztaileak ez diren programe-tarako aurrerapausoa luzapen gehiegirik gabe egitea komeni da.

### 3. Eskolatzea

131/2008 Dekretuak guztiz argi ezarri arren egoitzetan dauden neska-mutilen eskolatzea ohiko hezkuntza sarean egingo dela, programa intentsiboko (Laugune Etxea) nerabeek etxean bertan burutzen dute euren eskola jarduera portzentaje oso altu batean.

Haurren Zerbitzuko arduradunen hitzetan, programa intentsibo bati atxikitako neska-mutilen errealitatea da orokorrean edozein hezkuntza zentrotik deslotuta daudela (ofizialki edo berez) edo harekin oso harreman gatazkatsuek dituztela. Nolanahi ere, eta hain zuzen ere eskolatze "arrunta" bistatik galdu behar ez dutelako, harekin erabat ados baitaude, horixe da intentsitate handiz lantzen den helburuetako bat eta neska edo mutil bakoitzaren kasuan ezberdin gauzatzen dena: prestakuntza jakin baterako sarbidea prestatuz, hezkuntza zentroan baliozkotzen diren edukiak "euren kabuz" prestatuz (etxean eta hezitzaileen babesarekin), etab. Bestalde, etxean portaerari eta jokabideari dagokionez egindako lana (komunikazioko gaitasun sozialak, emozioen kudeaketa, etab.) neska-mutilak hezkuntza inguru arruntetan barneratzeko lagungarria da.

#### 4. Parte-hartzea: neska-mutilen ahotsa zentroko bizitzan.

Neska-mutilek etxeko bizitzan duten parte-hartzea, gehien bat, astero guztiak euren erreferentziako tutoreekin dituzten tutoretzetan bideratzen da. Bertan gatazka, proposamen edo iradokizunak agertzen dira, baita etxeko antolamendu eta bizikidetzarako ere, eta hezitzaile taldeak biltzen eta kudeatzen ditu egokien iruditzen zaion moduan, gaiaren izaeraren arabera: batzarrera eramanez, antolamendu hobekuntza etxeko bizitzan gaineratuz, Haurren Zerbitzuari proposatuz, etab. Nolanahi ere, etxe horietan guztietan batzarrak egitea aurreikusten da, eskaintzen zaion maiztasuna, iraupena, pisua, etab. zentroaren arabera aldatu arren. Bizikidetzak gaien taldeko lanerako oso elementu garrantzitsutzat hartuta, bizikidetzak oso intentsua den etxeetan, Laugunen hala nola, batzarrak ezinbestekoak direla esan genezake.

#### 5. Ondasunetara heltzea. Eremuak pertsonalizatzea. Pribatutasuna. Kanpoarekin harremanetan jartzeko erregimena.

Bisitaturako bi etxeetako logela guztiak armairuak dituzte neska-mutilek euren jabetzak gorde ahal izateko eta dekorazio elementu bereziak ere badituzte. Logelek eta komunek pribatutasuna eskaintzen dute. Hala eta guztiz ere, gainbegiraturako telefono deien eta komunikazioetan dituzten mugen inguruan galdetu genuen.

Programa intentsiboa eskaintzen duen Laugune Etxearen kasuan, kanpoarekiko komunikazioa Olabarrieta Etxean baino askoz ere mugatuagoa dago programaren berezko izaera dela-eta. Hala eta guztiz ere, mugatze eta gainbegiratze maila neska edo mutilaren fasearen arabera da; hasierako fasean, adibidez, deiak eta beste edozein komunikazio (posta elektronikoa, mezuak, etab.) eteten dira eta eskubide horretara heltzen dira euren hezkuntza planean aurrera egiten duten heinean. Olabarrieta Etxean gazteek mugikorra dute eta egunero kanpoko inguru-

rekin harremanak dituzte eta egoera berezietan bakarrik eteten da.

#### **6. Aisialdiak (autonomiak / lagunduta / taldeka...) eta estimuluaren aberastasuna: jolasak, irakurketak, jolas-jarduerak...**

Aisialdia hezkuntzarako tartetzat jotzea eta, ondorioz, heburuen, neurrien eta jardueren plangintza, horien ezarpena eta burutzapena errealitate bat da bi zentroetan. Modu ezberdinean zehazten da programen ezaugarrien arabera, neska-mutilen gehien bat autonomia eta erabakitzeko askatasun maila txikiago edo handiagoak baldintzatuta. Estimuluaren aberastasuna, nolana ere, oso egokia iruditzen zaigu.

#### **7. Dauden eta erabiltzen diren euste neurriak: inmobilizazio fisikoa eta isolamendua. Sendagaiak**

Bi zentroetan inobilizazio fisikoa bakarrik erabiltzen dutela baieztatzen dute eta betiere hezitzaileek egiten dutela, izan ere, bestalde, ez dago bestelako langilerik. Hori bai, berriazko prestakuntza eta birziklatze ikastaroak jasotzen dituzte behar bezala egiteko. Ez dago isolamendu gela berezirik eta, sendagaien erregistroak berrikusita, ez dugu topatu medikuek agindutakoa ez den beste ezer.

#### **8. Zigortzeko erregimena: neurriak, proportzionaltasuna...**

Olabarrieta Etxean ezartzen diren zigor nagusiak ekonomikoak dira, hau da, asteroko esleipenaren murrizketa. Horrek zati finko bat eta zati aldagarri bat dauka, eguneroko betebeharrak eta helburuak betetzen direnaren arabera "irabazten" dena. Creditransa eta telefono deiak ez dira asteroko esleipen horretatik ateratzen, beraz, komunikazioa ez da arriskuan jartzen.

Irteerak mugatzeko zigorra oso gutxitan erabiltzen da. Zentrorra sartzeko atea ez da ixten (eta ez zegoen itxita bisitara joan ginenean), salbuespenezko egoeretan izan ezik. Taldea banatzeko zigorra ere ez da erabiltzen, arrazoi ezberdinak direla-eta: ez dauka zentzu handirik neska edo mutil bakoitzak ordutegi dinamika propioa daramatelako eta taldekako jarduera gutxi daudelako.

Laugune Etxean falta larri edo oso larri loturiko zigorrak (errieta, gertakaria onartzea eta eragindakoen artean barkamena eskatzeaz gain) honakoak dira: asteroko esleipena murriztea, zenbaitetan kaltearen konponketari lotua, taldearentzako interesgarriak diren jarduerak egitea, aisialdiko edo jolaserako jarduerak gabetzea epe tarte motz batean zehar edo adinari lotutako hainbat pribilegioren galera (poltsikoko dirua, irteeren ordutegia, ohera joateko ordutegia, etab.). Taldearen banaketa noizean behin ere erabiltzen da.

Zuzenean ikusitakoan eta neska-mutilen lekukotasunean ez dugu elementurik antzeman neurri zigortzaileen desoreka edo erabilera arbitrarioa adierazten dutenik.

#### **Sansoheta gizarte-hezkuntza zentroa**

- Jokabide-arazoak dituzten nerabeentzako arreta-programa espezializatua.
- Arrazua Ubarrundiako Azua errepideko 2. zk.an kokatuta, Gasteizen parean.
- Gasteiztik gertu dagoenez, hiriburuko garraio publikoen sarea erabil dezakete (bertara joaten dira gehien bat ikastera eta aisialdirako), Arrazua-Ubarrundiari dagokionak baino maiztasun handiagoa baitauka. Gainera, furgoneta osagarri bat ere badute.
- Eraikuntza isolatua eta oso berria: 2010eko udan ireki zen AHTren lanengatik aurreko eraikina erautsi behar izan zelako. Hori dela-eta, zentroa babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako egoitza baliabideak arautzen dituen dekretuan (abuztuaren 8ko 131/2008 Dekretua) xedatutako baldintza materialetara egokituta dago, besteak beste, mugikortasun murriztua duten pertsonen eremu guztietara heltzeko aukera dute, nahiz eta diseinuaren ondorioz nolabait "zailagoa" den eremu eta elementu batzuk erabiltzea.
- 12 plazako bi modulutan banatuta dago, eremu komunekin. Bisita egin zen unean 15 plaza beteta zeuden. Edukiera: 10 plaza, neska eta mutilen logelen eremua banantzeko aukerarekin. Bisita egin zenean guztiz beteta zegoen.
- Deskribatutako instalazio horietan bertan bigarren zerbitzu bat garatzen da: eguneko zentroa, 4 neska-mutilentzako lekua duena.
- Zentroa Urgatzi Elkartek kudeatzen du 2011ko martxoaz geroztik.

#### **1. Programa espezializatua: zerk ezartzen du euren espezifikotasuna?**

Zentro horrek oinarrizko sareko etxeen aldean duen **elementu bereizlea** profesionalen ratioa dela uste dute. Programa espezializatu batera atxikitako neska-mutilen beharrak **hezkuntza** esku-hartze intentsuago batekin bideratzen dira, hezitzaile profesionalen eskuragarritasun handiago baten bidez eta barne erregimen arautzaile eta mugatzaileago baten bidez eskaintzen dena. Hala eta guztiz ere, Sansoheta gizarte-hezkuntza zentroan psikologoaren irudia dute, hezkuntza taldeari eta behar duten hezitzaile bakoitzari oinarria ematen die, baliabidera heltzean hasierako balorazioa egiten du eta ospitalez kanpoko psikiatria zerbitzu edo buruko osasuneko zentroekin hizketakidea da, hainbat neska-mutil bertara joaten baitira.

Taldeak gizarte langile bat ere badu, gizarte ikuspegitik hezitzaileen eta psikologoaren ikuspegia osatzen du eta nerabeen familiekin harremana eta lana berriaz bideratzen ditu. Irudi hori bateragarria da familia horiek Haurren Zerbitzuko beste programetatik egin dezaketen lanarekin.

#### **2. Nork, nola eta noiz erabakitzen da programa espezializatu horietan sartzeko eta ateratzeko? protokoloak, jarraibideak, adierazleak?...**

Argitu beharra dago Arabako babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako egoitza baliabideen sareak ez duela

zentro berezirik jokabide-arazo larriak dituzten nerabeen programarako, izan ere, ez dute kasu nahikorik horretarako berezia den zentro bat irekitzeko. Programa hori egokia den kasuetan Arabako lurraldetik kanpoko zentroetan plazak eskatzen dituzte. Gainera, kontuan hartu behar dugu bakarrrik dauden adingabe atzerritarrek berariazko baliabide bat betetzen dutela (Bideberria) edo beharrezkoa denean irekitzen diren beste batzuk (Estibaliz), baina gainontzeko sarera sartu gabe.

Sansoheta gizarte-hezkuntzako zentrorra edo, halaber, programa espezializatueterako sarrera sareko gainontzeko baliabideetarako sarrera bezala erabakitzen eta kudeatzen da. Harrera eta Balorazio Unitateak udaleko gizarte zerbitzuetatik babesgabetasun larriko balorazioarekin helitzen dena jasotzen du. Larritasunaren arabera zaintza edo tutoretza onartzea erabakitzen da eta larrialdiko harrera zentroan sartzeko beharra edo ez. Kasua aztertzen duen Batzorde Teknikoak, Haurren Zerbitzuko 3 antolamendu unitateetako (Balorazioa, Egotzia eta Familia) 4 ordezkari osatutakoak, proposamena Adingabearen Kontseilura bidaltzen du dagoeneko Kasuaren Plan batekin; bertan, abian jarri beharreko neurria edo neurriak eta baliabideak proposatzen dira. Horrela bada, Sansohetako neska-mutilak zuzenean euren familietatik edo Ibaiako Larrialdiko Harrera Zentroetik datoz. Neurri txikiago batean gazteen justizia baliabideetatik etortzen direnak gaineratzen dira neurriak bete ditzaten.

Nerabe bati programa horietako bat esleitzeko erabakia hartzeko portaera disruptibo maila, kideei edo profesionalai zuzendutako agresibitatearekin, eta baliabide arrunt batera egokitzeko ahalmena baloratzen dira.

Programaren irteerari dagokionez, logikoki, aldakorra da eta betiere banakako hezkuntza programan eta Kasuaren Planean jasotako helburuak betetzearen arabera. Zuzenean etxetik datozenekin eta helburua bertara itzultzea denean, une egokia dela uste denean, gutxikako irteerarekin hasten da, jarraipen bat eginez. Hori posible izateko, zentroko nerabearekin bideratutako esku-hartzeaz gain, ezinbestekoa da familiarekin ere aurreratzea. Hori zentroko programatik bertatik (gizarte langilea) zein familiarekin esku hartzeko beste baliabideak edo beste programetako berezko baliabide terapeutikoak erabiliz egiten da, baita terapeuta pribatuekin ere. Gehien bat familia desegituratuak izaten dira, familia berreraikiak ere dauden arren, helduak izatean berriro elkartu diren etorkinen seme-alabak, ondo joan ez diren adopzio kasu batzuk... Kasu horiek zaintza lagapenen igoera azal zezaketen.

Familiara itzuli ezin diren neska-mutilek -edo itzultzea komenigarritzat jotzen ez denean- adinez nagusi izan arte jarrai dezakete sareko emantzipazio edo emantzipaziorako prestatzeko pisuetan, euren "babesa" luzatzen dutenak behin 18 urte bete ditzutenean Foruko Haurren Zerbitzuti kanpoko programen bidez, haiekin koordinazioa mantentzen den arren.

Normalean 9 eta 12 hilabete bitarteko egonaldia izaten da. Noizbait, baina salbuespenez, egonaldia luzeagoa izan da, programan oso gazte sartu izanagatik edo beste baliabide batean sartzeko aukera egokirik aurkitu ez izanagatik.

### 3. Eskolatzea

Haurren Zerbitzuko arduradunen hitzetan, programa intentsibo bati atxikitako neska-mutilen errealitatea da orokorrean edozein hezkuntza zentrotik deslotuta daudela (ofizialki edo berez) edo harekin oso harreman gatazkatsuak dituztela. Horrexegatik hauxe da Banakako Hezkuntza Planean presentzia gehien duen alorretako bat eta neska-mutilen hezkuntza zentroekin bideratutako harremanak ohikoak eta orokorrean onak izaten dira, Sansohetako hezkuntza arduradunen balorazioaren arabera. Bestalde, zentroan portaerari eta jokabideari dagokionez egindako lana (komunikazioko gaitasun sozialak, emozioen kudeaketa, etab.) neska-mutilak hezkuntza inguru arruntetan gutxika egokitze lagungarria da.

#### 4. Parte-hartzea: neska-mutilen ahotsa zentroko bizi-tzan

Adingabeen bilerak astero egiten dira eta bertan bizikidetzarekin loturiko alderdiak bateratzen dira, aisialdirako jarduerak proposatzen dira, zentroko antolamendua, ordu-tegiak... Gai eta arlo guztiak eztabaidatu eta negoziatu daitezke eta baldintza bakarra kexa edo proposamena idatziz egitea da, gertakariak eta iritziak azaltzeko eta defendatzeko gaitasunak lantzen jarrai dezaten.

Neska-mutilek Banakako Hezkuntza Planean duten parte-hartzeari dagokionez, erreferentziako tutorearekin dituzten tutoretzetan iritziak eta inpresioak kontrastatu eta biltzen dituzte.

#### 5. Ondasunetara heltzea. Eremuak pertsonalizatzea. Pribatutasuna. Kanpoarekin harremanetan jartzeko erregimena

Bisitutatutako zentroko logela guztiek armairuak dituzte neska-mutilek euren jabetzak gorde ahal izateko eta dekorazio elementu bereziak ere badituzte. Logelek eta komunek pribatutasuna eskaintzen dute.

Komunikazioei dagokienez, egoera berezietan bakarrik murrizten edo gainbegiratzen dira, baina oso erne daude komunikazio horien ondoren emozionalki nola geratzen diren antzemateko.

#### 6. Aisialdiak (autonomiak / lagunduta / taldeka...) eta estimuluaren aberastasuna: jolasak, irakurketak, jolas-jarduerak...

Aisialdia hezkuntzarako tartetzat jotzea eta, ondorioz, helburuen, neurrien eta jardueren plangintza, horien ezarpena eta burutzapena errealitate bat da zentroan. Antzemandako estimuluaren aberastasuna, nolahi ere, egokia iruditzen zaigu.

#### 7. Dauden eta erabiltzen diren euste neurriak: inmobilitate fisiko eta isolamendua. Sendagaiak

Inmobilitate fisiko bakarrik erabiltzen dutela baieztatzen dute eta betiere hezitzaileek egiten dutela, izan ere, bestalde, ez dago bestelako langilerik. Informazio hori elkarrizketatutako gazteek egiaztatu dute. Ez dago isolamendu gela berezirik eta, sendagaien erregistroak berrikusita, ez dugu topatu medikuek agindutakoa ez den beste ezer.

### 8. Zigortzeko erregimena: neurriak, proportzionaltasuna...

Ezartzen diren zigor nagusiak ekonomikoak dira, hau da, asteroko esleipenaren murrizketa. Hainbat kasutan, hala ere, zigor hori oso eraginkorra ez dela ikusi dute ateratzen direnean eta familia bisitatzen dutenean haien baliabide ekonomikoak eskura ditzaketelako. Era berean, lortutako lehenetsuen galera eta irteeren mugaketa erabiltzen dute. Taldetik banatzearen zigorra, erabiltzen denean, norberaren logelan edo taldeko jardueretan parte hartu gabe egiten da. Zuzenean ikusitakoan eta neska-mutilen lekukotasunean ez dugu antzeman neurri zigortzaileen desoreka edo erabilera arbitrarioa adierazten duen elementurik.

Baina 2012ko programa espezializatuen inguruko jarduerak ez ziren baliabideetara egindako bisitekin amaitu. Uztailean **Aixola zentroaren** inguruko ofiziozko jarduera ireki zen hainbat lekukotza oso koherente eta fidagarriek zentroan bideratutako hainbat praktika desegokiren berri eman zigutelako. Horien artean, gure ustez oso larriak diren bi azpimarratu behar ditugu: segurtasuneko langileek adingabeak bilurrekin fisikoki immobilizatzea; hainbat profesionalen praktika eta jarrera iraingarri eta umiliagarriak, nolahi ere, zentroaren norabidea zigor-helburuetara zuzentzen zutenak hezkuntza helburuetara beharrean, Nazio Batuen **Haurraren Eskubideen Batzordean** eta, berariaz, zentroak arautzen dituen 131/2008 Dekretuaren 14. artikuluko b) eta c) letretan jasotako duintasunerako eskubidea zuzenean urratuz. Kontuan hartu beharra dago, bestalde, adierazitakoak bat egiten zuela erakundeak 2011n zentrorako egindako bisitan dagoeneko antzemandako hainbat arriskurekin.

Gertakarien ezaugarriak zirela-eta, Gipuzkoako Aldundiari idatzizko informazioa eskatu genion, baina baita bilera bat ere foru-arduradunekin. Foru-zerbitzuak gure esku-hartzeari emandako erantzuna azpimarragarria da oso azkarra izan zelako, bai gertakariak ikertzeko azkartasunarengatik (zentroan agertu ziren gure deia jaso eta hurrengo egun baliodunean), zein irregulartasunak baieztatu ondoren horiek konpontzeko erabakien azkartasun eta sendotasunarengatik (larritasunarekin bat eginez).

Euste-neurri mekanikoak (bilurrak) erabiltzeari dagokionez, Haurren Zerbitzuak adierazi zuen, zentroko erregistroen arabera, hezkuntza neurri zuzentzaileak eragiten dituzten 4 egoeratan bakarrik erabili zela euste mekanikoa denbora batean zehar. Haurren lekukotzek, berriz, praktika ohikoagoa dela diote. Hori berretsi ahalko litzateke haur baten familiak segurtasuneko profesional bati funtzioak gainditzeagatik eta dagozkionak burutzeko moduarengatik ezarritako salaketarekin. Salaketa hori kasualitatez, gure informazio-eskaerarekin batera heldu zen foru-zerbitzura.

Kontu horri dagokionez, Foru Aldundiak:

- 1) Aixolan zerbitzua eskaintzen duen segurtasun enpresari eskatu zion aipatutako profesionala zerbitzutik berehala kanporatu zezan; gainera salatu zuten.
- 2) era berean, segurtasuneko langileek uniformean bilurrak eta porrak eraman gabe lan egin dezaten eskatu zuen: eramaten ez badituzte ez dute erabiltzeko tentaziorik/aukerarik izango.

3) zentroa kudeatzen duen enpresari segurtasun langilerik gabe esku har dezan proposatzen dio. Hasierako zalantzen ondoren, enpresari eskatu zioten profesional talde horren zeregina, kokapena, jarduera-protokoloa eta abarri buruzko berariazko gogoeta bideratu zezan, Haurren Foru Zerbitzuarekin eztabaidatzeko.

Hainbat profesionalen praktika iraingarri eta umiliagarriek dagokienez, gure jakinarazpenean baieztatzeke zegoen datua zena berariaz berresten da elkarrizketatutako haurren lekukotzekin. Horien bidez, hezitzaileetako bat mota horretako jokabideen protagonista eta sustatzaile nagusi gisa ere identifikatzen da. Aldundiak enpresari agindu dio profesional hori baztertu dezala haurrekiko esku-hartze zuzenean.

Gure aldetik, 131/2008 Dekretuaren 109.1 b) artikuluan xedatutakoa segurtasun profesionalek egin ahal izanaren inguruan zalantza handiak ditugu aspalditik, printzipioz ez baitute inolako prestakuntzarik hezkuntza alderdien inguruan. Artikulu horretan zera azaltzen da: "*Haurrak eta Nerabeak Babesteko dagokion Lurralde Zerbitzu Espezializatuak immobilizazio fisikoarekin esku hartzearen inguruko prestakuntza berezia duten hezkuntza-teknikariak sartzeko aukera balioetsiko du; teknikari horrek hezitzaileak esanbidez eskatuta soilik jardungo du.*"

Hori esan ondoren, egoera horien jarraipen oso estua burutzeko asmoa dugu, hartutako erabakiak etorkizunean burutzen eta mantentzen direla egiaztatuz. Jarraipen horrekin batera Iturriotz-azpi zentrorako dagoeneko aurreikusitako beste bat bideratuko da: 6 hilabetetan zehar zentroan dauden adingabeek pairatu dezaketen egoerari buruzko informazio oso kezkarriak jaso ondoren, zain gaude erakunde kudeatzailearen aldetaren aurrean. Horri arrazoizko epea eman diogu antzemandako arazoak konpontzeko.

Egoitza harreraren sareari buruzko atal hau amaitzeko oraindik ere burutzeke dauden hauen inguruko bi protokoloren jarraipena bideratuko dugu. Adierazi digutenaren arabera, **Herrizaingo Saileko** ordezkariak izendatzearen arazo gainditu ondoren, Eusko Jaurlaritzako **Gizarte Zerbitzu**etako **Zuzendaritzak** baimenik gabeko absentsien kasuetarako jardun-protokoloa eta babesik ez duten adingabeen egoitza-zentroetako zaintza eta segurtasun zerbitzuen jardun-protokoloa batera burutu nahi zituen. Hala eta guztiz ere, jokabide horrek ez du Herrizaingo Sailaren onespenerik, beraz, oraindik ere nola landuko diren erabakitzeke alde arreko puntuan daude. Bestalde, **EUDELeko** ordezkariak ere izendatzeke daude. Horiek zeregin garrantzitsua dute udaleko gizarte zerbitzuetan eta, bereziki, Udaltzaingoan duten eskumenarengatik.


#### 2.2.4. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

**Bakarrik dauden adingabe atzerritarren** berariazko beharrei dagokienez, foru aldundiei hainbat datu kuantitatibo (artatutako herritarrak, administrazio egoera eta erregulazioari buruzko datuak..) eta hainbat balorazio eta informazio kualitatibo eskatu zitzaizkien. Informazio horrekin batera, ondoren bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko kexen izapidetik sortutako jarduera batzuen emaitza aurkezten dugu.

Arreta jaso duten adingabe atzerritarren kopuruari dagokionez daturik aipagarriena da 2012. urtean zertxobait handitu dela arreta jasotzen duten adingabe berrien kopurua Bizkaian zein Gipuzkoan. Araban, berriz, kontrakoa gertatu da, nabarmenki murriztu baita kopuru hori. Hala eta guztiz ere, euskal sarean arreta jaso duten neska-mutilen kopurua abenduaren 31n aurreko urtean baino zertxobait txikiagoa zen. Hain zuzen ere, EAEn egoitza-baliabideetan bizi diren bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopuruari dagokionez 2009az geroztik antzemandako beheranzko joera mantendu da 2006. urteko antzeko kopuruetara heldu arte. Urte hauetan heldu direnen kopuruaren murrizketak, aurreko urteetan heldutakoen emantzipazioarekin batera, datu hori azal dezake.

(11. grafikoa)


**Bakarrik dauden adingabe atzerritar "berriak",** foru aldundietako haurren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2012



**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

(12. grafikoa)

**Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, abenduaren 31ra arte foru aldundietako haurren gizarte zerbitzuek artatuak.** Bilakaera, 2005-2012



**Iturria:** guk eginda foru aldundiek eskainitako datuak oinarri hartuta

Arreta jaso duten adingabeen profilean edo ezaugarrietan egondako aldaketei dagokionez, Bizkaiak aldaketa progresiboa izan du 2012an zehar. Marokotik datozen neska-mutilak familia desegituratuetatik datoz eta migrazio-proiektu zehatzik gabe gero eta gehiago. Beste hainbat neska-mutil Estatuan denbora daramate senideekin bizitzen eta, horiek euren herrialdera itzultzean, senide heldu baten erreferenterik gabe geratzen dira. Bestalde, Aljeriatik datozen neska-mutilen kopuruak gora egin du. Araban aldaketa antzeman da adingabe atzerritarren jatorriaren arabera banaketan ere: iaz % 73 Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik zetozen bitartean, aurtan % 34 osatzen dute eta jatorri magrebtarra dutenen kopuruak gora egin du (% 24tik % 56ra).

Gipuzkoako haurren foru zerbitzuak 2011n adierazi izan zuen euren baliabideetako egonaldia beste bizilekuetarako bidearen iragaite-etapa zela. Datu hori Bizkaian ere gertatzen ari dela dirudi, zentroak borondatez uzten dituztenen kopurua antzeman baita, bereziki lehen harrerako zentroan.

Egoitza-baliabideetan dauden adingabe atzerritarren kopuruaren beheranzko joerak Bizkaiko egoitza-baliabide espezifikoen itxiera eta Gipuzkoako zentro-sarean egondako aldaketak ditu oinarri. Bi kontu horiek txosten honen hurrengo atalean azalduko ditugu.

Adina zehazteari dagokionez, erakunde honen ustez oso kezagarria da Fiskaltzak ezarritako irizpideen aldaketa (estatu mailan gertatutako aldaketei jarraiki). Horien arabera, adina zehazteko proben emaitzak lehenesten dira beste edozein agiriren gainetik eta, horren ondorioz, egun arte lurraldean ezarri izan ziren jardura eta koordinazio irizpideak aldatu dira.

Erakunde honek behin eta berriro aipatu du ez dagoela ados adina zehazteko probak sistematikoki burutzearekin adingabeak direla dioten eta faltsutasun zantzurik ez duen pasaportearen duten pertsonen, edo zalantzarik gabe, euren itxura fisikoa hala bermatzen duenean. Foru zerbitzuek eskainitako datuek baieztatzen dutenez, egia da ez dela adina zehazten ari proba horien bidez kasu guztietan, baina Gipuzkoan adingabe horien % 60ri proba horiek egin izanak zalantza eta kezka mantentzen du, bereziki, azkenean, adina bide horren bidez zehazten zaien 83tik 8 bakarrik adinez nagusizat jotzen direla kontuan hartuta.

(1. taula)

**2012an adina zehazteko probak egin dituzten bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopurua (eta dagozkien ehunekoak)**

	Arabara/Alava	Bizkaia	Gipuzkoa
2012. urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua	59	340	138
Adina zehazteko egindako proba kopurua	48	48	83
Egindako proben % adingabe guztiekiko	%81,4	%14	%60
Proben ondoren antzemandako adinez nagusitasunen kopurua	41	8	8
Adinez nagusitasunen % egindako probekiko	%85,4	%17	%10
Adinez nagusitasunen % adingabe guztiekiko	%69,5	%2,36	%5,8

**Iturria:** guk egina haurren foru-zerbitzuek eskainitako datuen bidez

Faltsutasun zantzuak dituen pasaporte bat dagoenean edo datuen egiazkotasunaren inguruko zalantza daudenean, berriro ere diogu hobe dela Kontsuletxe edo Enbaxadan informazioa eskatzea agiriaren eta bertan jasotako datuen egiazkotasuna bermatzeko. Beste aukera bat adingabe-ari haren adinaren gaineko beste egiaztagiria batzuk aurkez ditzan eskatzea litzateke, hala nola, familia-liburua edo jaiotza ziurtagiria edo nortasunaren txartela. Agiri horiek eskatzea oso ohikoa da agiri ez duten adingabeen kasuetan, izan ere, pasaportetik ez dutenean hura emateko behar diren agiriak dira.

Gai horren inguruan, bestalde, erakunde honek bere kezka adierazi du, adingabea dela zehazten duen pasaportearen izan arren, adin nagusitasuna zehazten duen fiskaltzaren dekretuari jarraiki tutoretza galtzen duten pertsonen babesgabetasun egoerarengatik.

Pasaportearen identifikazio-agiri baliaduna da, kontrakoa zehazten duen ebazpen judiziala egon ezean, eta edozein herri administrazioaren aurrean ezinbestekoa da. Adina zehazteko prozesuan fiskaltzaren ustez baliozkotasunik ez edukitzeak ez du esan nahi agiri faltsua edo baliorik gabekoa denik, horretarako dagokion zigor-prozedura izapidetu beharko bailitzateke. Horregatik, paradoxa bat sortzen da: Fiskaltzarentzat pertsona hori adinez nagusizat hartu da, baina gainontzeko herri administrazioentzat adingabea izaten jarraitzen du, pasaporteak bermatzen duen moduan, ez baita

faltsuztat jo. Adibidez, pertsona horiek ezingo dute inolako baimenik eskatu **Barne Ministerioaren** aurrean, egoitza-baimenaren eskaera aurkezteko pasaportearen gaineratu behar duelako eta, kasu honetan, pasaportearen adingabe batena da. Era berean, ez luke erabateko ahalmenik negozio juridikoak eraginkortasunez burutzeko edo administrazioaren aurrean beste edozein eskaera egiteko.

Pertsona atzerritarra identifikatzen duen agiria pasaportearen da eta agiri berri bat eman dezakeen agintaritzak bakarrik bere jatorrizko herrialdekoea da. Administrazio horrek adierazten badu adin zuzena pasaportearen agertzen dena dela, ezingo luke identifikazio-agiriak izan adinez nagusi den pertsona gisa. Horregatik, aurretik aipatu izan dugun moduan, gure ustez jatorrizko herrialdeko agintaritzak bermatu beharko luke pasaportearen agertzen diren datuen egiazkotasuna.

2012an zehar bakarrik dauden gazte atzerritarren **kexa** kopuru handia jaso dugu, orokorrean denbora tarte laburretan zehar bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideetan egon ondoren, irtetearen zailtasun bereziak zituze-lako.

Kexen arrazoietakoa bat **tutoretza eten dela aipatzen duen agiriak ez aurkeztea** zen, beraz, adin nagusitasuna adierazten zuen fiskaltzaren dekretua besterik ez zuten. Arabako Foru Aldundiak adin nagusitasuna aitortzen zuen fiskaltzaren dekretuaren babesean egoitza-harreraren etetea aipatzen zuen foru agindua ematen ohi zien. Agindu horretan ez zen aipatzen ebazpen horren aurkako errekurtsoa aurkeztu zitekeenik. Gazteei informazio hori helarazi genien, Gasteizko Familia-epaitegiaren aurrean aurreko ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkez zezaten proposatuz. Horretarako **Orientazio Juridikoko Zerbitzura** jo behar zuten abokatu bat eta ofiziozko prokuradore bat izenda ziezaieten eta doako justiziaren eskubidea eskatzeko.

Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiari zuzendu gintzaizkion egoitza harreraren etetea erabakitzen duen administrazioaren ebazpenak arestian aipatutako jakinarazpena ere gainera dezan eta horren aurkako errekurtsoa aurkez daitekeela adieraz dezan, baita noiz eta zein epaitegiaren aurrean agertu behar den ere. Izan ere, azaldu izan dugun moduan, erakunde honen ustez kasu horietan tutoretzaren etetearen ebazpena eman behar da, arrazoi gisa fiskaltzaren adina zehazteko dekretua duena. Ebazpen hori behar bezala jakinarazi behar da eta, etetea erabakitzeko izandako arrazoiak zein horren aurrean ezar daitekeen errekurtsoa jaso beharko ditu.

Kexen bigarren arrazoi bat Arabako Foru Aldundiak **ezohiko baldintzengatik egoitza baimena eskatzeko gomendioa** ematea ukatu izana zen, denbora tarte labur batean zehar bakarrik dauden haurren egoitza-baliabideetan egon izan ondoren, egoitza-baimena lortu izan gabe. Hainbat kasutan ere agiriak zentroko lan-programaren aprobetxamendu egokiari buruzkoak ziren, baina gomendioa ukatzen zen **egonaldia nahikoa ez izanagatik**.

Horren gainean, administrazioari hauxe adierazi genion: eskubideak bermatze aldera, administrazioak **behar bezala arrazoitu behar duela** hartzen duen edozein erabaki; horrela, interesdunek, ezagutzen dituzten arrazoiak oinarritzat hartuta, euren burua babesteko aukera edukiko dute. Erakun-

de honen ustez, egonaldiaren iraupenaren adierazlea bere horretan ez du ezein legezko xedapenik ezarri eta babesgabetasuna eragiten du. Administrazioak legezketasunaren printzipioarekin bat eginez jardun behar du eta ezin du eskubideen interpretazio murriztailerik egin. Nahiz eta egia izan Erregelamenduaren 198. artikulua ezarritakoaren arabera, adin txikikoak babesteko zerbitzuak gomendatu egin ahal izango duela (hau da, aukerakoa da), egia da, halaber, artikulua horren ezein tokitan (ezta 197. artikulua 3. atalean ere, horri lotzen baitaio) ez dagoela xedatuta pertsona bat harrera edo tutoretzapean egon den denborak adierazi behar duenik zenbateraino aprobetxatu diren prestakuntza-baliabideak.

Denbora beste datu bat besterik ez da, prestakuntzara joatea eta jarraitutasuna, ikasteko egindako ahalegina, errendimendu akademikoa, etab. bezalakoak. Ideia horretan sakonduz, gerta daiteke denbora tarte luze batean zehar harrera jasotzea baina legezko xedapena ez betetzea ez delako probetxurik egon. Azken finean, helburua ahalegina baloratzea da, legezko xedapenari beste eduki bat gaineratu gabe.

Gobernuko Ordezkaritzari edo Ordezkariordeztzari dagokio prozedura ebaztea. Horretarako, adingabeak babesteko zerbitzuak emandako informazioa eta beste organo eta erakunde batzuek helarazitako informazioa (Donostiako administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko Auzitegiaren 25/2010 Epaia ikusi) erabili dezake zehaztasun handiagoarekin gaia ezagutzeko *“su esfuerzo de integración, la continuidad de la formación o estudios que se estuvieran realizando, así como su incorporación, efectiva o potencial, al mercado de trabajo”* (2/2009 Lege Organikoaren 35.9. artikulua). Modu horretan, garai batean interesdunari babesa eta segurtasuna eman zion erakunde publikoak burutu dezakeen agirien eta informazioaren ekarpenak garrantzi berezia eskuratu du.

Hori guztia aintzat hartuta, ematen du zentzuzkoa dela 18 urte bete arte gazte horiei babesa eskaini dien zerbitzuak aipagarriak eta objektiboak diren alderdien gaineko txosten deskribatzailea egitea (hala nola, zenbat denbora egon diren bertan, zer prestakuntza jardueretan eta beste mota-tako jardueretan parte hartu duten...). Amaitzeko aldeko eta aurkako iritzia ere azaldu beharko litzateke, betiere, emaitza arrazoituz.

Jakin dugu beste bi lurralde historikoetan horixe egiten dela, hau da, eskuragarri duten informazioa, kasu batzuetan gehiago beste batzuetan gutxiago, aditzera ematen dute Ordezkariordeztzaren esku utziz pertsona horren inguruabarren eta bere gizarteratze mailaren balorazio orokorra egitea.

Hirugarren arrazoia, berriz, hauxe zen: Gasteizko Udalak babesik gabeko haurrei, gizarte-bazterketako egoera larrian zeudela iritzi eta gero, baliabideetatik irteteen ematen ziren arretan beraien ustez zeuden gabezia garrantzitsuak.

Kexak aurkeztu dituzten pertsonak zein udalak berak, gure eskaerei erantzunez, helarazitako informazioari esker, jakin genuen pertsona horiek guztiek (salbuespenak salbu, hiritik joan zirenak besteak beste) arreta jaso zutela udaleko gizarte zerbitzuen eskutik, bai baliabideetan, bai gizarte bazterkeria egoeran edo egoera hori pairatzeko arriskuan dauden

pertsonentzako abian jarri diren programa/zerbitzuen bitartez. Hori ontzat jotzen dugu.

Hala ere, une hartaz baliatuta, argi adierazi genituen gizarte-egoera bereziki ahulean dauden pertsonen eman behar zaien laguntzan -gure ustez, guztiz beharrezkoa- ikusitako gabeziak edo elementu ahulak. Gure aurreko txostenetan behin baino gehiagotan errepikatu dugunez, pertsona horiekin sentikortasun handiz jokatu behar da. Batez ere, gazte horiek laguntza behar dutelako autonomia eskuratzeko prozesuan zehar. Ahultasun handiko une batean, hala nola, heldu bilakatzeko unean, erantzun egoki batek eragin izugarria izan dezake pertsona horrek gizarteratzeko dituen aukeretan. Horrez gain, kasu horietan gehitu behar da euren jatorrizko herrialdekoa ez den gizarte eta administrazio egituraz osatutako kultura eta gizarte batean integratu behar direla.

Horrela, aspalditik nabarmendu dugu **irteera eta emantzipazio programak** sendotzeko beharra. Baliabide propio nahikorik ez duten nerabe eta gazteentzako mailaz mailako autonomia programei buruz ari gara, erreferentziatzeko laguntzekin edo helduekin. Gerta daiteke eta gertatzen da, denboraldi jakin batzuetan (batzuk luzeagoak, beste batzuk motzagoak) gizarteratzeari buruzko helburuen alloan aurrera egin dela baina helburu horiek arriskuan jarri direla ondorengo arrazoiengatik: administrazio estatusaren aldaketa bat (18 urte betetzea eta babesa behar duen adingabe izatetik -helduen menpe dagoena- bere bizitza baliabideekin eta irizpidearekin administrazteko gai den heldu autonomia izatera pasatzea); beharrari lotutako inguruabarretan aldaketa bat, sail, erakunde edota organizazio hornitzaile desberdinak barne hartzen dituen; etab.

Horrek esan nahi du banakako irteera plan batekin lan egin behar dela, kasu guztietan, alde aurretiko egonaldiaren iraupena alde batera utzita eta auzibidean errekurtsio baten menpe daudelako zalantzan jar daitezkeen adinari lotutako kontuak alde batera utzita. Egia da ordura arte jatorrizko programan egindako lanak (eta, horrenbestez, egonaldiaren iraupenak) garrantzia daukala baina plana “pertsonalizatuz” gero pertsona bakoitzaren behar eta inguruabar partikularrak jorratuko dira.

Halaber, baliabideen, zerbitzuen, sailen eta erakundeen arteko **koordinazioa eta lankidetzan aritzea** sailhestezina da. Horixe baita “arreta etengabea” bermatzeko eta sektoretan eta sailetan banatuta dagoen funtzionamenduak porrot egitea sailhesteko modu bakarra; izan ere, azken horrek gazteen autonomia prozesuak eta gizarteratzea luzatu edo oztopatu ditzake. Profesionalen parte hartzea ezinbestekoa da, bai jatorrizko programan, bai jarraitutasuna eduki dezan aurreikusitako programetan. Modu horretan, pertsonaren ostatua, mantenua eta gainontzeko funtsezko beharren estaldura bermatu ahalko dira, denborari dagokionez, inolako etenaldirik gabe.

Autonomia pertsonala mailaz maila bereganatzeko testuinguruan, oinarritako beharren estaldura, ostatua eta mantenua bermatzeko **gutxieneko baliabide ekonomikoak** edukitzea funtsezkoa da, ostatuaren, elikagaien, arropen, sendagaien, eskolako edo laneko materialaren, ikastetxera edo lanpostura joateko garraioaren eta abarren “merkatuko” kostuari aurre egiteko nahikoak. Euskal Autonomia

Erkidegoan zenbait erreferentzia daude, gutxieneko hori ezartzeko baliagarriak izan daitezkeenak (diru-sarrerak bermatzeko errenta besteak beste). Horien azpitik, oso zaila da bizitza duina edukitzeko aukera izatea. Bestalde, gutxieneko baliabide ekonomiko horien zenbatekoak gazte horien administrazio egoeran oso eragin handia dauka. Zehazki, bizitoki baimena berritzeko (edo ez) aukerari buruz ari gara, bai eta hori salbuespenezko inguruabarren ondorioz eskuratzeko aukerari buruz ere. Baliabide ekonomikoak eskatzen diren adierazle (IPREM) azpitik murrizten badira berritzeko une erabakigarri batean edo bizitoki baimena eskatzerakoan, pertsona hori administrazio irregularitasun egoeran jartzen da berriro ere, “irteera laukian” hain zuzen, eta ordura arte gizarteratze prozesuan eta migrazio proiektuaren sendotzean lortutako aurrerapen guztiak hondatu egiten dira. Ez dauka zentzurik une horretara arte lortutako laguntza baliogabe bihurtzea bizitoki baimena berritzeko ezintasunaren ondorioz; izan ere, hori gertatuz gero ezingo dute lan bat eduki.

Baliabide horiek jasotzeko modua ere ez da axolagabea, ez ekonomiari dagokionez, ezta hezkuntzari dagokionez ere. Aurreko etapetan ez bezala, ostatu kolektiboak ez duten gazteek hilean 625 euro jasotzeko hilean 325 euro jasotzera pasa dira. Horrez gain, gizarte jantokirako txartel bat ere jasotzen dute (300 euroko balioa duena). Horrez esan nahi du 325 euroekin logelen alokairuari (Gasteizen arraroa da 250 euro baino gutxiago ordaintzea) egin behar diotela aurre eta, sobran dutenarekin gainontzeko beharrak asebate behar dituzte, hau da, arropa, sendagaiak, garraioa, eskolako edo laneko materiala... Gure ustez, ez da nahikoa. Hezkuntzaren ikuspegitik, autonomia pertsonalaren prozesuan aurrera egiteak esan nahi du mailaz maila erabakiak hartu behar direla, aukeratzeko askatasun pertsonaletik abiatuta. Horretarako, aukeratzeko, plangintza egitea, lehen-tasunak ematea, antolatzea... eskatzen duten egoerei aurre egitea ezinbestekoa da. Mantenua bakarrik gizarte jantokiaren bidez bermatzeak ez dio onik egiten mailaz mailako autonomia horri. Halaber, beste pertsonen artean aurreiritziak sor dezake. Hori ere erakunde honek egindako aurreko txostenetan jorratu dugu; izan ere, ezinezkoa da jantokiaren ordutegiak prestakuntzaren eta lanaren ordutegiarekin bate-ratzea.

Gazte horien hazkuntza pertsonalaren eta gizarteratze prozesuan, aipatutako gutxieneko baliabide ekonomikoekin batera, funtsezko beste elementu bat dago: **gaikuntza, bai pertsonala, bai profesionala eta soziala**. Zentzu horretan, ezinbestekoa da nahikoak diren gaitasun linguistikoak eta kualifikazio profesionala eskuratzeko laguntza. Horretarako, gazteen ezaugarri partikularrik aintzat hartu beharko dira eta erritmoak eta formatuak egokitu beharko dira, hezkuntzaren arloan egoera desberdinak gertatzen diren bakoitzean eskaintzen den arreta beraren bidez. Orain arte gazte horiek, beste gazte batzuekin batera, gizarte eta hezkuntzako eta prestakuntzako zenbait programetan parte hartzen zuten ikusi 2.2.2.1 Hezkuntza atalean kontatutakoa Gasteizko Osabidezko Hezkuntzarako eta Lanerako Prestakuntzarako Partzuergoa desegiteari buruz). Horiek desagerraraztea edo murriztea ez da ideia ona eta integrazioaren bidean beste oztopo bat besterik ez dira.

Azkenik, ezin dugu ahaztu prozesuan zehar erreferentziazko **laguntza** egonkorra beharrezkoa dela. Laguntzaren intentsitatearen logika beheranzkoa da. Hala ere, bizitza ez da beti horren lineala eta, kasu batzuetan, gerta daiteke une batean behar den laguntza lehenago jasotakoa baino handiagoa izatea. Zeregin horretan **gizarte sarearen** lan-kidetzako oso interesgarria izan daiteke; izan ere, gizartearen integratua egoteak komunitatearekin lotura eta harreman sendoak edukitzea barne hartzen du. Horretarako, gizarte erakundeak, berez, administrazioa baino hobeto hornituta daude. Norabide berean lan egiteak onurak besterik ez ditu ekarriko.

Azken kexa-multzoa, atzerritarren esparruan, gehiago errepikatzen den kontu bati buruzkoa da: **erroldatzea**. Foru aldundiek (gogora dezagun haiek ematen dutela tutoretza) adingabe horiek dokumentatzeko duten beharra denboran luzatzen ohi da kontsulatuak eta enbaxadek euren nazionaleri eskatzen dizkieten baldintzak betetzeko beharra dela-eta. Hori, zenbaitetan, oztopo bat izan da udal erroldan izena emateko, eta errolda funtsezkoa da pertsonen bizitzarako, izan ere, eskubideen erabilerarako (hezkuntza, osasuna, gizarte parte-hartzea...) eta herri administrazioekin harremanak izateko sarbidea da.

Arazo horri erantzuna emateko **urriaren 17ko Arartekoaren 5/2011 Gomendio Orokorra** eman genuen. Bertan, erroldako izen-ematea arautzen duen araudia eta udalen praktika ezberdina aztertuta, horiei orokorrean gomendatzen zitzaizkien aplikatu beharreko araudia pertsonen interesen zentzurik onenean interpretatzen duten praktikak gainera zitzaten eta herri administrazioek haurren esparruan dituzten betebeharrak kontuan hartuko lituzkeen jardun-protokoloa gara zitzaten (Aldundiarekin batera). Betebehar horiek ezin dira alde batera utzi adingabeak agiririk ez izanagatik ezta une zehatz batean itundutako plazak baino adingabe gehiago egonagatik ere.

Gomendioa hedatu zenetik urtebete baino zertxobait gehiago igaro ondoren, Bizkaiko udalerrri gutxi batzuetan zailtasunak mantentzen direla antzeman genuen, beti ez bazen ere, beraz, berehala harremanetan jartzeko asmoa izan genuen kasu zehatz bakoitzean zeuden oztopoak konpontzeko.

Urtearen lehen erdialdean erakunde honetan hainbat kexa jaso genituen Gasteizko udalak ez zituelako erroldatu gizarte bazterkerian dauden pertsonentzako egoitza-baliabideetan hamabi gazte atzerritar inguru, adingabeen babeserako baliabideak utzi izan ondoren. Udaleko zerbitzuarekin harremanetan jarri ginenean, erroldatze protokoloa behar bezala betetzen ari zela egiaztatu genuen eta kexak administrazio-izapideen tartean aurkeztu zirela, beraz, udaleko protokoloan ezarritako epea amaitzean pertsonak behar bezala erroldatuta zeuden.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko arretari buruzko atal hau ixteko, egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen **131/2008 Dekretuaren** seigarren xedapen gehigarrian ezarritako bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako **premiazko harrera protokoloa** garatzeko prozesua aipatuko dugu. Eusko Jaurlaritzako **Immigrazioa eta Aniztasunaren Kudeaketaren Zuzendaritzak** arlo honetan gertatu izan diren aurrerapausoen berri eman digu. Aurrerapauso



horiek oraindik ez dute adostasun-maila nahikorik lortu onartu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, dagoeneko adostasunaren bezperan gaudela dirudi, izan ere, 2013an lortuko dugulakoan gaude, eta erakunde honek aurreko urteetan behin eta berriro adierazitako ikuspuntuarekin bat egiten duten hitzek osatzen dute.

## 2.3. Familia

### 2.3.1. Familiei laguntzeko politika publikoak

Erakunde honek familiei laguntzeko politika publikoek duen iritzia azaltzeko aukera izan zuen 2012ko azaroan, Eusko Jauriaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak antolatutako Familien Biltzarrean. Horrela nabarmendu genuen familiek giza eskubideen defentsan duten zeregin garrantzitsua, premia egoeretan babesa eskaintzeko duten ahalmena eta banakakoen artean elkartasun-lotura irmoak ezartzeko gaitasuna.

Familia publikoki babestea banakoak euren giza garapenean babestea dela kontuan hartuta, banakako eta taldeko eskubideak lortzeko eta premia gehien dutenak (adinga-beak, baina baita ere nagusiak, gaixotasunen bat edo mendekotasuna duten pertsonak) bereziki babesteko, agerian utzi genuen **familien babesa gizarte estatua mantentzeko ezinbesteko estrategia publikoa dela, beraz, krisi egoeran**, inoiz baino gehiago, **familia politikak gizartearen kohesioa bermatzeko eta garai hauetan horrenbeste ageri den pobrezia eta gizarte desegituraketa saihesteko inbertsio publikorik onena dira.**

Adierazi genuen, gure urteko txostenetan egiten ari garen moduan, familien alorrean jardutea ez dela soilik laguntza publikoetako politikak edo diru-laguntzak bideratzea (bereziki, seme-alabak edo mendeko pertsonak edukitzeari dagokionez, baita lana eta familia bateratzeko laguntzari dagokionez ere), horrez gain, eta gero eta gehiago, **kultura, gizarte eta ekonomia aldaketa sakonak sustatu** behar dira, **familien beharrak gure jarduera ekonomikoan erabat barneratzeko ikuspuntu berriak ireki ditzaten**. Ildo horretan, botere publikoak mentalitate aldaketen prozesuen buru izan behar dira, **zaintzak, etxeko lanak, atsedanak, aisiak, giza harremanek eta ordainsaririk gabeko borondatezko beste parte-hartze sozial mota batzuek** nahitaez behar duten eremua onartzeko. Gainera, ezin da bidezko familia antolakuntzarik egon **zaintza eta etxeko lanen banaketan elkarren arteko erantzukizunik** ez badago, eta ezin da ekonomia eta lan ordainduaren antolakuntzarik egon emakumeen erabateko parte-hartze soziala sustatzeko eta gizonek etxearen eta zaintzaren bizitzan esku-hartzeko beharra ezagutu gabe. Horretarako, lanaren antolamendua oinarritzko giza beharretara egokitu behar da, **giza bizitzaren eremu ezberdinak** -lana, familia eta eremu pertsonala- **bateratzeko aukera eskaintzen duten formula berriak indarrez sustatuz.**

Ikuspuntu horietatik, Eusko Jauriaritzako Kontseiluak 2011ko azken egunetan onartutako **Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planak (2011-2015)** oinarri duen norabide orokorrek eta filosofiarekin bat egiten dugula errepikatu nahi dugu, nahiz eta

gure erakunde jasotako kexen inguruko hainbat konturikiko dugun kezka helarazten jarraitzen dugun, hala nola, **255/2006 Dekretuan** jasotako seme-alabengatik diru-laguntzak eskatzeko kudeaketa errazteko beharra; norbere kontura lan egiten dutenak **familia eta lana bateratzeko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuan** araututako laguntzen onuradun gisa gaineratzeko beharra; guraso bakarreko familiei zuzendutako neurri bereziak bideratzeko edo laguntza publikoan areagotzeko beharra; baita jagoletza ez duten gurasoak laguntza horiek eskuratzeko araubidea berrikustearren komenientzia ere, banaketak edo dibortzioak dauden kasuetan, kasu bakoitzean hitzarmen arauemilean xedatutako seme-alaben arretarako behar zehatzak kontuan hartuta.

Familia-politiken eremuan eskatzen genuen familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko **uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren** onespena baikor hartu dugu. Arau horrek **familia-errenta estandarizatzeko** sistemak ezartzen ditu familia mota eta egoera ezberdinei bidezko tratua emateko. Sistema horiek familientzako laguntza ekonomikoetan edo familiei laguntzeko zerbitzuetan aplikatzekoak dira, baldin eta familia-unitatearen maila ekonomikoa laguntza edo zerbitzu horietara iristeko baldintza bada, edo prestazio horren zenbatekoa edo zerbitzuagatik ordainduko den zatia zehazteko irizpidea bada. Familia-errentak estandarizatzeko sistema horiek baliokidetasun-sistemak dira, errenta neurtzeko gai direnak, ez bakarrik familia-unitateko kide-kopuruaren arabera, baizik eta baita ere unitatearen osamoduaren arabera. Izan ere, kontuan izan behar da ezen, diru-sarreraren maila berbera duten baina osamodu desberdina duten familia-unitateek, ez dutela izaten gaitasun ekonomiko berbera, erosteko ahalmenari eta bizi-kalitateari dagokienez.

Atal honekin amaitzeko, Euskadin familiei laguntzeko zuzendutako politika publikoen egoera zein den aztertzeko **txosten berezia** garatzeari buruz iazko bulegoaren txostenetan jasotako iragarpena gauzatzen hasi dela jakinarazten dugu, Ados Consulting aholkularitzaren laguntza teknikoarekin. Azterlan horrekin, EAEko familia politikak hurbileko Europako herrialdeetan sustatutako politika aurreratu eta babesleenekin parekatzeko diagnostika lortu nahi dugu, azkenik euskal familien eskaera eta beharrei erantzuna emateko hainbat gomendio proposatu ahal izateko.

### 2.3.2. Familia homoparentalak

*Guraso bakarreko familiei eta sexu bereko bikote eta ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzeari eta bi emakumez osatutako bikote batek laguntza bidezko ugalketa-tekniken bitartez seme-alaba bat duenean ama ez-biologikoaren legezko amatasunaren zehaztapenari buruzko **Arartekoaren abenduaren 23ko 4/2010 Gomendio Orokorraren** jarraipen gisa, bere garaian, Eusko Jauriaritzako **Immigrazio eta Aniztasunaren Kudeaketa Zuzendaritzari** laguntza eskatu genion aipatutako gomendio orokorrean jasotako bi iradokizun nagusiak betetze aldera. 2012. urtean hori gauzatzeko beharra azpimarratu dugu. Orain arte, jakin dugu zuzendaritza horrek (txosten hau amaitu zenean eta LGTB kolektiboarekin zerikusia daukaten gaiei dagokienez, **Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzaren** barruan zegoen) orain arte alor horretan*

eman diren aurrerapausoen inguruko datuak biltzen jarraitzen duela. Zuzendaritzaren eskutik lortu dugun informazioa ikusita, ondorioztatu dezakegu, Euskadin, emaitza oraindik desberdina dela. Hala, administrazio oztopo formalak deuseztatzeari dagokionez, gaur arte ezin izan dugu egiaztatu jaurlaritzako sail guztietan zeharka jorratu ote den eskabide, inprimaki eta bestelako agirien egoera berrikustera zuzendutako ekimenik, ikusi ahal izan dugunez, oraindik ere oztopo formalak baitaude guraso bakarreko familientzat eta bikote zein ezkondutako bikote homosexualentzat. Estatu mailako eskumeneko eskabideei dagokionez, [Espainiako Herriaren Defendatzaileak](#) –alde aurretik horren inguruan bidali genion errekerimendu bati erantzunez- Berdintasunaren Estatuko Idazkaritzak emandako informazioa helarazi digu. Bertan, adierazi da legezko errealitate horrekin bat ez datozen administrazio agiri edo inprimakien kasuan, banaka eskatu beharko dela egokitu ditzaten.

Bi emakumeren arteko ezkontzaren barruan lagundutako ugalketa bidez jaiotako haurren seme-alabatasuna lege zehazteko arazoari dagokionez, [Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak](#), 2011. urtean une horretan Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza zenaren bidez, jakinarazpen bat bidali die lagundutako ugalketa-teknikak aplikatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zentro publiko eta pribatu guztiei; horren bidez, jakinarazi zien ama lesbianek lege-egoera anbigua dutela eta laguntza eskatu zien, eragindako guztiei (teknika horien bidez seme-alabak izan nahi dituzten emakumez osatutako bikoteei) adieraz ziezaieten beharrezkoa dela Erregistro Zibilarren ardura duen epaileari haur jaioberria semetzat edo alabatzen hartu nahi dutela adieraztea. Gai hori [Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren](#) web orrialdean jaso da, hortaz, gai horri lotutako informazioa bitarteko horretan argitaratu da. Dena den, gaur egungo Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak jakinarazi digu oraindik klinika eta osasun zentro jakin batzuetan ez dietela informazio nahikoa ematen arazo hori daukaten emakumez osatutako bikoteei. Horren harira, [Espainiako Herriaren Defendatzaileak](#) jakinarazpen bat bidali digu, bi emakumeren arteko ezkontzaren barruan lagundutako ugalketa bidez jaiotako haur baten ama ez-biologikoa lege zehazteari lotutakoa. Bertan, azaltzen da Justiziako Estatuko Idazkaritzak ulertzen duela legeak ezarri duela amaren ezkontideak eman behar duen baimena seme-alaba jaio baino lehen eman behar duela. Baina, horrez gain, adierazi digute, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Orokorrek besteak beste 2008ko apirilaren 17ko, maiatzaren 22ko eta azaroaren 24ko ebazpenetan azaldutakoa aintzat hartuta, baliozkotzat eta nahikotzat jotzen dela ama ez-biologikoa umea jaio ondoren, umea inskribatzean, adierazitako adostasuna ere.

Justiziako Estatuko Idazkaritzak emandako argibide hori oso garrantzitsua da, hortaz, gure ustez, laguntza bidezko ugalketa-tekniken gaineko [maiatzaren 26ko 14/2006 Legearen](#) interpretazio posible hori Euskadiko erregistro zibilarren ardura daukaten organo judizialen artean helarazi eta zabaldu beharra dago (gure gomendio orokorrean jasotako ikuspegiarekin bat dator).

### 2.3.3. Familia elkarguneak: haurrek euren gurasoekin harreman eta kontaktu erregularra izateko duten eskubidearen zerbitzurako tresna

Bulego honetako 2011ko txostenean dagoeneko iragarritako jarraipenean aurreratzeko helburuarekin eta han adierazitako kezka-elementuak bereziki kontuan hartuta, 2012ko urrian zehar, erakunde honetako langileek bost FEG bisitatu zituzten epaileak aginduta -Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Portugalete, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eskumenekoak, eta Barakaldo, udalaren erantzukizunekoak- eta euren kudeaketa bideratzen duten lau erakundeetako arduradun eta profesionalekin elkarrizketak izan zituzten. Lehen fase hori amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako [Justizia Saileko](#) arduradunekin bilera bat izan zen lehen balorazioa helarazi eta hainbat kontu kontrastatze aldera. Azkenik, hainbat familia-epailearen lankidetzaren eskatu zen. Horiek -kontu hauetan duten esperientzia zabaletik- erakunde honen azaldutako hainbat kezka-elementuri buruz zuten iritzia helarazteko asmoa adierazi zuten.

Horren guztiaren emaitza [Deribazio judizialaren bidez familia elkarguneen erregulazioa eta funtzionamenduari buruzko gomendio orokorra](#) izan da, 2013ko lehen egunetan jendaurrean aurkeztu bada ere, 2012ko azken lauhilekoan egindako jardura biltzen duena,

Gomendioak erakunde honen ustez hobetu beharreko elementuak aipatzen ditu, hemen modu laburrean hitzez hitz bilduko ditugunak. Dena den, horietako bakoitza gomendioaren gorputzean zehaztasunez azaltzen dela aipatu beharra dugu, hemen jasoko ez badugu ere. Bertan, antzemandako aurrerapausoak eta azpimarratzen diren praktika profesional onak ere bilduko dira.

Ondorioz, adierazpena honakoa da:

1. Zerbitzuak asetzeko arriskuaren aurrean, FEek deribazio judizialaren eskaerari lotuta dituzten bitarteko material eta giza bitartekoen ebaluazioa egitea ezinbestekoa da, horrela, ziurtatuko da horien dimentsioa une oro epaitegietako eskaerei erantzuna emateko egokia dela.
2. FEen eta epaitegi deribatzaileen arteko nahitaezko koordinazioari eta lankidetzari dagokionez, adingabearen interesa ondorengo alderdien hobekuntzarekin erlazioetan dugu:
  - a. FEri azkar jakinarazi behar zaizkio epaitegian erabakitzen diren neurriak eta bi instantzien arteko koordinazioa ezinbestekoa da asteko zein egunetan burutu behar diren zehazte aldera.
  - b. FEk erabiltzaileekin zerikusia duen edozein ingurubarrri buruzko informazio osoa jaso behar dute, jardura judizialean zehar jaso eta haren esku-hartzea gauzatzeko garrantzitsua bada.
  - c. FEk epaitegira bidaltzen dituen txostenen jarraipena egin behar da une bakoitzean aplikatzen diren neurri adingabeen eboluzioari erantzun diezaioten.
3. Guraso zaintzaileek puntualki FEren eskutik komunikazioetan zehar jazo diren gorabeheren berri edukiko dute, betiere, profesionalen iritziz, garrantzitsuak baldin badira.

4. Espetxean dauden eta FEra espetxetik eraman behar dituzten zaintzarik euren gain ez duten gurasoei dagokienez:
  - a. Jagoletza lanak burutzen dituen polizia indarrei esleitutako zaintza lanek ez dute eraginik izan behar ama edo aita eta seme-alabaren arteko komunikazioaren intimitatean.
  - b. Presoa lekualdatzeko polizia indarren eskuragarritasunak une oro adingabeek euren gurasoekin komunikatzeko duten eskubidearen eraginkortasuna bermatu behar du, ebazpen judizialean adostutako terminoetan.
5. Zaintzarik ez duen gurasoak bere konfiantzazkoa den pertsona bati adingabea FEn jasotzeko ardua emateko aukera eduki behar du, betiere, salbuespen gisa gertatzen bada eta zaintza bere gain duen alderdiari eskatzen zaizkion berme berdinekin. Horren harira, zentrotroko langileek gai horretan alderdien arteko akordioak bultzatu behar dituzte, esku-hartzea baino lehenagoko elkarrizketen testuinguruan.
6. Beharrezkoak diren berritzeak burutu behar zentro guztietan dira mugikortasun urritua duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatze aldera.

Bestalde, baina, berriro ere, zailtasun egoeretan dauden eta gatazkarekiko konponbide hitzartuak bilatzea erabakitzen duten familiei laguntza eskaintzeko zerbitzua denez, Bitartekarien Erregistroari buruzko eta erregistro horretan inskribatzeko egiaztatu beharreko familia-bitartekaritzako prestakuntza zehazten duen [azaroaren 21eko 246/2012 Dekretuaren](#) onespina ospatu dugu, araubide horrek eskainitako zerbitzuaren kalitatea lortuko duelakoan, zerbitzua eskaintzen duten profesionalen kualifikazio egokia eta berezia bermatzean.

## 2.4. Osasuna

Osasunaren arloan aurkeztutako kexen artean bi azpimarratuko ditugu. Buruko osasunarekin edo ezgaitasunen bat duten adingabeekin lotuta daudenei hainbat paragrafo eskainiko baitizkiegu aurrerago.

Lehenengoa 2011/2012 ikasturtean zehar ikasketak burutu ahal izateko Arabako familia batek hartutako adingabe atzerritar bati Arabako Lurralde Zuzendaritzak osasun txartela ukatu izanagatik sortu zen. Txartela ukatzeko arrazoiak, erakunde honen ustez, ez zuten oinarririk eta, ondorioz, [2012ko maiatzaren 28ko Arartekoaren ebazpena](#) eman genuen. Hura irakurtzean antzeman dezakegunez, familiak aldez aurretik adingabea hartu izan zuen udan zehar Ukrainatik datozen haurren aldi baterako Harre-ra Programaren esparruan, *Chernobil Elkartearekin* eta *Chernobileko Umeak hartzeko Elkartearekin*. Bertan osasun arreta izan zuen, baina oraingo honetan [Osasun eta Kontsumo Sailak](#) uste zuen adierazitako egoera ezberdina zela, harrera pribatua eta ikasketak burutzeko egindakoa, beraz, araudi ezberdin baten bidez aztertzen zuen. Arartekoaren ustez, adingabeak ikasketak burutzeko familiak egindako harrerak, Gobernuko ordezkariordearen aginduzko baimena izanik, udako egonaldian zehar garatutako

gizarte funtzio bera dauka eta udako egonaldi horretan ez zuen arazorik izan osasun arretarako eskubidea onartzeko, orain zalantzan jartzen dena. Bestalde, aztertutako oinarriko kontua, hain zuzen ere, adingabeak osasun estaldurarako eskubidea duen edo ez, [2/2009 Lege Organikoaren](#) 12.3. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta ebatzi behar dela uste dugu. Bertan xedatzen denez, *“Espainian dauden hemezortzi urte baino gutxiagoko adingabe atzerritarrek eskubidea dute osasun arreta eskuratzeko espainiarrek eskuratzen duten baldintza berdinetan”*. Ildo horretan, maila txikiagoko arauen harira egin daitekeen beste edozein interpretaziok kontuan hartu beharko du adingabe atzerritarrek osasun arreta jasotzeko duten eskubidea.

Kexaren ondoren lege aldaketak egon ziren, kexak hizpide zuen gaiaren hainbat alderdi formaletan eragina dutenak (aseguratuaren baldintza onartzeko eskumena duen administrazioa) baina funtsezko alderdietan eraginik ez dutenak, aurreko egoera mantentzen baita, 18 urte baino gutxiagoko atzerritar guztiei osasun arretarako eskubidea onartzen ziena. Azkenik, Osasun eta Kontsumo Sailak jakinarazi digu ebazpenean jasotako balorazioarekin orokorrean bat egiten duela.

Bigarren kexa guraso batzuek [Gurutzetako Ospitaleko](#) ZIUn ospitaleratuta zegoen urte gutxiko semearekin gauean zehar geratzeko arazoei buruzkoa da. Gurasoek ez zuten joan nahi eta horren ondorioz polizia bertaratu zen eta egoera berriro ere gertatuko zenaren beldur ziren.

Guraso horien asmoak oinarri guztiz juridikoa dauka ([Eskubide eta betebeharren gutuna](#), ospitaleratuta dauden adingabeei dagokienez) beraz, baldintza materialek eskubidea gauzatzeko aukera eskaintzen ote zuten ezagutu behar genuen. Osasun arloko arduradunekin harremanetan jartzean adierazi dute arazoa ez dela soilik juridikoa, ez da eskubidea zalantzan jartzen dena, -ZIuko instalazioengatik- kasu eta une guztietan adingabea bere gurasoekin batera egoteko aukera gauzatzeko zailtasuna baizik. Hau da, zaila edo ezinezkoa izango litzateke bertan ospitaleratuta zeuden adingabeen beste guraso batzuek gauza bera egin izan balute gau hartan. Nolanahi ere, ZIUn gau gehiago igaroz gero, semearekin batera egon ahal izateko jarraibideak eman ziren.

Ezgaitasunen bat duten adingabeen osasun arretari dagokionez, Gorren Lagun eta Gurasoen Elkartearen Federakundearekin ([FEVAPAS](#)) izan ditugun harremanak aipatuko ditugu, EAEko osasun administrazioarekin hainbat jarduera eragin dituztenak. Alde batetik, [haur gorrieraren detekzio goiztiarreko programaren](#) ezarpena eta funtzionamenduaren inguruko jarraipenari dagokionez eta, bestetik, hiru lurraldeetan entzuteko ezgaitasuna duten haurrentzako logopedia laguntzekiko dauden irizpide ezberdinei dagokienez.

**Gaixotasun kronikoak dituzten adingabeen** esparruan, 2012an hainbat arazoren inguruan gertatutakoa aipatuko dugu. Horiek guztiek elementu komun bat dute: diagnosi goiztiararen garrantzia, jaio aurretik edo haurtzaroan. Metabolismoaren sortzetiko gaixotasunak, Dravet Sindromea, prebalentzia baxuko gaixotasunak (gaixotasun arraro gisa ezagututakoak) eta linfedema primarioa aipatuko ditugu. Kontu horien inguruan, nolanahi ere, informazio zehatza-

goa eskaintzen da ohiko txostenean [gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen zuzendutako atalean](#).

[Metabolismoaren jaiotzetiko gaixotasunei](#) dagokienez, Osasun Sailak [Osakidetzako Jaioberrientzako Baheketa Programan](#) bost gaixotasun berri gaineratuko dituela iragarri du: Homozistinuria, Astigar-jarabe gisako gernuaren gaixotasuna (MSUD), 1. motako Aziduria Glutamikoa (GA), aziduria isobalerikoa y la kate luzeko gantz azidoen azil-CoA-deshidrogenasaren eskasia (LCHADD), 2013ko urtariletik aurrera. Bost gaixotasun horiek Osakidetzari zerrrendan gaineratzeko proposatu genizkion 19 gaixotasunen artean daude. Gaixotasun horiek guztiek tratamendua jaso behar dute, emaitza fidagarriak dituzte antzematerakoan eta estatuko beste autonomia erkidegoetako eta Europako gure inguruko herrialdeetako (Alemania, Danimarka, Belgika, Holanda, Austria, etab.) programetan dagoeneko gaineratu dira.

Aurten lankidetzaren eremu bat ireki da **SÍNDROME DE DRAVET FUNDAZIOAREKIN**. [Dravet sindromea](#), lehenago Haurren Epilepsia Miokloniko Larria (SMEI) izenarekin ezagututakoa, haurtzaroen hasten den neurogarapenaren nahasmendua da eta tratamenduari erantzuten ez dion epilepsia larria eragiten du.

Gaixotasunaren diagnostia adin ezberdinetako agerraldi kliniko eta elektroentzefalografikoen konbinazioaren araberakoa da. Diagnosti irizpide zorrotzik ez dagoenez baliteke behar bezala identifikatu gabeko kasuak egotea. Era berean, kasu batzuek ez dituzte betetzen gaixotasunerako aipatzen diren irizpide guztiak.

Fundazioaren ordezkariaren iritziz, diagnostikoa goiztiarra oinarrikoa da bi arrazoi direla-eta:

- Sindromea behar bezala diagnostikatu ez badago, haurra epilepsia balitz bezala medikatzeko joera dago (fenitoinarekin) eta, adierazi dutenaren arabera, sendagai horren ondorioak Dravet sindromea dutenengan suntsitzailak dira.
- Ezinbestekoa da estimulazioa ahalik eta lasterren, arreta goiztiarrean, hastea (logopedia eta psikomotritzitatea). Zentzu horretan, arreta goiztiarra ezinbesteko faktoretzat jotzen dute, beraz, 6 urtera arte eraginkortasunez eskaintzea eskatzen dute. Gainera, 6 urtetik aurrera ere logopedia eta psikomotritzitate saioetarako laguntzak eskatzen dituzte.

Diagnostia neuropediatrik eskatzen duen test genetikoaren bidez bakarrik egin daiteke. Horrexegatik garrantzitsua da lehen arretako zerbitzuek (pediatria) edo larrialdiek neuropediatriko zerbitzu espezializatuta goiz bideratzea.

Euren ustez osasun alorrean zeuden hutsune nagusiak eta dagozkien hobekuntza proposamenak helarazi dizkigute:

- Beranduko diagnostikak gainditzea larrialdietarako (eta 112) eta lehen arretarako protokoloen bidez.
- Konbultsio luzeekin, Neuropediatriari premiaz bidaltzea.
- Dagoeneko diagnostikatu dauden haurrentzat, alerta informatikoak jotzeko beharra fenitoina eman ez diezaieten.
- Gaixotasun kroniko gisa onartzeko beharra errezeta gorriak eman diezazkieten (sendagai batzuk garestiak dira).

Era berean, euren ustez, euskal osasun zerbitzuak sindrome hori bideratzeko dituen indargune nagusiak aipatzen dituzte:

- Neuropediatriko profesionalen kualifikazio handia EAEn.
- Arreta bikaina ospitaleratzeetan (ZIU).

[Prebalentzia baxuko gaixotasunei](#) dagokienez, aurten Gaixotasun Arraroen Batzorde Aholkularia sortu dela eta bertako kideak izendatu direla aipatu beharra dago, hori guztia iaz aipatzen genuen [Gaixotasun Arraroetarako Estrategiaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintza Plana](#) abian jartzeko testuinguruan.

Aipatutako estrategian xedatutakoa [Buruko Osasuneko Planean 2012-2020](#) ere islatzen da. Bertan, 2.17. berariazko helburu gisa “*gaixotasun arraro edo ezohikoei aurrea hartzeko eta goiz diagnostikatzeko neurriak ezartzea*” gaineratu da, guztira hamar helburu eragileei dagokien deskribapenarekin.

[Linfedermak](#) pairatzen dituzte pertsonen dagokienez, 2011ko txostenean diagnostikatu arazo berri ematen genuen, linfederma primarioa pairatzen duten pertsonengan ohikoa izaten dena. Gaixotasun hori haurtzaroen garatu ohi da eta, diagnosirik eta ondorengo tratamendurik gabe, eragindako pertsonaren bizi-kalitatea nabarmenki okertzen da. Ildo berean, eragindako 140 pertsonetatik talde batek egindako jasotako arretari buruzko azterlan baten emaitzak Osakidetzara helarazi zirela jakinarazi genuen, izan ere, tresna oso erabilgarritzat jotzen genuen osasun administrazioak ezagutu ahal izateko eragindako pertsonen iritzia eskaintzen zaien arretaren inguruan, antolamenduko aurreikuspenen aplikazio praktikoa testatzeko eta dagozkion zuzenketa neurriak hartzeko.

Osakidetzaren erantzunean, ez zen harkor azaldu taldeak egindako proposamenekin eta horrek benetan penatzen gaitu, izan ere, ez da koherentea gaixo-taldeek kronikotasunaren kudeaketan duten eginkizuna sustatzearen eta osasunaren sustapenean eta prebentzioan aktiboki parte hartzearen printzipioekin. Bi printzipio horiek [Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategian](#) adierikatzen dira.

**Haur eta gazteen buruko osasunaren** esparruan, osasun administrazioak nortasun-nahasmendua pairatzen duen gazte bati eskaintako arretari buruzko kexak azpimarratu behar ditugu. Horien izapidea zela-eta, Arartekoak [Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuari gomendatu](#) dio nahasmendu larri horiek -bereziki gazteengan eragina dutenak- dituzten pertsonen arreta eskaintzeko programa bereziak hartu eta garatu ditzan, sektore arteko esku-hartze terapeutikoa oinarri hartuta eta egiaztatutako eraginkortasunarekin, laguntzaren kalitatea eta, ondorioz, aipatu nahasmenduak dituztenen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

Arartekoak, EAEn esparruan, nortasun-nahasmenduan espezializatutako unitate bat eguneko ospitaleko modalitatean abian jartzea proposatu du. Unitate hori dagoeneko 2008an proiektatuta zegoen baina horren ezarpenak ez zuten inolako aurrerapausorik izan azken lau urteetan, ezarpenaren aldeko adierazpenak behin eta berriro eman bage-

nituen ere. Bertan, eragindako pertsonen eta euren familien informazioa hobetzera eta behar bezalako osasun arretarako eskubidea bermatzera zuzendutako beste hainbat neurri gomendatzen dira.

Bestalde, buruko osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeen arretaren egoera gogoeta eta lan berezi baten helburu izan da 2012. urtean zehar erakundearen barnean. Gure parte-hartzea izan duten hainbat jardunaldi, mintegi eta batzarren arreta-gunea izan da. Ondorio nagusiak *EAEko haurren, nerabeen, gazteen eta helduen buruko osasunaren arretaren inguruan egindako hurbilketak: erronkak eta aukerak* izeneko azterlanean jasota geratu dira. Hala ere, azterlan horretan emandako hainbat datu atera ditugu hurrengo orrietan aurkezteko, Arartekoaren ikuspegitik, arloaren ikuspuntu globala izateko aukera ona direlakoan.

Aldez aurreko hausnarketa gisa, fenomeno aztertze erabilietako ikuspegiaren inguruko ohar bat egin nahiko genuke. Maiz zaila suertatzen bazaigu ere, ez dugu ahaztu behar buruko nahasmendua aniztasunaren adierazle bat dela. Buruko osasun arazoak dituzten pertsonen gizarteratzea bakarrik lortuko da desberdintasuna errespetatzen denean eta aniztasunaren eta giza baldintzen zatitza jotzen denean.

### 1. Balorazio orokorra: aurrerapausoen hamarkada hobekuntzarako ibilbidearekin

Gure ustez -herritarren kexen azterketa, esku hartu duten administrazioetatik lortutako informazioa eta esparru honetan jarduten duten talde eta elkarteekiko harremana oinarri izanda-, uneko mendeko 12 urte hauetan EAEk **bilakaera nabarmena baina txiki**gia izan du bereziki zaurkorra den buruko osasun arazoak dituzten pertsona taldearen -haurrak eta nerabeak barne- babesean eta arretan.

Urte hauetan, erakunde honen ustez, **balio handiko ekarpenak** egon dira, bi talde handitan aurkeztu genitzakeenak:

- Eremu sanitario eta soziosanitarioak planifikatzeko, antolatze eta egituratzeko esparruan gertatutakoak. Horien adierazlerik onenak EAEko buruko osasuneko estrategia eta eremu soziosanitarioa garatzeko sustapena dira. Bertan, bereziki gailentzen dira arreta soziosanitarioaren ildoak prestatzeko esparru-dokumentua eta Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarraren Ereduari buruzko agiria.
- Bigarrenik, helduentzako eta haur eta gazteentzako buruko osasuneko zerbitzuak eta programak **sortzen, ezartzen eta hobetzen** egondako **bultzada** azpimarragarria. Bertan, erakunde arteko hainbat protokolo eta nahasmendu ezberdinei buruzko praktika klinikoko gidak gaineratzen ditugu.

Baina, diagnosietan, tratamenduan, errehabilitazioa eta zainketan asko aurreratu bada ere, gaixoen eta haien familien eta baliabide eskuragarrien (batez ere gizarteratzeko baliabideak) artean oraindik ere tarte dago.

### 2. Osasun arretaren egoeraren diagnostika

Badira 25 urte baino gehiago gure komunitateak buruko osasunari arreta emateko oinarritzko **osasun sarea** sortze-

ko aukera eman duen eredu bat garatu duenetik. Sare hori, gainera, batez ere komunitarioa izan da eta osasun sistema publikoak barne hartzen du.

Haur eta nerabeen arretari dagokionez, haur eta gazteen buruko osasuneko zentroak (8), haur eta gazteentzako eguneko ospitaleak (5, 50 plazarekin) eta haur eta gazteak epe laburrean ospitaleratzeko unitateak (3, 20 plazarekin) daude. Programa eta dispositiboaren garapena, berriz, desberdina da. Bizkaian (eta neurri txikiago batean Gipuzkoan) baliabideen bolumena nahiko onargarria den bitartean, Araba haur psikiatriarako tarteko egiturarik ez duen EAEko lurralde bakarra da:

- Ez dago eguneko ospitalerik (edo arratsaldekorik, haurren esparruan ohikoa den moduan eskola-ordutegiarekin bateratzeko).
- Ez dago arreta egiturarik autismoarako edo garapenaren erabateko nahasmenduetarako (GEN): ez osasunekoak (USMI-Jko kontsulta anbulatorioak bakarrik) ez gizar-te arlokoak (Bizkaian eta Gipuzkoan Autismo eta GEN elkarteek, itunduta, arretaren tarte handia estaltzen dute).

2012ko urrian lurraldeaz gaindiko Haur eta Gazteentzako Egonaldi Ertaineko Unitatea Arabako Buruko Osasun Sarean abian jartzeko baimena eman da. Ongi etorria ematen diogu baliabideen eskaintzan aurrerapauso den heinean, bereziki krisi garai honetan. Hala ere, hiru lurraldeetako haur eta gazteen arretarako programetako eta Euskadiko Buruko Osasuneko Batzorde Aholkulariko arduradun gehienek neurriarekiko desadostasuna adierazi dute, izan ere, tarteko baliabideen (eguneko ospitaleak) eskaintza handiagoa komeni dela azpimarratzen dute buruko osasuneko zentroetan edo ospitaleratze unitateetan egindako esku-hartzeak osatzeko eta zaintzen jarraitasun egokia bermatzeko.

**Buruko Osasuneko Sarean arreta jasotzen duten 0 eta 18 urte bitarteko herritarrei** dagokienez, eskura ditugun datuek (2009koak) ospitalez kanpoko sarean 7.130 adingabek arreta jasotzen zutela eta 242 ospitaleratze egon zirela azaltzen dute, 330.000 pertsona inguruko herritar kopurua gainean.

Haur eta gazteen buruko osasunaren arretarako **osasun-langile** kopuruari buruzko datuek arreta ratio egokiak islatzen dituzte. Hala ere, zenbait profesionalen ustez *“argi dago buruko osasunaren baliabideetako arreta ez dela nahikoa laguntza presioagatik eta maiztasun eta malgutasun handiagoko behar duten esku-hartze psikoterapeutikoengatik”*.

Psikiatriako **lehen kontsulten batez besteko itxaronaldiari** dagokionez, osasun arloko administrazioetik adierazi digute emaitzen arabera haur eta gazte gaixoen % 78 hila-bete baino lehenago jasotzen dutela arreta, lehen kontsultan, hau da, zerbitzu-zorroan konpromiso giza ezarritako % 60ko helburua soberan gaintzen da.

### 3. Haurrak eta nerabeak hezkuntza sisteman eta bakarrik dauden haurrentzako gizarteratze sisteman jasotzen duten buruko osasuneko arretari buruzko hainbat kontu.

Diagnosi klinikoan heterogeneotasuna handia bada ere (haurtzaroko eta nerabezaroko psikosia, substantzia psiko-

tropoak kontsumitzearen zioz jazotako buruko nahasmenduak eta jokabide-nahasmenduak, garapen psikologikoaren nahasmenduak, haurtzarora eta nerabezarora hastean jazo ohi diren jokabide-nahasmenduak eta emozioen nahasmenduak, etab.), izendatzaile komunak dira protagonistek pairatzen dituzten eskolatzeako, gizarteratzeko eta familian integratzeko zailtasun larriak. Hori dela-eta, ikuspuntua beste sistema batzuetan ere jarri behar dugu eta sistemen elkarguneetan eta, normalean, lankidetzaren formularen mende garatzen diren ekimenak aztertu behar ditugu.

Buruko osasun arazoak dituzten pertsona gehienak eskolatuta daude, eta, beraz, **hezkuntza**-zerbitzuetan ere ematen zaie arreta, behintzat dituzten premia batzuetan.

Hezkuntza sisteman pertsona horiei ematen zaien erantzuna hezkuntza-premia bereziko arretaren barruan dago baina esan beharra dago ez dugula informazio zehatzik azaltzeko horietako zenbat diren buruko osasun arazoaren zioz edo horri lotutakoak. Lanbide anitzeko taldeek, psikologo, pedagogo eta hezkuntza-profileko beste profesional batzuek osaturikoei, haien diagnosiak eta jarduteko planak egiten dituzte, haien kategoriei eta irizpideei jarraituz, eta horiek ez datoz bat osasun-langileek erabiltzen dituztenekin. Horrez gain, ez dakigu Hezkuntza eta Osasun Sailen datu-baseen ustiapenik egon badagoen, horiek konparatzeko modua emango duenik.

Bizkaiko lurraldean, [Osabide Hezkuntzarako Partzuergoak](#) bi programa ditu abian hezkuntza sistema, gizarte zerbitzu eta osasun sistemaren esku-hartzearekin. Bideratuz programari buruz ari gara, eskolatze osagarriko programetan garatu beharrekoa, eta Osatuz programa, buruko osasun arazoetara loturiko jokabide larriak dituzten ikasleentzako eskola inguruko programa.

Azkenik, Heziketa eta Terapia Zentroak aipatu behar ditugu, gure iritziz, praktika on gisa kalifikatu daitekeen hezkuntza eta osasun lankidetzako ekimena. 2008az geroztik abian dauden 4 unitate aktiboek (40 plaza: 30 lehen hezkuntzakoak eta 10 bigarren hezkuntzakoak) buruko osasun larriak dituzten eta denbora tarte zehatz batean zehar (ez da egonaldi luzeko unitateetat hartzen) esku-hartze espezifiko behar duten derrigorrezko eskolatze adineko adingabeen heziketa eta terapia arreta eskaintzen diete.

Horiei dagokienez, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarrekin Federakuntzak, [FEDEAFESek](#), Heziketa eta Terapia Zentroetan arreta jasotzen duten adingabeen laguntza eta arreta jarraitua opor garaietan zehar bermatzeko familiek dituzten zailtasunak helarazi dizkigu.

**Babesik gabeko egoeran dauden eta babesik gabeko arrisku egoeran gera daitezkeen haurrek eta nerabeek**, oso gaztetan desegituratutako egoerak edo desegitura daitezkeen egoerak pairatzen ondotik sortutako kalteari argi eta garbi lotuta, buruko nahasmendu larriagoen prebalentzia handiagoa izaten dute eta, neurri handiago batean, arreta intentsiboagoa eta iraupen luzeagokoa behar dute. Gertakari horren adierazle dira babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako egoitza-zerbitzu sareko jokabide, buruko osasun edo droga-kontsumo arazo larriak dituzten nerabeei zuzendutako programa espezializatuak. Programa horien antolamendu eta funtzio alderdi guztiak 131/2008 Dekretuak arautzen ditu egun arte eta, egiaztatu ahal izan

dugunaren arabera, berme eta eskubideen esparru eraginkorra da.

Gizarte Zerbitzuen tutoretzapeko nerabe horien buruko osasun arazoaren berriazko arreta, normalean, ohiko osasun zerbitzuetara bideratu da, osasun sareak dituen mugak kontuan hartuta. Hala eta guztiz ere, esparru horretan eta Bizkaian esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzaren ekimen interesgarria aurkitu dugu berriro ere: *Adin Txikikoak* programari buruz ari gara. Horren bidez, Osakidetzako psikiatra eta psikologoek bakarrik edo babesgabetasun larriko egoeran dauden adingabe horiei arreta eskaintzen diete.

Puntu horretan ezinbestekoa da buruko osasun arazoak dituzten haur eta nerabeei arreta integrala eta diziplina anitzekoa eskaintzeko helburuarekin arlo honetan jardun behar duten sare eta maila ezberdinak behar bezala koordinatuta egon daitezen eta arreta jarraitutasun eraginkorra bermatzea. Zentzu horretan, erakunde arteko koordinazio eremuak sortu behar dira eta erakunde arteko koordinazio hori behar bezala arautu eta protokolatuta behar da eta, tresna juridiko horiek dagoeneko egotekotan, behar bezala betetzen direla bermatu behar da.

Bereziki, ezinbestekoa da eremu soziosanitarioa deiturikoa sustatzen jarraitzea. Askotan antzematen dugu buruko osasunaren, lehen arretaren eta gizarte zerbitzuen arteko harremanak eta ekintzak profesional ezberdinen banakako sentsibilitatearen arabera direla, eta ez adostasun koordinatu eta partekatuen arabera. Horien bideratzea sustatu beharra dago, esparru soziosanitario horretan prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatu behar den moduan.

#### **4. Haurren eta nerabeen jokabide-nahasmenduari, nortasun-nahasmenduari eta arreta faltaren nahasmenduari eta hiperaktibitateari buruzko aipamen berezia.**

4.1. Osakidetzak 2010. urtean argitaratutako ikerketaren ([Nerabezaroko jarrera-nahasmenduei modu integratuan heltzea ospitalearen barruan eta kanpoan](#)) ondorio nagusiekin bat eginez :

- Nerabezaroko jokabide-nahasmenduak nerabearen funtzionamendua kalteetan duen eta haren garapena eta etorkizuna iluntzen duen oso patologia ohikoak eta larriak dira (datu batzuen arabera, guztizenez mutilen % 6-16ri eragiten die eta nesken % 2-9ri).
- Gure inguruan ez dago nerabearen jokabide-nahasmenduaren prebalentziari buruzko azterlan epidemiologikorik. Ikerketa horren datuen bidez lehen aldiz agerian jarri baita maiztasun handiaren gertatzen direla: ospitaleetatik kanpoko buruko osasunerako balibideetan artatzen diren nerabeen % 25-40ren kontsulta eragiten dute eta ospitaleetatik haurren eta gazteen psikiatria unitateetan artatutako nerabeen % 47-76 unitate horretan sartzeko arrazoiak dira.
- Ez dago jokabide-nahasmenduak dituzten nerabeentzako ospitale barruan edo kanpoan arlo hori jo-

rratzen duen tratamendu-programa espezifikorik ez EAEn, ezta eremu nazionalen ere.

- Nazioartean hainbat ikerketa oinarri hartuta eraginkortasuna agerian jarri duten abordatze terapeutikoak kontingentziak maneiatzeko jokabide-programak, arazoak konpontzeko entrenamendurako eta gizarte gaitasunetarako eredu kognitiboak (taldeka egin daitezzen gomendatuz), seme-alaben jokabideak maneiatzeko gurasoen entrenamendua, familiaren terapia funtzionala eta terapia multisistematikoa dira.

Ondorio gisa, ikerketak berak Jokabide-nahasmendua duten Nerabeentzako Tratamendu Programa Intentsiboa proposatu du, ospitalearen barruan zein kanpoan abordatze koordinatuarekin batera. Kasu bakoitzaren beharren arabera, tratamendu moduluen bidez diseinatu da eta eraginkorrak direla frogatu duten abordatze terapeutikoak barne hartzen ditu. Gaur egun oraindik ez dakigu proposamen hori abian jarri ote den edo horretarako asmorik dagoen.

Bestalde, babesik gabe dauden haurrei eta gazteen zuzen justiziari lotutako gizarte zerbitzuen profesionalen harremanetan jarri gara eta egiaztatu dute **jokabide “arazoak”** dituzten mutil eta nesken kopurua gero eta handiagoa dela. Horri dagokionez, ondorengo gaien inguruan dituzten zalantza batzuk helarazi dizkigute:

- berezko buruko osasun arazoak ote diren edo ondoez emozional oso handia “bakarrik” ote den, jokabide disruptiboen, bortitzen (garrasi egin, gauzak apurtu), autoritatearen aurkako borroka biziaren eta abarren bidez agerian jartzen dituztenak, baita nerabezeroari lotutakoak ere.
- nork diagnostikatu behar dituen arazo horiek, zergatik uste duten osasun sistemak esaten duela “azpiklinikoak” direla eta zergatik ez duten jokabide-nahasmenduztat edo arazotzat hartzen baliabideak tenkatzen dituen jokabide oro;
- beharrezkoak diren laguntzak, zailtasun hori kon-tuan hartuta, neska-mutilei haien garapen pertsonalean laguntzeko eta zentzu horretan esku hartzeko, klinikoagoak edo ez horren klinikoak diren alde batera utzita. Osasunaren egitekoa ezinbestekoa dela eta hala antzematen ez dutela iruditzen zaie.

Bitartean, euren behar terapeutikoak ospitaletik kanpoko sarean kontsultak eginez asebetetzen dituzte eta, noizean behin, administrazioak kabinete pribatu jakin batzuekin zerbitzuak hitzartuta dituzte, baita bertan kontsulta eginez ere. Hori horrela, egoitzabaliabideetako hezitzaileek burutzen dituzten esku-hartzeetarako jarraibide batzuk (eredu programak eta gaitasun psikosozialak, batez ere) ezarri dira, eguneroko bizitzaren uneetan txertatuz.

- 4.2. Kontsulta egin zaien profesionalak bat datoz **nortasun-nahasmenduak** maneiatzeko zailtasunarekin eta ospitale orokorretako larrialdi zerbitzuak maiz baliatzen dituzten eta askotan akutuen unitatean ospitaleratzen dituzten gaixoei arreta emateko benetako baliabideak ez edukitzearekin (bertan ezin da alternatiba tera-

peutikorik eskaini patologia dualen, alkoholaren edo toxikoen kontsumoaren edo elikadura-jokabidearen nahasmenduen ondorioz eragindakoak ez badira eta, kasu horretan, dauden baliabideak erabiliko lirakeke).

Sektore horretako elkarteek, bai pertsona eta familien elkarteek, bai profesionalen elkarteek (erakunde honek harreman estua dauka haiekin), adierazi dute kezkatuta daudela pertsona horiei –portzentaje altu batean nerabeak eta gazteak- ematen zaien arreta dela-eta; izan ere, arazoak dituzte diagnosa egiteko; ez dago sendagairik adibidez eskizofreniarentzat dagoen moduan; krisialdi zorrotzetan, oro har, ez da pertsona ospitaleratan; baliabideak ez dira nahikoak eta profesionalak prestakuntza gehiago behar dute.

Egia esan, OSTEBAK (Osakidetzako Osasun teknologien ebaluazioko zerbitzuak) argitaratutako *Nortasun-nahasmenduak Euskal Autonomia Erkidegoko Buruko Osasunaren Sarean* izeneko ebaluazio-txostenean gomendatzen zen Nortasun-nahasmenduen Laguntza, Prestakuntza eta Ikerketa Unitate Pilotu bat sortzea (ospitaletik kanpoko komunitate-zentroa), horrelako nahasmenduei eskaintzen zaien arreta hobetzeko ezinbesteko tresna gisa. Joan den urtean, legebiltzarrean, Osasun eta Kontsumo sailburuak esan zuen proiektu hori abian jarri nahi zuela baina berehala egitea eragozten zuten zailtasun ekonomikoak ere aipatu zituen.

- 4.3. **Arreta faltaren nahasmenduari eta hiperaktibitateari** dagokionez, hezkuntzako profesionalen, gizarte zerbitzuen eta zerbitzu terapeutikoen aldetik jaso ditugun nolabaiteko “alertak” baino ez ditugu. Intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin adierazi dute kezkatuta daudela, haien ustez, gaitz hori gaindiagnostikatu egiten delako, gizarteak geroz eta gehiago eskatzen baitu neska-mutilak txintxo-txintxo eta arduratsu egon daitezzen denbora-tarte luzeetan eta haien gorputz adierazpena eta mugimenduak nabarmen mugatzen diren testuinguruetan.

Horrez gain, iruditzen zaie arazoaren arreta farmakologikoa bakarrik ari dela ematen, “gehiegizko mugimenduaren” sintoma desager dadin bilatuz. Medikazio horrek haurrak lasaitzen ditu baina estimuluei erantzuteko haien gaitasuna txikiagotzearen truke eta, azken batean, inguruarekin jardunean aritzearen truke eta horrek ikasteko eta esperimenduzko pertsonalerako zailtasunak dakartza.

Azkenik, erakunde honetan jasotako kexak hezkuntzaren esparruari lotutakoak dira, izan ere, guraso batzuek uste dute TDAH (arreta-falta eta hiperaktibitateagatikoa nahasmendua) duten haien seme-alabei ez zaiela eman behar duten arreta zehatza: etxerako lanei denbora gehiago eskaini (irakurketa errepikatu, haiekin irakurri, ulertzen dutela ziurtatu), lehenengo ilaran jarri irakaslearen arreta hobeto mantentzeko, mugitzea aukera ematen duten etenaldiak egin, etab. Kasu batzuetan nolabaiteko “presioa” adierazten dute haien seme-alabak kontrola ditzaten, botika gehiago emanaz, behar izanez gero.

Laburbilduz, arazo horri dagokionez, Haurren Eskubideei buruzko Batzordeak Espainiari egin zion oharrarekin bat gatoz, TDAH pairatzen duten haurrei sendagai gehiegi emateari lotutako fenomenoaz aztertze beharri eta bai haurrei, bai guraso eta irakasleei, neurri eta tratamendu psikologikoen eta hezkuntzako tratamenduen aukera zabala eskaintzeko beharri lotutakoa.

### 5. Amaierako zenbait gogoeta

Azkenik, zenbait gogoeta jaso nahi ditugu, beharbada orokorragoak, baina orain arte helarazitakoaren osagarri direnak:

- Erakunde honen ustez, nahitaezkoa da osasun, hezkuntza, zuzenbide arloko eta gizarte zerbitzuetako eta komunikabideetako profesionalentzako berariazko prestakuntza neurriak sustatzea, estigmatiarekin eta buruko osasun arazoak dituzten haurrek, nerabeek eta gazteek pairatzen duten bereizkeriarekin amaitzeko.
- Beharrezkoa da diagnosi-irizpideak eta jarduera klinikoen gaineko gidak adosteko lanarekin jarraitzea aldakortasun klinikoa murriztu eta arretaren kalitatea hobetze aldera. Modu berean, haurren eta gazteen buruko osasunaren arloan oinarritzko ikerketa eta ikerketa aplikatua sustatzea halaber beharrezkoa da.
- Gure ustez, beharrezkoa da haurren eta nerabeen psikiatria eta psikologia klinikoko espezialitateen sorrera sustatzea, kasuan kasuko hezkuntza eta laguntzarako egiturekin.
- Pertsona batzuen ustez, haurtzaroen, nerabezaroen eta gaztaroen psikofarmako gehiegi preskribatzen dira eta nahasmenduaren kontzeptuan ondoez edo moldatu ezintzat jo daitekeenaren inguruan behar ez den kategorizazioa egiten da. Erakunde hau ere uste berekoa da. Ildo horretan, adierazi dute hori agian izaera psikiatrikoko parametroei emandako arretaren araberakoa dela; neurri integratzaileen eta pertsonaren garapen orokorrerako neurriak sustatu edo arazoa psikoterapiaren ikuspegitik aukera bat bailitzan jorratu beharrean.

### 2.5. Justizia

2011. urtearen hasieran, Eusko Legebiltzarrean “*Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*” izeneko txostena aurkeztu zen. Txosten horrek Ararteko erakundeak haurren inguruan ordura arte argitaratutako txosten guztiak, baita atalen batean haurrak hizpide dituzten txostenak eta urtez urte horietako bakoitzaren inguruan egindako jarraipenak ere, barne hartzen ditu. Bertan jorratu diren alorren artean, nerabe arau-hausleen arazoa dago. Gai horren jatorria 1998ko “*Adin txikiko lege-hausleak*” izeneko txostena da. 2010. urtera arte txosten horren jarraipena egin zen. Txostena eta hori amaitzeko emandako gomendioak argitaratu zirenetik ia bi urte pasa ostean, egokitzen joan zen horien betetze mailari buruzko jarraipena egitea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako [Herrizaingo](#), [Justizia eta Herri Administrazio Sailari](#) funtsezko datu eta informazioa eskatu genizkion.

Gauzatutako neurrien eboluzioaren gaineko datu nagusiak aztertzeak aplikazio maila handiagoa edo txikiagoaren berri edukitzeko aukera ematen du, baita joera orokorrak eza-gutzeko ere. Hori guztia “[3/2005 Legeak](#) eta [80/2009 Legeak](#) ezarritako araudiaren testuingurua erabat aplikatzeko beharra” aipatzen duen txostenaren gomendioa baloratu ahal izateko funtsezko informazioa baita. Datu orokor horiek honen berri ematen digute:

(2. taula)

### EAEn buruturiko neurrien kopurua (2009-2012)



Neurria	2009	2010	2011	2012
Komunitatearen onurarako prestazioak	314	347	285	229
Zaintzapeko askatasun irmoa	310	327	376	297
Tratamendu ambulatorioa	22	10	13	8
Gizarte- eta hezkuntza-lanak	186	146	137	101
Barneratze finkoa	116	209	169	120
Asteburuetan geratzea	152	128	102	121
Heziketa taldearekin elkarbizitza	5	11	8	7
Eguneko zentro batera joatea	34	26	37	29
<b>Behin betikoak</b>	<b>1.139</b>	<b>1.204</b>	<b>1.127</b>	<b>912</b>
Zaintzapeko kautelazko askatasuna	30	39	37	36
Kautelazko barneratzea	67	59	52	41
Kautelazko elkarbizitza	3	4	7	3
<b>Kautelarrak</b>	<b>100</b>	<b>102</b>	<b>96</b>	<b>80</b>
<b>NEURRIAK GUZTIRA</b>	<b>1.239</b>	<b>1.306</b>	<b>1.223</b>	<b>992</b>
<b>Bariazioa</b>	<b>196</b>	<b>67</b>	<b>-83</b>	<b>-231</b>
<b>% Hazkundera</b>	<b>18.8</b>	<b>5.4</b>	<b>-6.3</b>	<b>-18.9</b>

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

2009. eta 2010. urteek erakutsi dute neurrien kopuruak gora egin duela, nahiko modu nabarmenean horietako lehenengoan (% 19). 2011. urtean joera aldatu egin zen eta neurri kopurua % 6,3 gutxitu zen. Gutxitze hori handiagoa izan zen 2012. urtean (% 19) eta, ondorioz, 2004. urtekoa bezalako eskari mailan kokatuta gaude.

Ezarritako neurrien gutxitzea hiru lurraldeetako adingabe-entzako epaitegietan gertatu da: % 12,8 Bilbokoa, % 18,2 Donostiakoan eta % 34,5 Gasteizkoan.

Delituei dagokienez, neurrien kopuruak oro har behera egin badu ere, familia barruko indarkeriari lotutako delituek eta bikotekideen aurkako erasoek gora egin jarraitu dute, nahiz eta oso bistakoa ez izan. Kautelazko neurrien % 37,5 eta neurri irmoen % 10 eragiten dute.




(13. grafikoa)

**EAEn gauzatutako behin betiko eta kautelazko neurrien kopurua (2009-2012)**

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

2012. urtean ezarritako neurrien % 8 kautelazkoak izan dira. Ez da aldaketa adierazgarriarik antzeman zaintzapeko askatasunetan eta barneratzeen kopurua eta iraupena murriztu dira. Kautelazko neurri gisa, heziketa talde batekin batera bizitzeari dagokionez (2012. urtean 3 izan dira), sailak helarazi zuen hausnarketarekin bat gatoz: *“neurri hori ez da oso egokia, haren izaera eta legezko arautzea kontuan hartuta; izan ere, neurri hori gauzatzeko kautelazko izaerak ahalbidetzen ez duen lana, pausatzea eta arreta beharrezkoak dira”*.

(14. grafikoa)


**EAEn gauzatutako kautelazko neurrien kopurua, modalitatearen arabera (2009-2012)**

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

2012. urtean gauzatutako neurrien % 92 irmoak dira eta kasu gehienetan (% 72,8) bitarteko irekian burutzen dira. Dena den, % 27,2 zentroetan gauzatzen dira (barneratzeak, bizikidetzak eta asteburuko egonaldiak). Aurreko urteekin alderatuz, 2012. urtean aldaketa esanguratsu jakin batzuk gertatu ziren behin betiko neurri nagusietan:

(15. grafikoa)

**EAE n gauzatutako neurri irmoen kopurua, modalitatearen arabera (2009-2012)**



NEURRIA		2009	2010	2011	2012
	Egunko zentro batera joatea	34	26	37	29
	Heziketa taldearekin elkarbizitza	5	11	8	7
	Asteburuetan geratzea	152	128	102	121
	Barneratze finkoa	116	209	169	120
	Gizarte- eta hezkuntza-lanak	186	146	137	101
	Tratamendu ambulatorioa	22	10	13	8
	Zaintzapeko askatasun irmoa	310	327	376	297
	Komunitatearen onurarako prestazioak	314	347	285	229

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila

- Komunitatearen onurarako prestazioek behera egin zuten ondorengo bi urtetan. 2008. urtean egondako jaitzietan ostean eta 2009. eta 2010. urteetan hazkuntzak erregistratu baziren ere, aurreko urteetatik urrun gaude, lehen 400 kasuen muga erraz gainditzen baitzen.
- Zaintzapeko askatasunak 2009. urtean erregistratu-takoaren antzerako mailan daude.
- Gizarte- eta hezkuntza-lanak egiteari lotutako neurriak modu nabarmenean behera egin du eta 2007. urtekoa baino kota txikiagoan kokatuta dago.
- 2010. urtean barneratzeek % 80,2 gora egin zuten eta iraupena ere nabarmen luzatu zen. Azken bi urteetan joera beheranzkoa izan da eta 2012. urtean, 2009. urtean jasotako antza duten zifrak lortu ziren. Dena den, iraupena mantendu zen.
- Asteburuko egonaldia hazi den neurri bakarra da, 2011. urtearekin alderatuz.

Neurrien aplikazio errealak burutzeko faktore erabakigarri bat bitartekoen eta baliabideen eskuragarritasun handiagoa edo txikiagoa izan ohi da.

(3. taula)

**Gazteen justizia sistemaren heziketa zentrozen sarea**



I. maila		Plazak: 39
IBAIONDO heziketa zentroa	Zumarraga	39 mutil 5 heziketa talde
II. maila		Plazak: 55
URGOZO heziketa zentroa	Zugastieta	1 mutil
TXEMA FÍNEZ heziketa zentroa	Aramaio	2 mutil
URIBARRI heziketa zentroa	Arrazua-Ubarrundia	16 mutil
ANDOIU/GORBEIA heziketa zentroa	Vitoria-Gasteiz	19 neska
III. maila		Plazak: 10
Autonomia egoitza	Bilbao	6 Mistoa
Autonomia egoitza	Donostia-San Sebastián	4 mutil
<b>Plaza eskuragarriak guztira</b>		<b>Plazak: 104</b>

Neurrien murrizketarekin zuzeneko lotura duenez, gazteen justiziaren arloko zentrozen sareko batez besteko okupazio tasak ere behera egin du 2012. urtean zehar eta % 70 eta % 80 bitartean kokatu da. Horregatik urtearen hasieran bi autonomia egoitza eta asteburuko egonaldiak lotutako neurriak betetzeko zentro zehatza itxi zuten. Guztira, 18 plaza.

Sistema bitarteko irekien sarearen bidez osatzen da, lurralde historiko bakoitzean ekipoak mantentzen dituen eta egunko zentroak sendotzen dituen. Guztira, 36 plaza eskaintzen dira, biztanleria aintzat hartuta, proportzionalki banatuak.

Hala ere, beharrezkoa eta egokia den baliabideen eskuragarritasun kuantitatibotik harago, gorago aipatutako araudian jasotako beste alderdien inguruan zalantzak eduki ditzakegu, hezkuntzari dagokionez esku-hartzeen egokitasun handiagoa edo txikiagoaren ingurukoak hain zuzen ere. Hala, egokitze jotzen denean Banakako Hezkuntza Proiektuetan lan-arlo zehatza ezartzeko gomendioa ezarri duen eta betetze fasean kontziliazioa hizpide duen zirkular bat dagoela jakinarazi diguten arren, gurekin hizketan egon diren zenbait profesionalen iritziz, aukera hori ez da nahikoa erabili. Aipatutako lan-arlo zehatz horrek, jokabidearen arduratik, haren ondorioetatik, beste pertsonen inplikaziotik eta abarretik abiatuta, bitartekotza/kontziliazio prozesu bat abian jartzeko aukera jorratu beharko luke.

Arrisku egoera berezian dauden haurren gaineko txostenaren 3. gomendioari dagokionez, “adingabeentzako polizia bulego eta erregistro zehatzak ezartzeko beharra” aipatzen duena; ohiko txostenean, Herrizaingoari dagokion alorrean, xedatu da **Ertzaintza**ren atxilotza-zentroetan oraindik ez direla adingabeentzako berriazko bulegoak egin, beraz, ez da urtarilaren 12ko **5/2000 Lege Organikoak** eza-

rri duena bete (17.3. artikulua). Halaber, erakunde honek [Bilboko Udaltzaingoa](#)ren instalazio berrietan bisitaldiak burutu ditu eta, bertan, berriazko gela hori badago, hobetzeko zenbait proposamen egin diren arren. Izan ere, ez da guztiz bete exijitzen den bereizketaren printzipioa (horren xedea adingabeek atxilotutako helduekin harremanik ez edukitzea da), erabilera komuneko beste gela eta esparruen ondoan baitago. Gainera, bertara heltzeko guztientzat komunak diren lekuetatik pasa behar da.

4. gomendioak abokatuen ofiziozko txandak eskaintako zerbitzua eta horien prestakuntza zehatza dauka hizpide. Adingabeentzako txanda zehatza sortzeak esan nahi du abokatuek bertan sartzeko prestakuntza zehatza jaso behar dutela. Hori aurrerapen garrantzitsua da legeriaren nahari dagokionez. Hori bai, zuzenean jaso ditugun testigantza batzuen arabera, oraindik ere espezializatu gabeko zenbait praktika burutzen dira, batez ere, helduen juridikioari lotutako lan egiteko moduarekin zerikusia daukatenak. Hortaz, ematen du oraindik ere aurrerapausoak eman behar direla helduen ofiziozko txandako abokatuen prestakuntza zehatzaren arloan.

Gazteen justiziako zerbitzuen eta babesik gabe dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen arteko koordinazioan hobekuntzak egin dira, aipatutako txostenaren 5. gomendioan esan bezala. Izan ere, iaz aditzera eman zen bi sistemak koordinatzeko jarduteko protokoloa onetsi zela eta sistema horien arduradunek berrestez gain, bisitaldietan eta kexen izapidetzean zehar egiaztatu ahal izan dugu asebetetze maila eta eraginkortasunari dagokionez egon den aurrerapena begi bistakoak direla.

Espezializatutako literaturak eta profesionalak dioten moduan, egoerarik zaugarrienen dauden hurrek aukera gehiago dituzte euren bizitzan hainbat alorretan zailtasunak edukitzeko. Zenbait nerabeen kasuan ere hori horrela da, zehazki, babesgabetasun mailaren batean dauden eta, ondorioz, haurrak babesteko gizarte zerbitzuen eskutik arreta jasotzen duten eta legea urratuz sistema judizialarekin harremanetan jartzen dituen delituren bat burutzen duten nerabeen kasuan. Azken urteetan bi sistemen eskutik arreta jaso duten bost kolektiboen barruan, deigarria da euren senideei edo bikotekideei erasotzen dieten eta, ondorioz, euren ingurutik separatu behar dituzten nerabeen kopuruak etengabe gora egiten jarraitzen duela (portzentajeei jarraiki, neskak gehiago). Halaber, adierazgarria da 2011. eta 2012. urteetan bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopurua murriztu dela. Bestalde, horrek islatzen du denboraldi horretan neskato eta mutiko gutxiago heldu direla gure lurraldera.

Osasun arretan egon diren aurrerapenen eta osasun sistemarekiko lankidetzaren inguruan (6. gomendioa) bakarrik jakin dugu 2012. urtearen hasieran Zumarragako BOZeko psikiatra aldi behin bisitaldiak egiten hasi zela Ibaiondo heziketa zentroan. Aurreko txostenetan azaldu dugun moduan, zerbitzu publikoek buruko osasunari lotutako arreta behar duten nerabeei eskaintzen dieten arretak gabezi garrantzitsuak ditu, are gehiago eragindako pertsonen kopuruak handitzen jarraitzen duela kontuan hartuta. Edo-nola ere, arretan antzeman daitekeen ahultasunak ez die bakarrik kolektibo horiei eragiten. Txostenean, osasuna-

ri buruzko atalean hain zuzen, azaldu den moduan, EAEn buruko osasunari erantzuna emateko gaur egun dauden gabezi eta mugak ere barne hartzen baititu.

## 2.6. Mendeko adingabeak

Mendekotasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako arreta autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko [abenduaren 14ko 39/2006 Legea](#) jorratu da, oinarritzko arau gisa. Dena den, gizarte zerbitzuen gaineko abenduaren 5eko 12/2008 Legea ezarritakoaren zati handi batek aurreko hori osatzen du, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eta eremu soziosanitarioa arautzen duten gaitzarako arauak ere. Beraz, urte horretan zehar mendekotasunaren alorrean gertatutakoak (urteko txostenaren) [adinekoentzako atalean](#) xehetasun handiagoarekin azaldu da eragina dauka mendekotasun egoeran dauden hurrek jasotzen duten arretan.

Autonomia pertsonalaren eta mendekotasunaren alorrean, 2012. urteko datu estatistikoek agerian jarri dute EAE osoan egoerak okerrera egin duela. Aurreko urteetako joera goranzkoa izan bazen ere, aurten zenbait adierazle, hala nola, prestazioak jasotzeko eskubidea duen onuradun kopuruak, prestazioak jasotzen dituzten pertsona onuradunen kopuruak edo ebazpen mailak behera egin dute.

Aurten ere familia ingurunezko zaintzentzako prestazio ekonomikoaren prebalentziaren hazkundera erregistratu da, mendekotasun egoeran dauden haurrentzako arretaren kasuan eskari handia daukan prestazioa baita. Gure administrazioek zaintza horien kalitatearen eta egokitasunaren gainean (bai mendekotasun handiko egoeretan, bai erdi mailako mendekotasun egoeretan) egindako ikerketa eta jarraipenak oso ondorio positiboak atera dituzte horien egokitasunaren inguruan.

Estatu mailan, mendekotasuna [baloratzeko baremo berria](#), [otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuaren](#) bidez onetsitakoa, otsailaren 18an sartu zen indarrean. Esku artean ditugun datuekin bat eginez, baremo horren aplikazioak eragin duena zera da: balorazioaren berrikuspenetan gradua jaitea eta, balorazio berrien kasuan, antzerako egoeretan aurreko baremoa aplikatuz jasotakoak baino mailaketa baxuagoak. Izan ere, eremu horretan aurkeztu diren kexa guztiek (bat izan ezik) balorazioarekiko desadostasuna daukate hizpide.

Oso positibotzat jotzen dugu I. eta II. graduentzako laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren handitzea. Hortaz, salbuespen horrekin, gure ustez [aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriak](#) buruzko [uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren](#) (aurrerantzean, 20/2012 ELD) bidez hartutako gainerako neurriek [atzerapen esanguratsua](#) eragin dute autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran daude pertsonak artatzeko politiken garapenean. Hemen jaso ditugu, gure ustez, mendeko haurrengan eragin handiena eduki duten neurriak:

- 2015eko uztailaren 1era arte atzeratu da I. graduako balorazioa eskuratzen duten pertsonen sarrera (sisteman),

baita 2011ko abenduaren 31 baino lehen I. graduako 2. mailako balorazioa jaso duten baina data hori baino lehen prestazioa aitortuta ez duten pertsonena ere.

- Prestazioen eta zerbitzuen bateraezintasun araubidea gogortu da.
- Prestazio ekonomikoen zenbatekoak modu nabarmenean txikiagotu dira.
- PECEF izeneko prestazioak ez die atzeraeraginezko ondoriorik eragingo 20/2012 ELD indarrean sartzen den unean oraindik prestazio horiek jasotzen ez dituzten pertsonen (sortutakoak mantenduko dira). 20/2012 ELD indarrean sartzen denean, pertsona horien alde aitortutako PECEFak bi urteko gehienezko etete-epearen menpe egongo dira.
- Zaintzaileen hitzarmen bereziak borondatezko izaera edukiko du. Hori dela-eta, kotizazioak bakarrik izenpetzen duen pertsonaren kargura egongo dira.
- Mendekotasun gradu bakoitzerako ezarritako zerbitzuen babesaren intentsitatearen murrizketa.

Estatu mailan hartu diren eskubideen gaineko neurri murriztaile batzuk (aipatutako atzerapena eragin dutenak) euskal herri-administrazioen ahalmenaren gauzatzearen bidez arindu dira autonomia pertsonala sustatzeko eta mendeko pertsonak zaintzeko legearen 7. eta 11.2. artikuluekin bat eginez. Izan ere, bertan, ezarri da babes maila osagarriak ezarri behar direla. Hori guztia, Gipuzkoan beste bi lurraldeetan baino gehiago nabaritu da. Estatu mailako iradokizunari jarraiki, Araban hartutako zenbait neurri, etxex etxeko laguntza zerbitzuan intentsitatea murriztea edo lehen I. gradu 2. maila izenarekin ezagutzen zenean bateraezintasun araubide berria ezartzea, besteak beste, kezkarriak dira.

Gizarte laguntzaren arloan, gure erkidegoari esleitutako eskumen eksklusiboaren eta aipatutako ahalmen gehigarriaren espresio argia den [Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legeak](#) testuinguru nahikoa jarri du gure esku orain arte gure herri-administrazioek gizarte zerbitzuen arloan egin duten apustu irmoarekin aurrera egite aldera, arreta handitzeko eta etengabeko hobekuntza lortzeko ibilbidean oztoporik jarri gabe.

## 2.7. Kultura jarduerak eta kirola

Aurreko urteetan bezala, alor horretan azpimarragarria dena eskolako kirolari lotuta dago, baita haren izaera parte-hartzaile eta hezitzailearekin ere. Zentzu horretan, emakume batek aurkeztu zuen kexa adierazgarria da. Bertan, azaltzen zen futbol elkarte batek urte batean Eskolako Kirola programan parte hartu zuten 17 ume kaleratu zituela. Mahai gainean jarri zuen erakundeek eta, bereziki, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) kontrol handiagoa burutu beharko luketela programa horretan izena ematen dute kirol klubek politiken gainean, arlo hori arautzen duen araudian jasotako printzipioak errespetatzen direla bermatze aldera. Horren harira, bi alderdi azpimarratu nahi izan zituen: alde batetik, lehiaketa-arrakastaren gainetik hezkuntzari lotutako xedeak eta hurren eta gazteen artean kirola egiteko ohituraren sustapena gailentzeko beharra; bestetik, datuak babesteari dagokionez, araudia errespetatzeko beharra.

Gertatutakoaren azterketa amaitzeko, [gomendioa](#) egin zen. Horren bidez, aditzera eman genuen aldundiak hobekuntzak gaineratu behar dituela salatutako gertakarien eta antzerako gertakarien gaineko ikerketaren eremuan. Horrez gain, horrelakoak berriro gertatu ez daitezzen, praktika onak sustatu behar ditu aipatutako programan parte hartu nahi duten kirol klubek artean. Bizkaiko Foru Aldundiak erakunde honek egindako gomendioak onartu zituen eta gaiari lotuta hartutako neurrien inguruko informazioa helarazi zigen.

Hala, azpimarratu nahi dugu berriro ere adin horietan, kirola egiten denean, espiritu parte-hartzailea eta hezitzailea gailendu behar dela eta hori modu arduratsuan eta proaktiboan sustatu behar dela. Horretarako, egokiak diren neurriak eta tresnak artikulatu beharko dira. Erakunde honen ustez, kirol zentroek eta klubek zentzu horretan praktika oneko kode bat sinatzea norabide zuzenean doan urratsa da.

## 2.8. Beste batzuk

### 2.8.1. “Lapurtutako jaioberriak”

2011n bulegoak egin zuen txostenean jaso genuen moduan, urte horretako uztailean *1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaioberriak beren ama biologikoengandik bidegabe banandu edo ebatsi zireneko egintzak argitzen lagunduko duten neurrien premiari buruzko Arartekoaren 1/2011 Gomendio orokorra* jendaurrean aurkeztu zen. Gomendioa iraganeko egitatei begira egin da, argitzeko asmoz (abian dauden prozedura judizialak alde batera utzita), bai eta etorkizunari begira ere, halakorik berriro gertatu ez dadila, ordutik jarri diren eta gaur egun indarrean dauden kautelazko neurrien bitartez.

2012. urtean zehar, zenbait kexa heldu dira gai horri lotuta baina askoz gutxiago izan dira. Bestalde, hainbat erakundek jarduerak abian jarri dituzte gure gomendioan jasotako ildoarekin bat eginez. Horiek guztiak interes handiarekin aztertu ditugu eta jarraian laburtuko ditugu.

Urte hasieran [Herriaren Defendatzaileak Justizia Ministerioaren eta Estatu Fiskaltza Nagusiaren](#) aurrean burututako kudeaketei lotuta helarazi zigen informazioa ikusita, hauxe nabarmendu nahi dugu *“probak (DNA) egite aldera jarduteko protokolo bat egin da eta Toxikologiako Institutu Nazionalen datu-base bat ezarri da. Hori guztia Zerga Ministerioaren eta Epaitegien eta Auzitegien esku jarri da, erabilgarri izan dezaten, eragindako pertsonen artean datuak gurutzatzen direnean eta haiek hala erabakita pertsona jakin batzuen laginak ateratzen dituztenean”*.

Otsailaren 16an, EAEn, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran **ez-legezko proposamen** bat aho batez onetsi zen *1960. eta 1970. hamarkadetan lapurtutako jaioberrien kasua argitzeko beharrari lotutakoa*. Horretarako, legebiltzarrean batzorde bat eratzea erabaki zen *“adopzio espedienteetan erreferentziazkoa eta aplikagarria den araudi guztia xehetasunez aztertzeko eta ikertzeko eta gertakariak argitzeko eta etorkizunen horrelako gertakariak jazotzeko aukera eman dezakeen edozein legezko abagune saihesteko lagungarriak diren legeriaren aldatetarako proposatzeko helburuarekin”*. Legebiltzarreko Batzordea 2012ko martxoan eratu zen baina benetan apirilaren amaieran funtzionatzen hasi zen, bi aste-

tan behin. Plangintzarekin bat eginez (erakundeak, adituak eta kontsultatu beharreko beste eragileak) abenduan amaituko zutela aurreikusi zuten, legegintzaldiaren amaierarekin batera, baina hauteskundearen deialdia aurreratu egin zenez (urrian) eta legebiltzarrak desegin zenez, batzordearen lana amaitu gabe geratu zen.

Batzordeko presidentea izan zenak azaldu zuen, emaitza zehatz gisa, zenbait kontsulta-bide ireki zirela pertson/familia interesdunen esku jartzeko eta fitxategi jakin batzuk berreskuratzeko helburuarekin. Halaber, adituen (hilerrietako auzitegi eta arduradunak) testigantzak ere aipatu ditu, batzuetan bat ez datozenak, eta ematen du argi geratu dela ez dela erraza izango kasuen ebidentzia argiak egiaztatzea edo topatzea.

Legebiltzarreko jarduerarekin batera, Eusko Jaurlaritzak [Giza Eskubideen Zuzendaritzari](#) 2012. urtearen hasieran xede horrekin sortu zen Sailen Arteko Batzordearen buru izateko ardua esleitu zion. Horrez gain, batzordearen eta eragindako pertsonen elkartearen arteko lotura ere izan behar zen.

Sailen Arteko Batzordeak sustatutako jardueri dagokionez, zera dakigu:

1. Erakunde eskatzaileen esku jarri da (2011. urtean jarri zen) [Biktimarentzako Laguntza Zerbitzua \(BLZ\)](#) izeneko. Baliabide hori oso egokia da alderdi juridikoen gaineko orientazioaren aldagaia barne hartzen duten egoeretan, baita arreta psikologikoen aldagaia hizpide duten horietan ere. Izan ere, antsietate handiarekin jo ohi duten haiengana. BZLn artatutako kasuak (deiak, aurrez aurreko arreta, laguntzak...) 315 izan ziren maiatzaren 31n (zuzendaritzak eskuragarri duen azken txostenaren datan): 103 Barakaldon, 128 Bilbon, 76 Donostian eta 8 Gasteizen (kurioso da baina Gipuzkoan salaketa gehien jaso zituen tokia izan arren, BZLren esku-hartzea bertan Bizkaian burututakoa baino txikiagoa izan da zenbaketa osoari erreparatuta).
2. Euskal Autonomia Erkidegoko [Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak \(AMEI\)](#) 5 gorpu hobitik atera ditu epaileak hala aginduta.
3. DNA bankuari dagokionez, uda eta gero berezko laborategi bat martxan jarri zen, Auzitegi Unitate Genetikoa (AUG) izeneko. Goian aipatutako Justizia Ministerioaren [Toxikologiako Institutu Nazionalak](#) lan hori burutzeko bermea eman zion. Unitate hori Donostiako Justizia Jauregian kokatuta dago, Auzitegi Medikuntzako Institutuak Gipuzkoan duen zuzendariordetzan hain zuzen ere.
4. Lekualdaketak direla-eta, 1975. urtea baino lehenagoko zenbait paper-sorta desagertu direla aitortu da. Lekualdaketetan paper-sortak galdu izanari buruzko [Euskal Herriko Unibertsitatearen](#) (Paco Etxebarriaren) txosten bat dago, Gipuzkoako Foru Aldundiak [Giza Eskubideen Zuzendaritzari](#) hala eskatuta egindakoa.
5. [Osakidetza](#) 687 eskaera jaso zituen. Horietatik, 519k erantzuna jaso zuten, dokumentazioarekin batera. Eskaera gehien jaso zituen zentroa Donostiako ospitalea izan zen, 428 eskaera hain zuzen ere (342 eman ziren). Osakidetza bideratutako eta erantzunik jaso ez duten informazio eskaeren % 25 (178) horri dagokionez (horien artean, erdia Donostiako ospitaleari lotuta daude),

osasun arloko aginpideek adierazi dute lokalizatzea oso zaila dela. Izan ere, historia klinikoa –gaur egun ulertzen dugun moduan– 80. hamarkadan jaio zen eta 1989. urtera arte ez zen osasun arloko dokumentazioaren zaintza araudian jorratu.

6. [Ertzaintzari](#) dagokionez, 2011. urtean 70 ikerketa abian jarri zituzten (28 Araban, 42 Gipuzkoan eta 0 Bizkaian). Horiei gehitu behar zaizkie 2012ko urtarilla eta maiatza bitartean hasitako beste 37 ikerketa (7 Araban, 2 Bizkaian eta 28 Gipuzkoan). Ez da inolako eredurik antzeman, ezta mafia nazional edo nazioarteko mafiaren zantzurik ere. Hortaz, ez dago argudio nahikorik atzean “azpilana” zegoela ondorioztatzen.

### 2.8.2. Atzerritarren seme-alabak

Atal horretan bi kexa jaso ditugu, atzerritarren seme-alabak izateagatik aurkitu dituzten zailtasunak hizpide dituztenak. Batzuetan atzerritar horiek administrazio egoera irregularran egon ohi dira.

Horietako lehenengoa honi buruzkoa da: pasaportetik ez duen adingabe bati erroldatzea ukatu zioten. Familia beste udalerrri batera lekualdatu zen eta bertako udalak bi ahizpa txikiak familia-liburuan erregistratu zituen. Hala ere, hirugarrenari izen-ematea ukatu zion 16 urte baino gehiago zituelako eta ez zuelako identifikazio ahalbidetzen zuen pasaportetik. Erakunde honen ustez, adingabearen interes gorenaren printzipioa eta bazterkeriarik eza hizpide duen printzipioa aplikatuz, adin txikiko pertsona guztiak erroldatu behar dira, idazkariordetzaren [1997ko uztailaren 21eko ebazpenaren](#) 2. aginduarekin bat eginez. Horren bidez, udalei udal errolda eguneratzeari buruzko jarraibide teknikoak eman dizkien Estatistika Institutu Nazionalaren presidentearen eta Lurraldeen arteko Lankidetzaren zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko ebazpena argitaratzea erabaki zen. Azkenik eta izen-emateko zedula eman ostean, erroldatu ahal izan zen.

Bigarrena adingabe batek federazio-lizentzia lortzeko zailtasunak ezarri dizkion dokumentazioaren eskaerak eragin zuen. Adingabe bati federazio-lizentzia emateko, [Bizkaiko Futbol Federazioak](#) eskatu zion berak eta bere gurasoak bizileku baimena daukatela egiazta zezan. Eskaera hori ez da Euskal Futbol Federazioaren [Araudi Orokorrean](#) jaso, ezta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen urtarillaren 31ko [16/2006 Dekretuan](#) ere.

Gure iritziz, bizileku baimena edo gurasoen laneko baimena edo lan-kontratua aurkezteko beharrak eragozten du legez kontrako egoera administratiboan dauden adingabe atzerritarrek federazio-lizentzia lor dezaten. Horrek gizarteratzeari eta kirola egiteak haur eta gazteentzat esan nahi duen gailentzeko guztiari eragiten dio. Horrenbestez, [Eusko Jaurlaritzara](#) eta [Bizkaiko Foru Aldundira](#) jo genuen gure gogoeten berri emate aldera. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zigun gure iritziarekin bat zetorrela eta antzerako egoerak errepikatu ez daitezen burutu zuen jardueraren berri eman zigun.

### 2.8.3. LGTB haurrak eta nerabeak

Erakunde honek askotan adierazi du joera homosexuala (gay eta lesbianak) edo bisexuala edo transgenero edo transexual identitatea (aurrerantzean, *lgtb*) duten nerabe

askoren egoeraren gaineko kezka; izan ere, egunero bizi dituzte familian, eskolan edo gizartean beren errealitatea ez onartzeari eta, areago, arbuizatzeari loturiko egoerak.

Aurten auzi honen inguruan banakako kexak jaso ditugun arren, erakundeak *lgb* pertsonen eskubideak defendatzeko lanean diharduten taldeekin eta Eusko Jaurlaritzako [Berdindu zerbitzuko](#) arduradunekin duen harremanak bide ematen digu gaur egungo arazo kezkarrienetako batzuk ezagutzeko.

Horren haritik, beharrezkoa iruditzen zaigu hauxe azpimarratzea: gabezia nabarmena antzeman dugu hezkuntza sisteman, aniztasun afektibo-sexualerako eta genero-aniztasunerako eskubideen erabateko errespetua integratzeari, bistaratzeari eta sustatzeari dagokionez. Hori guztia honetan antzeman daiteke: ez dago irakasleak prestatzeko eta sentsibilizatzeko plan edo programarik, ikasgelan ez dira kontu horiek modu sistematikoan eta antolatuan jorratzen, ez dago sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko material zehatzik eta egun erabiltzen diren material didaktikoetan ez dira bizikidetzaren eredu berriak islatzen. Halaber, egiaztatu dugu ez dagoela jazarpen homofobia berariaz jorratzen duen mekanismorik -gero eta ikerketa gehiagok argi utzi duten arren ikastetxeetan jazarpen mota hori askotan gertatzen dela eta ondorio larriak dituela-. Hala eta guztiz ere, ematen du zehaztasun hori ez dela behar bezala aintzat hartu eskolako jazarpenari erantzuteko protokoloan. Zentzu horretan, irakasleek antzeman dute hezkuntza sistemak ez diela inolako laguntzarik eskaintzen gai horiek behar bezala jorratu ahal izateko. Hala adierazi da Euskadin egindako landa-lanean, Rainbow Europako testuinguruan, geroago aipatuko dugunez.

Ararteko erakundearen iritziz, hurrekin eta gazteekin ikastetxearen eremuan eta elkarten eremuan lan egitea funtsezkoa da, sexu-orientazioan eta genero-identitatean dagoen aniztasuna erabat onartzearen aldeko hezkuntza eratuz gazte-gazteak direnetik. Zentzu horretan, haurtzarotik errealitate hori kontuan hartzen duen hezkuntzaren garapena irmotasunez jorratzea ezinbestekoa da:


- beharbada bazterkeria pairatzen duten haur, nerabe eta gazteei laguntza eta konpainia eman ahal izateko. Izan ere, oraindik gaur egun sexu-orientazio edo genero-identitate desberdinak zailtasunak eragiten ditu adingabeen gizarteratzean.
- gazte-gaztetik errespetuan, berdintasunean eta askatasunean oinarritutako balioak irakastea, aniztasun afektibo-sexualaren aurkako aurreiritziak eta eginkizunak eta genero-identitateak zalantzan jartzen dituzten ideiak behin betiko gainditu ahal izateko.
- modu horretan, ikastetxea toki seguru bilakatuko da, adingabeen eta nerabeen garapen pertsonal zorientatua bermatuko duena eta aniztasuna barne hartzen duena.

Bestalde, beste gai hau ere jorratu behar da: familiei, irakasleei eta zentzoei nola eman aholkuak eta informazioa eta nola lagundu, ikastetxeetan haur eta nerabeen identitate aniztasunari eta genero-roleri dagozkien egoerak edo portaerak sortzen direnean. Halako egoerak, jakin ahal izan dugunez, oso adin txikietan ere gertatzen dira. Erakunde honek gai horri heldu dio Eusko Jaurlaritzaren Berdindu-n LGTBen eskubideak babesten diharduten elkarteekin, eta gai horren bilakaera aztertzen jarraitzeko asmoa du 2013. urtean barrena.



# Azterlana:

Krisiaren eragina haurrengan:  
EAEko errealitatea



a t a l a





### III. Atala

## Azterlana: Krisiaren eragina haurren: EAEko errealitatea

(Testu osoa web orrialdean)

2010eko txostenean adierazi genuen eta irmotasun handiagoz azpimarratu genuen 2011koan kezkatuta geundela iruditzen baitzitzaigun haurren pobrezia-egoerak nolabait handitu egin zirela, kontuan hartuta une haietan gure lurraldeari zuzenean lotu gabeko zantzuak edo informazioa bakarrik genituela. Maiz hartu-eman ona izaten dugun eta haurren egoera jorratzen duten gizarte erakunde, profesional eta pertsonen hitzek, baita diru-sarrerak bermatzeko sistemari lotutako keak ugaritu zirela egiaztatzeak ere (aurreko urtekoak hirukoiztu eta % 3.000 baino gehiago handitu aurreko bi urteekin alderatuz gero; horietako askotan haurrak tartean)- ez ziguten aukerarik eman berri onak iragartzeko.

Hala, urtearen azken hiruhilekoan azterlan kuantitatiboa egiteko eskatu zen krisiak EAEko haurren zuen eragina ezagutu eta agerian jartzeko. Ondoren, hori kontuan hartuta, epe ertainean eta luzean gastu publikoaren murrizketa eta egokitzapen-neurriak jorratzen dituzten politikek izan ditzaketen ondorioen inguruko hausnarketa bultzatzeko, gazteenen etorkizuneko aukerak zehaztuz. Jarraian, azterlanaren ondorio nagusiak hitzez hitz aipatuko ditugu.

2007an hasitako dezelerazio ekonomikoa ondorio oso larriak ari da eragiten herritarren ongizatean eta bizi-kalitatean. Edozelan ere, krisi ekonomikoren eragina ez da ari izaten homogeneoa herritarren artean, gehiago ari baitzaie eragiten bereziki zaurkorrak diren gizarte taldeei. Horien artean, **haurrak dira pobrezia-eraren arriskua pairatzeko aukera gehien dituztenak** ekonomia, gizarte, partaidetza, lege eta politika mendetasunaren ezaugarriak kontuan hartuta.

2012. urtearen hasieran, *La infancia en España 2012-2013: el impacto de la crisis en los niños* Unicef (“Haurrak Espainian 2012-2013: krisiak haurren duen eragina” UNICEF) txostenak hauxe jarri zuen agerian: *haurrak dira krisiaren azken erantzuleak baina beste gizarte talde batzuk bezainbeste edo gehiago ari dira sufritzen haren ondorioak.*

*Aldi berean, haiek nozitzen ari diren eragina ez da ari izaten hain bistakoa krisiari eta haren ondorioei aurre egiteko gaitasun gutxien (banaka eta taldean) dutenak baitira*”. Azterlan horrek ohartarazi zuen Espainian haurren pobrezia arriskua handitu egingo zela –une hartan kotak % 26 baino handiagoak ziren-. Orduetik hona, kezka beteta geure buruari galdetzen genion halako zenbat egoera paira zitzaketen euskal gizataldeek.


Azterlan horretan egindako analisi kuantitatiboak guztiz eskuragarri dauden estatistikako bigarren mailako iturrietako 58 adierazleren sistema du oinarri, analisi konparatzaileko berriki eguneratutakoak eta estrapolatutakoak (Euskal Autonomia Erkidegoaren, Espainiaren eta Europar Batasunaren artean). Adierazle horiek hainbat eremutako informazioa ematen digute: pobrezia eta eskuragarri dauden baliabide ekonomikoak, etxebizitza, enplegua, hezkuntza, osasuna eta aisia.

**Krisiaren eragin nabarmenetako bat pobrezia gehitzea izan da.** EAEn pobrezia larriko egoerarako ezarritako atalasetik (batez bestekoaren % 40) beherako diru-sarrerak dituzten familietan bizi diren 15 urtetik beherakoen proportzioa % 3,5etik % 6,2ra pasa da 2008tik 2012ra. EAEn pairatutako hazkundera Espainian tarte berean erregistratutakoa baino txikiagoa bada ere, kontuan hartu beharra dago ia 3 portzentaje-puntuoko igoera gertatu dela.

Pobrezia erlatiboko tasak (batez bestekoaren % 60ko atalasea kontuan hartzen duena) estatuko batez bestekotik dezente beherago dagoen balioa dauka eta ez du erakutsi okerrerrantz doanik, baina 15 urtetik beherako herritarren %16,1 eragiten dio une honetan.

(16. grafikoa)

**Pobrezia larri/altuko arriskuan eta pobrezia erlatiboko arriskuan dauden 15 urtetik beherako haurren %.** (Eurostat metodoa). EAEko eta Espainiako bilakaera 2008-2012



**Iturria:** EAEko datuak *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Espainiako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. EIN.

**Pobrezia larria/altuaren adierazleari buruzko oharra:** Espainiako eskura dauden azken datuak 2010ekoak dira. Espainiako datuek 28 urtetik beherako adingabeei buruzkoak dira.

**Pobrezia erlatiboaren adierazleari buruzko oharra:** Espainiako eskura dauden azken datuak 2012ko behin-behineko datuak dira eta 16 urtetik beherako adingabeen adin-tartea dute hizpide.

*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta*, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak garatutakoa, oraintsu argitaratu da 2012ko edizioan. Errealitate hori mugatzeko eta bertan gehixeago sakontzeko beste pobrezia-adierazle batzuetarako datuak eskaintzen ditu inkesta horrek.


Lehenik, esan dezakegu **pobrezia eragin handiagoa duela adin txikiko biztanleengan**. EAEn, 15 urtetik beherako biztanleengan mantenu-pobrezia izateko arrisku-tasa %11,7koa da, hau da, biztanleentzat oro har lortzen den tasa baino 4 puntu pasatxo gehiago. Krisia hasi zenetik izan duen 2,6 puntuko igoera ere biztanleria osoak izandakoa baino handiagoa da. Datu absolutuetan, 15 urtetik beherako 35.000 haur baino gehixeago beren oinarrizko beharrei aurre egin ezinik geratzeko arriskuan dauden familietan bizi dira.

Gainera, 15 urteko euskal adingabeen %22,2 inguru, oinarrizko premiak asetzetik haratago, euskal gizartean espero diren ongizate eta erosotasuneko gutxieneko mailak man-

tentzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik gabe bizi da. Guztira 66.458 adingabe daude arriskuan, EAEn ongizate gabeziagatik arriskuan eragina duten pertsona guztien 15,6%.

(17. grafikoa)

**Mantentze-pobrezia arriskuan eta ongizate gabeziako arriskuan dauden 15 urtetik beherako haurren %.** (Eurostat metodoa). EAEko eta Espainiako bilakaera 2004-2012



**Iturria:** EAEko datuak *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Espainiako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. EIN.

**Oharra:** EAEko 2012ko eta 2008ko datuak datu doituak dira (2012ko atalaseak), 2004ko datua, berriz, urte hartan argitaratutako txostenetik dator eta ez dago doitu. Espainiako datuak gutxi gorabeherakoak dira, 16 urtetik beherako herritarrei egiten dieten erreferentzia eta Eurostat metodoaren arabera pobrezia erlatiboko (batez bestearen % 60) arriskuari dagozkio.


Haatik, normalean erabiltzen diren pobrezia-adierazleetan, esan dugunez, diru-sarreren maila kontuan hartuta aipatzen da pobrezia egoera jasateko **arriskua**, baina arrisku hori beti ez da benetako pobrezia edo prekarietate bihurtzen. *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta* erabilitako benetako pobrezia adierazleek kontuan hartzen dute ez bakarrik diru-sarrera nahikorik ez izatea (arriskuan egotea), baizik eta baita ere egoera hori beste elementu batzuekin nahastea. Azken elementu horiek egoera orekatu dezakete ala ez.

Haurrei dagokienez, 15 urtetik beherako herritarren % 9,5ek pairatzen zuten 2012an EAEn mantentze-pobrezia erreale-

ko egoera (gogora dezagun arriskuan zeuden adingabeen zenbatekoa % 11,7koa zela) eta adingabeen %14,1ek ongizate falta errealeko egoera (% 22,2 arriskuan). Adierazle horien datuak argiago azaltzen dute 2008. urtearekiko hazkundera.

(18. grafikoa)


**Mantentze-pobrezia errealeko egoeran dauden 15 urtetik beherako haurren %.**  
EAEko bilakaera 2008-2012



Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012.* Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

(19. grafikoa)

**Ongizate-gabezia errealeko egoeran dauden 15 urtetik beherako haurren %.**  
EAEko bilakaera 2008-2012



Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012.* Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Honatz azterlaneko beste datu esanguratsu bat: 14 urtetik beherako kideren bat duten familiak osatzen dituzten herritarrentzako pobrezia-arriskua herritarrentzat orokorrean zenbatetsitakoa (% 7,3) baino 3,4 portzentaje-puntu altuagoa da eta % 10,7koa da. Gainera, adingabeak bizi diren familia guztietatik, pobreziarako arrisku berezia dute: guraso bakarreko familiak, atzerriko nazionalitatea duen pertsona baten mendeko familiak, kualifikazio baxuko edo 35 urtetik beherako familia-burua duten familiak.

**Gabetze**-adierazleek pobrezia azterketen ikuspegi osagarria eskaintzen digute eta gastuari eta kontsumo ereduai, familiak zailtasun ekonomikoei aurre egiteko dituzten es-


trategiei, familien lehentasunei, etab. buruzko informazioa gaineratzen du. Oro har, krisi ekonomikoak errentaren batez besteko mailaren beherapena ekarri du, baina, era berean, eragin handia izan du **kontsumo ereduari eta beharrik auzerako estrategien aldaketan.**

Joera orokorra lehenik eta behin funtsezkoenak ez diren gastuak murriztea eta ondoren oinarritzakoak murriztu behar izan arte itxarotea da. Horregatik, azpimarratu beharra dago, herritarren % 16,7 **premia biziko gastuak murriztu** behar izan dituzten familietan bizi direla, duela lau urte erregistratutako tasa bikoizten duena.

Azken urtean **bigarren eskuko jantziak** erabili dituzten familietan bizi diren pertsonen ehunekoak ere gora egin du, 2012an EAEko herritarren % 7,1era igo baita, krisiaren hasieran % 3,7 inguruan kokatzen zen bitartean.

(20. grafikoa)

**Arrazoi ekonomikoengatik 10 urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez duten, oinarritzako premien gastuak murriztu dituzten eta azken urtean bigarren eskuko jantziak erabili dituzten familietan bizi diren herritarren %.** EAEko bilakaera 1996-2012



	1996	2000	2004	2008	2012
Arrazoi ekonomikoengatik 10 urte baino gutxiagoko ibilgailurik gabeko familietan bizi diren herritarren %	16,2	14,8	14,5	14,8	18,3
Oinarritzako premien gastuak murriztu dituzten familietan bizi diren herritarren %	7	6,3	9,1	8,1	16,7
Azken urtean bigarren eskuko jantziak erabili dituzten familietan bizi diren herritarren %	5,1	3,7	5,8	3,7	7,1

Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012.* Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Euskal familien ia %17k aitortu zuten 2011n nekez edo oso nekez iristen zirela **hilaren bukaerara**; tasa hori kezagarria da, bada urtebeten bakarrik, 2010 eta 2011 bitartean, 1,7 puntu hazi da. Gainera, EAEko familietako %20,9k ez zuen gaitasunik 2011ko **ustekabeko gastuei aurre egiteko**, Espainiakoa baino 15 puntu baxuagoko zifra izan arren, EAEn

urtebete lehenago erregistratutakoa baino 1,9 puntu handiagoa da.

Beste datu interesgarri batek azaltzen duenez, familia askok koltxoi motaren bat duten neurrian (aurrezkiak, familien laguntza...), nolabaiteko atzerapena egoten ohi da krisi ekonomikoaren hasieraren eta bere eragin guztia pairatzen deneko unearen artean. Horrela bada, EAEko herritarren % 12,3 2012an euren betebeharrei eta ohiko gastuei aurre egiteko aurrezkiak neurri handi batean erabili behar izan dituzten familietan bizi da, 2008an erregistratutakoa hirukoizten duen tasa.


Halaber, denbora tarte berean, euren gastuak estali ahal izateko senideei, auzokideei, lagunei edo erakundeei dirua eskatu behar izan dizkieten familietan bizi diren pertsonen ehunekoa bikoiztu egin da. Horietatik %12,9 dira.

**Etxebizitzaren** adierazleei dagokienez, soilik 3 datu nabarmenduko ditugu:

1. Ordaindu gabeko jabetzako etxebizitza duten 10 familietatik ia 3k harekin loturiko gastuetarako diru-sarreraren % 30 baino gehiago bideratzen dute eta alokairuan bizi diren 10etatik 6 egoera berean daude.
2. 2012an, EAEko herritarren % 5,9 etxebizitzarekin loturiko gastuak ordaindu ez izanagatik edo atzeratu izanagatik sortutako arazoak dituzten familietan bizi da, 2008an egoera horrek % 2,9ri besterik eragiten ez zion bitartean.

(21. grafikoa)


**Ordainketak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak)** burutu ez dituzten edo atzeratu dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 2004-2012



**Iturria:** Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

(22. grafikoa)

**Azken neguan uneren batean hotza pasa duten familietan bizi diren herritarren %.** EAEko bilakaera 1996-2012



**Iturria:** Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza

3. Herritarren % 8,3 etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko aukerarik ez izanagatik azken neguan uneren batean hotza pasa duten etxebizitzetan bizi da. Hotza pasa duten familia pobreetako herritarren kopurua 33,6% ingurukoa da.

**Enpleguaren** arloan, ez dago dudarik lanik eza dela biztanleen pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arriskua gehien areagotu duten aldagaietako bat. Lan-merkatuan ez parte hartzeak edo oso gutxi parte hartzeak bazterketa-prozesuak hastea eragiten edo bultzatzen dute, eta horiek zuzeneko ondorioak dituzte beste gizarte-eskubide batzuk baliatzean.

Langabezia tasa maila kezagarrietara heldu da. 2012ko hirugarren hiruhilekoan, EINen zenbatespenen arabera, EAEko biztanleria aktiboaren % 15,5 langabezian zegoen, hau da, bi urte lehenago baino 5 portzentaje-puntu gehiago eta ekonomia dezelerazioaren hasiera baino lehenago erregistratutako tasa baino 9 puntu gehiago. Espainiako batez bestekoarekiko aldeko ia 10 puntuko distantzia mantentzen duen arren, ia 5 puntutan gainditzen du Europar Batasuneko batez bestekoa eta, ondorioz, EAEko 157.700 pertsona 1 langabezian daude gaur egun. Esan dugun moduan, pobrezia herritar guztiengan eragin bera ez duen bezala, langabezia eta lana neurri ezberdinetan sakabanatzen da. Hainbat gizarte taldek aukera handiagoa dute eragina pairatzeko euren sektore ekonomikoaren, kontratazioaren izaeraren edo kualifikazio mailaren arabera.

Interesgarria da pobrezia eta langabezia arteko harremana aztertzea. Langabezian dagoen pertsona baten mendeko familia batean bizi diren pertsonen mantentze-pobrezia arriskua % 49,4koa da (batez beste orokorra baino 42,1 portzentaje-puntu gehiago).

Are gehiago, zenbatetsitakoaren arabera, 2012an EAEko familien % 8,10ek dituzte euren kide guztiak langabezia, hau da, duela bi urte besterik ez egoera horretan zeuden familien bikoitzak. Kasu horietan pobrezia-arriskua % 7,3tik (tasa orokorra) % 45,7ra igotzen da.

(4. taula)

#### Kide guztiak langabezia dituzten familien %. EAE eta Espainiako bilakaera 2006-2012



Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua (III. hiruhilekoa)	Aurreko urteetako datuen seriearen bilakaera		
		2012 (III. hiruhilekoa)	2010 (III. hiruhilekoa)	2008 (III. hiruhilekoa)
EAE	8,10	4,71	2,63	2,51
Espainia	13,36	10,00	5,02	3,28

Iturria: *Biztanleria Aktiboaren Inkesta*. EIN

Ikusten dugun moduan, langabeziaren eta pobrezia-tasen arteko lotura dago, baina eraginak garrantzi gehiago edo gutxiago dauka gizarte babeserako sistemen erantzunaren arabera. EAEko pobrezia-tasak Europar Batasuneko azpitik eta, bereziki, Espainiako batez bestekoaren azpitik kokatzea Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren eragin positiboari lotzen zaio gehienbat. Prestazio horiek, kasu batzuetan, mantentze-pobrezia-atalasea gainditzeko aukera eskaintzen dute eta, beste batzuetan, atalase horren eta eskura dituzten diru-sarreraren arteko aldea murrizteko aukera.

Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago, prestazio horiek jasotzeko eskubidea mantendu bada ere, krisiaren eragina nabaritu dela, izan ere, hileroko zenbatekoa murriztu da eta prestazioak eskuratzeko baldintzak zorrotz dira. Horregatik, bereziki garrantzitsua izango da lan honetan aurkezten diren adierazle multzoaren bilakaeraren jarraipena egitea, neurri batean, sistema honek krisi egoeretan duen indarra ebaluatzen lagundu baitezakete.

Edukien azken multzoan, arlo jakin batzuk aipatuko ditugu: hezkuntza, osasuna, aisia eta parte-hartzea. Arlo horiek haurrentzat izugarriko garrantzia duten arren, epe ez oso luzean begi-bistakoak izango dira krisiaren eraginak eta gastua murrizteko erabaki politikoek horietan izango dituzten ondorioak.

Ez da harriztekoa hezkuntzari eskaintzen zaion garrantzia, izan ere, bertatik helduaroan garatzen joango diren aukera eta jarrera ugari sortzen dira. Hezkuntza ikastearen sinonimoa da, norbere garapenaren edo gaitasun pertsonal eta sozialak eskuratzearen sinonimoa, baina baita lan-merkatuaren aurreko aukerena, sarrera ekonomikoetarako aukerarena eta, ondorioz, norberaren zein gizarte guztia-  
ren pobrezia murriztearena. Horregatik, gaur egiten du-

gunak eta ez dugunak etorkizunean eragina izango du eta hezkuntzan egindako inbertsioa gizartearen garapenerako eta kohesiorako ardatz nagusietako bat bihurtzen da.

EAEEn, zentro publikoetako lehen hezkuntzako gastua guztira (843.684 € 2009an) zein sistema publikoan lehen hezkuntzako ikasle bakoitzaren batez besteko gastua (6.551,3 € 2009an) handitu egin da azken urteetan. Zehazki, 2009an ikasle bakoitzeko egindako inbertsioak % 14 egin du gora 2007an egindako inbertsioarekiko.


Hala eta guztiz ere, hezkuntza sisteman egindako inbertsioa, garrantzitsua izanik, ez da adierazle nagusia sistemaren eraginkortasuna edo hezkuntzak pertsonen ongizatean eta pobrezia-tasak murrizterakoan duen eragina neurtzerakoan.

*Informe sobre la pobreza infantil a Catalunya* bezalako azterlanek argi uzten dute pobrezia-eraginaren eta eskolatzetaseen arteko lotura. EAEk eskolatzetase altuak ditu 17 urtetan, ia-ia ehuneko ehun 2009-2010. ikasturtean (%98,6), Europako batez bestekoa baino 10 puntu inguru gehiago.

EAEko balioak oso onak diren arren beste herrialdeekin alderatuz eskolatzetasei edo ikasketak goizegi uzteari dagokionez, ezinbestekoa dirudi ildo horretan ahalegina mantentzea ongizate-maila altuagoak lortzeko eta pobrezia-tasak mantentzeko etorkizuneko ongizate-kotak bermatzeko aldera.

(23. grafikoa)

#### Eskolatzetase garbia 17 urterekin. EAE eta Espainiako bilakaera 1999-2010



Iturria: *Las cifras de la educación en España*. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

**Oharra:** EAEko eta Espainiako datuek Araubide Orokorreko irakaskuntza, Arte Plastikoak eta Diseinua, Kirol Ikasketak eta Ikasketak Artistikoetako goi-mailako gainontzeko ikasketak barne hartzen dituzte. Europa mailako azken datuak 2008/2009koak dira.


Hezkuntza sistemarekin gertatzen den moduan, osasunean egindako inbertsioa ezinbestekoa da herrialde baten garapena neurtu eta Hitzarmenak zehaztutako itxaropenak betetze aldera. EAEk 2009an Barne Produktu Gordinaren ia

%9 osasun arloko gastuetara bideratu zuen eta ehuneko hori, gutxienez egun arte, pixkanaka handituz joan da. Hala ere, ez daukagu gai horren gainerako datu gaurkotuagorik.

Alor honetan dagoeneko ditugun datu gutxietako batek azaltzen du uneko krisia herritarren elikatze jokabideetan eragina izaten ari dela. 2012ko iturri estatistikoek % 7,7an kokatzen dute elikadura arazo larriak edo oso larriak dituzten familietako herritarren ehunekoa. Errealitate horrek 2008an, krisiaren hasieran, herritarren % 5,7ri bakarrik eragiten zion.

(24. grafikoa)

**Elikadura arazoak (larriak edo oso larriak) dituzten familietan bizi diren herritarren %.**  
EAEko bilakaera 2000-2012



**Iturria:** *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012.* Lan eta Gizarte Gaierako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Gainera, herritarren % 3,6 behintzat bi egunetan behin proteinak dituen janariaren bat ordaindu ezin duten familietan bizi da, 2008an erregistratutakoa (% 2,3) baino ehuneko altuagoa eta 2004ko mailetarako atzerapena eragiten duena.

Aisialdiko ekintzei dagokienez, hasteko haxe adierazi behar dugu: eskolatzeko eskubideen hazkundearen eta unibertsalizazioaren ondorioz, haurren arteko hezkuntza ezberdintasunak gaur egun aisialdiaren erabilerarekin-hezkuntza ez formaleko eremu gisa ulertuta- eta aisialdiko baliabideak eskuratzearekin lotzen dira gehien bat.

2012an herritarren % 21,6 euren aisialdiko gastuak murriztu dituzten familietan bizi zen, hau da, 2008an krisiaren hasieran (% 10,1) baino pertsona kopuru bikoitza eta 1996tik erregistratutakoak baino tasa nabarmenki altuagoa, ia 1986ko errealitatearekin bat eginez, urte hartan herritarren % 27k pairatu baitzuen aisialdiko gastuen murrizketa.

Bukatzeko, kapitulu honen hasieran adierazitakoa azpimarratu nahi dugu: gabezia materialen ondorioz, haurrak etorkizuneko desabantaila eta ahultasun egoeran daude, euren gara hezkuntza, gizarte eta laneko garapenean eragina izan dezakeena. Horregatik, ezinbestekoa da haurrak kontuan hartzea gure gizarteak pairatzen dituen erronken aurrean erabakiak hartzerakoan, ez soilik euren garapen eta ongizatearengatik, baita gizarte guztiarenarengatik ere, etorkizuneko kostea garestia izan baitaiteke (herritarren eskumen maila murriztea, produktibitate gutxiago, langabezia-tasa handiagoak, babeserako sistemaren koste handiak, hezkuntza eta osasun sistema urritzea, etab.)



# Gure haur eta nerabeen ahotsa:

**Arartekoaren  
Haur eta  
Nerabeen  
Kontseilua**

**a t a l a**





## IV. Atala

# Gure haur eta nerabeen ahotsa: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua

**Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek** 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010eko ekainaren 25ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen lehenengo Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

**Haur eta Nerabeen Kontseiluak** neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta babesteko edo neurri judizialak betetzeko bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarrizketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 12 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko

eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseilua-  
ren funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

2012. urtean aurrez aurreko hiru bilera egin dira, bat Donostian, beste bat Muskizen (Bizkaia) eta beste bat Arartekoaren Gasteizko egoitzan. Bilera presentzialak beti eskola-ordutegitik kanpo egiten dira, eta kontseilu-kideek teknologia berrien erabilerari esker etxean egiten duten lanarekin osatzen dira: proposamenak helbide elektronikoko bidez bidaltzen dituzte, kontseilu-kideekin komunikatzeko foro pribatu bat sortu da, eta abar.

Kontseiluaren funtzionamenduak eskola-egutegiari jarraitzen dio; hala, 2012. urteko azken bilera 2012-2013 ikasturteko lehenengo bilera izan zen. Hori izan zen lehenengo bilera kontseilua berri ostean sartu ziren bost kontseilukide berrientzat ere; izan ere, kontseilua, kontseilu-kideek berek hala iradokita, partzialki berritzen da.

Hurrengo paragrafoetan laburki azalduko dugu 2012ko saioetan egindako lana.

### 2012ko martxoaren 23ko bilera

Donostiako Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean (Aiete jauregia) egindako bileraren gai nagusia izan zen Europako *Rainbow* proiektuaren ikus-entzunezko materialaren analisi eta kontrastea. Proiektu horretan Ararteko erakundeak beste erakunde batzuekin parte hartzen du. Bilera horretan *Farapiko* antropologia aplikatuaren kontsultariak parte hartu zuen. Farapiko Europako proiektu horretan parte hartzen ari den hamar erakundeetako bat da.

*Rainbow* proiektuaren xedea da haurren, nerabeen, gazteen eta irakasleen artean homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko testuak eta ikus-entzunezko materia-

lak sortzea eta zabaltzea, eta European homosexualen eta transexualen eskubideak erabat errespetatu eta aitortuko dituen kultura bat sustatzea. Proiektua burutzeko bigarren urte honetan hainbat jarduera eraman dira aurrera (zehaztasun gehiagorekin aztertze, ikusi txosteneko 5.4 atala). Horietako bat izan da ikus-entzunezko materialaren hautaketa eta edizioa eta klasean edo hezkuntzaren beste eremu batzuetan lan egiteko orientazioak ematen dituen gida praktikoa. Ikus-entzunezko materialen hasierako hautaketa egin ostean, neska-mutilen hainbat talderekin analisia eta probak egiteari ekin zitzaion. Azterlan hori egiteko hautatutako taldeetako bat Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Kontseilua izan zen.

Hala, 2012ko lehenengo bilera horretan, proposatutako material didaktikoen inguruan lan egin zen. Ikus-entzunezko materiala osatzen duten 9 film laburren zati handi bat ikusi ondoren, honako kontu hauen inguruko eztabaida sortu zen: film laboro oro haren hartzaileen adin-tarterako egokia ote zen (6-7 urte, 8-10 urte, 11-14 urte eta 15 urtetik aurrera); film laboro guztiak ulergarriak ote ziren; horietako bakoitzarekin gelan jorra daitezkeen balioak edo gaiak.

Farapik aholkulari guztien ekarpenak bildu eta ikus-entzunezko materialak egiteaz arduratzen zen taldeari helarazi zizkion, baita Europako beste neska-mutil batzuen hausnarketari gehitu ere.

### 2012ko ekainaren 23ko bilera

Urteko bigarren bilera, 2011/2012 ikasturteko azkena, larunbat batean egin zen, goizez eta arratsalde, Muskizen (Bizkaia). [Suspergintza Elkartek](#) dinamizazioan parte hartu zuen. Bileraren gai nagusia teknologia berrien (IKT) erabilera segurua eta arduratsua izan zen.

Bileraren helburua gizarte-sareak erabiltzean dauden hainbat arrisku ikusi, esperimendu eta sentsibilizatzea zen lankidetzajolasen bidez. Jolas-dinamiken bidez gazteek egunerokotasunean gizarte-sareetan eta bizitzan topatzen diren hainbat egoera bizitzea bilatzen zen, teknologien erabilera norberaren erantzukizuna azpimarratuz (norberari buruz eskaintzen den informazioari dagokionez, besteak zaintzeko erantzukizuna, etab.). Azkenik, kontseilu-kideek *online* bizitza benetako bizitzan egiten dugunetik eta harremanak izateko dugun modutik (baloreak, errespetuzko jarrerak, hurbilekoak diren eta ez diren pertsoneri guri buruz eskaintzen diegun informazioa, etab.) bereizi behar ez dela esperimenta zezaten bilatzen genuen.

Dinamika bost fasetan egituratu zen (ezagutza, baieztapena, lankidetzajolasak, komunikazioa eta gatazken konponbidea) eta bertan hainbat lankidetzajolas garatu ziren: Palazzo Paletti, kartoizko irlak, jolasak jausgailuekin, komunikazio dinamikak, etab.

Goiz guztia hartu zuen bileraren zati hori amaitzeko aholkulariek konpromiso sinbolikoa sinatu zuten IKTen erabilera arduratsurako (beste lankidetzajolasak bat erabiliz).

Bazkariaren ostean, Haur eta Nerabeentzako Kontseiluaren ikastaroaren ebaluazioa egin zen eta egun horretan bertan haien ibilbidea amaitu zuten bost aholkulariei agur formala egin zitzaion.

### 2012ko azaroaren 16ko bilera

2012. urteko azken bilera Arartekoaren egoitzan (Gasteiz) egin zen eta bost sailburu berriekin egindako lehenengo hartu-eman izan zen.

Bileran jorratu zen gaia haurren pobrezia izan zen eta Arartekoak gai hori azpimarratu nahi izan du Haurren Eskubideen Hitzarmenaren onarpenaren urteurrena azaroaren 20an ospatzen zela kontuan hartuta. Gai horri heltzeko kontseiluak bilera egitea ospakizunaren ondotik bideratutako jardueretako bat izan zen.

Hala, aholkulariei eskatu zitzaion "erreportari" moduan hurbileneko gure inguruan haurren pobrezia egoerari buruz haien ikuspegia eta haien lagunena helaraz ziezaguten. Gure neska-mutilek egindako lanaren ondorio nagusiak, bai etxean bai lan jardunaldian, honako paragrafo hauetan labur daitezke.

Krisi ekonomikoaren egoerak ez die zuzenean eragiten, behintzat oraingoz, gure kontseilukideei. Hala ere, eurenandik hurbil dagoen errealitatea bihurtu da, larritasun maila ezberdinetan eragina pairatzen ari diren jendea ezagutzen baitute (familiako kideak, lagunak...).

Haiek ez diete uko egin behar izan eskolaz kanpoko jarduerari eta kultura edota kirol jarduerari, eta ez dute aldaketa handirik izan euren aste-sarian, baina familiaren aparteko gastuetan (zinemara joatea, afaltzera ateratzea, etxetik kanpo bazkaltzea...) kontu eta prebentzio handiagoa antzeman dute. Etorkizun zalantzarri baten aurrean kontrol eta aurrezte sentsazioa dago. Gabonetan euste hori gehiago nabaritutako dela uste dute (neurrigabeko kontsumoaren garairik tipikoena izateagatik).

Eskolaren esparruan antzemandako murrizketari buruzko hainbat datu eman dituzte: beka gutxiago, hautazko ikasgaietarako bikoizketa gutxiago (irakasle gutxiago), testuliburuak mailegatzeko programaren edo gelen hornidura teknologikoaren geldiarazpena (arbela elektronikoa, banakako ordenagailuak...)

Etxean gai horren inguruan hitz egiten dela antzeman dute eta elkarrizketetan parte hartzen dute. Gurasoak kezkatuta ikusten dituzte eta, gainera, gauza guztiak kontatzen ez dizkietela uste dute. Uneko egoeran "edonori gerta dakiokela" entzuten dute, prestakuntza maila altu batek edo ibilbide profesional luze batek ez zaituelako langabeziatik eta haren ondorioetatik immunizatzen edo babesten. Batzuei etxean une honetara zergatik eta nola heldu garen azaldu diete eta, kasu askotan, erantzuleak aipatzen dituzte.

Gurasoengan antzematen duten kezka elementu handienetako bat, hain zuzen ere, krisiak etorkizunean euren seme-alabengan izan dezakeen eragina da. Eta kezka horrekin bat egiten dute, 16 urteko ikuspegi optimistatik datozen urteetan "denak hobera egingo duenaren" ustean dezente erlativeztatzen den arren.

Lagunen artean ez da ohiko gaia, izan ere, kasuren batean baten batek eragina pairatzen badu ere, gai pribatutzat jotzen dute, konfiantza asko dagoenean bakarrik aipatzen dena.

Nolanahi ere, iritzi berekoak dira oinarrizko arazoa aberas-tasuna gaizki bananduta dagoela dela esatean.

Ez zaie erraza egiten krisiaren aldeko ondorioak aurkitzea horrenbeste sufrimenduren artean. Hala ere, zera aipatu dute:

- Zarrastelkeriaren nolabaiteko murrizketa eta guztionak diren gauzen kontsumo zentzuzkoagoa (hala nola, sendagaiena).
- Behar duguna baino gehiago kontsumitzen dugunaren kontzientzia handiagoa eta benetan garrantzitsuak diren gauzen balio handiagoa.
- Elkarren arteko laguntzaren garrantzia, familia, auzokideak...
- Albokoen egoerarekiko sentikortasun handiagoa: empatia eta elkartasuna
- Gizarte mugimendu handiagoa

Krisiari aurre egiteko proposamen nagusiak diruaren banaketa hobearekin lotuta daude, bai gastuaren partidei dagokionez (kontu garrantzitsuetara bideratuz, haien ustez, hezkuntza, osasuna eta kultura), bai pertsonen eta maila sozio-ekonomiko ezberdinen arteko banaketari dagokionez (maila ekonomiko altuagokoei murrizketa gehiago eta diru-sarrera txikiagoak dituztenei gutxiago). Atal horretan mailakako zergen inguruko hobekuntza ere aipatu dute.

Azkenik, eta lagunen testuinguru hurbilenean gauzatu dezaketen jardueraren kapituluan, elementurik errepikatuena zera da: edozer gauza egiten duzula ere, bestea ez da lotsatuta edo umiliatuta sentitu behar laguntza jasotzen egoteagatik. Horrek esan nahi du laguntza diskrezioz ematea, nabaritu gabe, aldarrikatu gabe... Gainontzekoari dagokionez, dirurik eskatzen ez duten jarduerak egin daitezke, gauzak parteka daitezke edo dagoeneko erabiltzen ez dituzun eta beste batzuek erabil ditzaketen gauzak uzteko formulak bila daitezke.





# Haurren eskubideak

errespetatzeko kultura sortzen  
laguntzeko jarduerak

a t a l a



## V. Atala

# Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak

### 1.

#### Gizarte-eragileekiko lankidetzak

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeen Bulegoak, bere jarduera-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haien eskubideak jendarteratuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera arazotsuetan dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzak-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan, informazio-eskaerak eta abar. Horrela, bilerak egin ditugu eta parte hartu dugu UNICEF, [Save the Children](#) eta [Haurren Erakunde Plataformaren](#) foroetan edota topaketa publikoetan. Horiek guztiek haurren eta nerabeen errealitatearen inguruan elkar aberastea dakar, baita lankidetzarako ildoak, arloak eta proiektu zehatzak aztertzea ere.

Ezintasunen bat duten pertsonen arloan, ezintasun, mendekotasun, buru-osasun eta gaixotasun kronikoen arloetako aholkulari koordinatzaileek, Haur eta Nerabeentzako Bulegoko Aholkulari Batzordeko partaideak baitira, aldizka harremanak izaten dituzte sektore-erakundeekin. Horrela, aurtan hainbat bilera egin dira [ONCE](#), [Elkartean](#), [FEVAPAS](#), [FEVAS](#), [Euskal Gorra](#), [APSE](#), [FEDEFES](#), [OME](#), [Sindrome de Dravet](#) fundazioarekin eta [APREVASekin](#). Aztertutako egoera edo arazoren bat haur eta nerabeengan bereziki agertzen bada edo haiengan eragin berezia badu, elkarlanean aritzen gara, arazoen konponbideari haurren ikuspegi gehituz.

Jakina denez, Eusko Jaurlaritzak proposatu du adin txikikoen adopzio kasuetan foru aldundiek erabili beharreko

prozedura arautzen duen dekretua aldatze. Proposamen horrek harremanetan jarraiaz gaitu *Ume alai* familia adoptatzaileen elkartearekin. Horren antzera, 131/2008 Dekretuan ezarritakoari jarraiki babesik gabe dauden adin txikikoentzako egoitza-baliabideetan baldintza materialak eta funtzionalak egokitzeko aldi iragankorra bukatu izanak bide eman digu Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoarekin harremanetan hasteko.

Azkenik, iaz bezala, aurreko kapituluan aipatu dugun Haur eta Nerabeen Kontseilua berritzeko prozesuaren ondorioz, berritzeguneekin, zuzendaritzekin, irakasleekin eta gurasoekin ditugun harremanak berritu edo ezarri behar izan ditugu; modu berean, foroetan, jardunaldietan eta biltzarretan parte hartzearen ondorioz, harremanetan egon gara haurren arloko beste erakunde batzuekin, hala nola [Vivir sin Drogas fundazioarekin](#) edo [FAPMIrekin](#).

### 2.

#### Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzan aritzeko espazioak eta uneak. Solaskidetzak batzuk honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako sailburuordea eta Goi Ikuskaritzako zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzako Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko zuzendaria.

- Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria.
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako ahalduna eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- Hiru foru aldundien Gizartekintza / Gizarte Politika / Gizarte Zerbitzuak sailtako haurren zerbitzuetako arduradunak (+ zenbait zerbitzu, programa eta baliabidetako arduradunak).
- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetako zuzendaria.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuko arduraduna (+ zenbait programa eta baliabidetako arduradunak).
- Osoko Balorazio Forentseko Gasteizko Unitatea.
- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzaren Industria Saileko Berriztatzeko Zuzendaritza (adin txikikoek sarean segurtasuna eta konfiantza izateko kulturarekin konprometituta dauden eragile publiko eta pribatuen Sarea)
- Marokoko kontsula.
- Gasteizko familia epaitegiak.
- Gasteizko Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Adinekoen Arloko zuzendaria. (+ Gizarteratzeko Zerbitzuko eta Haur eta Familien Zerbitzuko arduradunak)
- Gasteizko Udalaren Gazteria Ataleko arduraduna.

Bilera horietako batzuen esparruan edo hain zuzen ere horien ondorioz, Arartekoak lehen eskutik ezagutu ahal izan ditu politika publikoak eraginkor bihurtzeko plan, protokolo, estrategia eta bestelako proposamenak; horrez gainera, erakunde eskudunei iritzia eskatu ahal izan die egoera kezkarri jakin batzuen inguruan —arretaren premia duten behar gisa azaldu zaizkie—, eta esku hartzean ezinbesteko eskubideak bermatu behar direla zehaztu.

Politika publikoetan herritarren eskubideak hobeto babestu eta zaintzeko lankidetzaz-ildo horretan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa Eskolako Bizikidetasunerako Behatoki kide da (horrek partaidetza egonkorra dakar berekin), eta adin txikikoek sarean segurtasuna eta konfiantza izateko kulturarekin konprometituta dauden eragile publiko eta pribatuen Sareko kide ere bai. Etengabe parte hartzen du, Aholku Batzordeko partaide gisa, ikerketa-proiektu honetan: *Euskal Autonomia Erkidegoan babesik gabeko haurrekin jarduten duten eskola- eta gizarte-hezkuntzako profesionalen arteko harremanak ulertzeko modua*. EHUko Didaktika eta Eskola Antolaketa Sailak zuzenduta, bertan parte hartzen dute Euskal Herriko Gizarte Hezitzaileen Elkargoak eta Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Partzuergoak.

Aurreko urteetako ildotik, oso harreman ona dugu herriaren **beste defentsa-bulego** batzuetako haur eta nerabeen sailekin, batez ere [Kataluniako Síndic de Greugesekoekin](#) eta [Andaluziako Herriaren Defendatzailekoekin](#). Horiekin maiz trukutzen ditugu informazioa, irizpideak eta iritzia.

### 3.

## Ekitaldietan parte-hartzea

Hala elkarte eta erakundeekin izandako elkarlanaren esparruan, nola Arartekoak berak gidatu dituelako, Arartekoak berak edo erakundeko langileek adingabeen gaineko foro eta topaketetan esku hartu dute, bai gure erkidegoan eta bai gure erkidegotik kanpo. 2012n izandako parte-hartze esanguratsuenak, dokumentu honetan orain arte aipatu gabek, honako hauek izan dira:

- *Erkidegoko praktikan arrisku handiko familiekin esku hartzeko estrategiak*, Bilbao.
- *Euskal eskola, arrazakeriaren aurkako hezkuntzaren erronkaren aurrean*. Jardunaldia, Bilbao.
- *Ikasle ijitoak: eskolazetik eskolako arrakastara*. Jardunaldia, Bilbao.
- *Haurtzaroa, generoa eta laguntza humanitarioa: eskubideetan oinarrituz Palestinako lurralde okupatuetako biztanleria zaurgarrienari zuzendutako begirada*. Jardunaldia, Bilbao.
- *Eskubideak krisian: Haurren Eskubideen Batzordea haurren eskubideak babesteko oinarritzko mekanismo gisa*, Madril.
- *Adingabeen, emakumeen eta hiruigarren adinekoen aurkako tratu txarrak zigor arloaren eta arlo zibila ikus-puntutik*, Vitoria-Gasteiz.
- *AFN-Hren IV. Kongresu Nazionala*, Donostia-San Sebastián.
- *Haurren minbiziaren kontrako VI. Gala*, Bilbao.
- *Gorabideren 50. urteurrena*, Bilbao.
- *Genero-indarkerian ez dago biktima bat soilik*. Euskadiko txostenaren aurkezpena, Bilbao.
- *Emakumeen eta neskatuen eskubideak*. Nazio Batuen Hitzaldia, Amán (Jordania)
- *Familia-politikak: gizarte-kohesioa lortzeko inbertsioa biltzarra*, Vitoria-Gasteiz.
- *Ikerketaren eta praktikaren arteko zubiak eraikitzen*. Tratu txarrak jasotako haurren nazioarteko XI. Biltzarra, Oviedo.
- *Gizarte zerbitzuak, krisia eta irtenbideak*. Nazioarteko mintegia, Donostia-San Sebastián.
- *Dibertsitate funtzionala duten emakumeek eta neskek jasaten duten genero indarkeriari buruzko II. Jardunaldiak*, Vitoria-Gasteiz.
- *Pobreziak eta krisi ekonomikoak Euskadiko haurren bizimoduan duten eraginaren azterlana egiteko eztabaidataldea*, Bilbao.
- *Adin txikikoak eta alkohola: droga-menpekotasunen prebentzioa hackeatzen*. Topaketa, Portugalete.
- *Espainiako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aplikazioaren jarraipen Jardunaldiak: Haurren Eskubideen Batzordeak 2010ean Espainiari Azken Oharrak egin eta bi urtera egindako balorazioa*, Madril.



## 4.

## Material didaktikoak eta ikastetxeekiko kolaborazioa

Erakunde hau, sortu zenez geroztiko hogeitau urte luze hauetan, etengabe aritu da haurrak beren eskubideen inguruan sentsibilizatzeko eta ezagutarazteko material didaktikoak egiten eta zabaltzen.

Neska-mutikoak izan dira, berriz ere, Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko jardueretako mezuaren hartzaile nagusi. Aurten bat egin nahi izan dugu haurren pobrezia, baita gure neska-mutilena ere, dezente hazi dela ohartarazten dabiltzan ahots guztiekin. “Begiratu zure inguruan...” lemarekin, neska-mutilei gonbita luzatu nahi izan diegu beren inguruan begiratzeko, arretaz so egiteko, errealitate bidegabe batekiko sentikor bihurtzeko, agian beraien kideetako batzuk errealitate hori bizitzen arituko dira-eta. Baina “Zure eskubideak, bere eskubideak” adierazten dugunean zerbait egiteko gonbita ere bada; horrela aldarrikatzen dugu guztiok bizimodu duina izateko dugun eskubidea eta, bidenabar, elkarri laguntzen diogu eta elkartasunez partekatzen dugu daukaguna eta garena.

Kartelekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hezkuntzako ikastetxe guztiek jaso dute “Eskubideen uhartea” webarekin harremanetan jartzen dituen orri-markagailu ezaguna. Hor aurkitzen dituzte, ohiko edukiak ez ezik (haurren eskubideak sustatu eta defendatzeko jokoak, bideoak, ipuinak, loturak...), parte hartzeko berariazko gune bat ere, haurrek adieraz diezaguten zer eta nola ikusten duten pobrezia beraien inguruan, krisia beraiengan nola eragiten ari den, beren ustez zer gauza on sortzen ari den, beraiek zer egin dezaketen...

Jakina denez, **Rainbow proiektuan** (ingelesezko sigla: Rights Against Intolerance: Building an Open-minded World/ Intolerantziaren aurkako eskubideak: aurreiritzirik gabeko mundu bat eraikitzen) parte hartzen ari gara iaztik, Europako zazpi herrialdeetako 9 erakunde publiko eta pribatuarekin batera. Proiektu horren emaitza gisa, 2012an argitaratu dira proposamen horretan aurreikusitako material didaktikoak, homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko eta Europan homosexualen eta transexualen eskubideak erabat errespetatu eta aitortuko dituen kultura bat sustatzeko. Film laburrak dira, adin ezberdinetarako sailkatuak, gida didaktikoa eta guzti. Gida horrek film bakoitzaren helburuak, ezaugarriak eta edukia azaltzen dizkio erabiliko duen hezitzaileari, eta, aldi berean, jarduera osagarriak eta sakontzeko jarduerak proposatzen ditu. Material horien guztien jendaurreko aurkezpena eta zabalkundea 2013ko lehen seihilekoan egiteko asmoa dugu.

Rainbow proiektuaren barruan, 2011. urtea bukatzeko, urte amaieran, film laburren lehiaketa batean parte hartzera gonbidatu genituen bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta heziketa-ziklo artistikoetako ikastetxeak. Lehiaketan Europako 15 eta 19 urte bitarteko nerabe eta gazteek egindako film laburrak aurkeztu ziren, **LGTB** gaiaren inguruan. Pozik adierazten dugu gazte basauriar batek irabazi zuela lehiaketa,

Love izenburuko film laburrarekin, eta Milango Mix jaialdian jaso ahal izan zuela saria, familia osoa aldean zuela.

Gogoratuko duzuen bezala, Rainbow proiektuak bi urte iraun zuen eta 2013. urtetik aurrera Rainbow HAS izenekoan izango du jarraipena (Eskubideak aliantzen bitartez: etxean eta eskolan berritzen eta sareak sortzen), izan ere, proiektu horrek berriro Europako Batzordearen Justiziako Zuzendaritza Nagusiaren konfiantza merezi izan du. Aurrekoak bezalaxe, haurtzarotik hasita sexu-aniztasunera irekitako hezkuntza lortzea du helburu proiektu berri honek, sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik bereizkeria pairatzeko modu guztiak prebenitu eta haiei aurka egin ahal izateko.

Proiektu hori Ararteko erakundeak koordinatuko du eta Europako 8 herrialdeetako 13 erakundek parte hartuko dute (Alemania, Belgika, Bulgaria, Espainia –Katalunia eta Euskadi- Holanda, Italia, Polonia eta Erresuma Batua). 2013-2014 biurtekoan zehar garatuko da eta alderdi hau azpimarratu nahi du: sexu-aniztasunari dagokionez (sexu-orientazioari eta genero-identitateari lotutako aniztasuna), haurren eta nerabeen eskubideen egoeraren azterketa eta hobekuntza hezkuntza eremuan, zentzu zabalean, hau da, hezkuntza erakundeak, irakasleak zein mota guztietako familien elkarrekin barne hartuz. Xedea haurtzarotik aniztasun sexualarekiko hezkuntza irekia jasotzea da, sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen ondoriozko bazterkeria edo jazarpena (edozein formatan, hau da, jarrera homofobo edo transfoboak) saihesteko eta horren aurka egiteko gai dena.

Proiektu hori abian jartzeko, Ararteko erakundeak herrialde parte hartzaileetako erakunde parte hartzaileak (unibertsitateak, ikerketa soziologiko eta pedagogikoak burutzen dituzten taldeak, udalak, haur hezkuntza sustatzeko elkarrekin, LGTB pertsonen eskubideen aldeko elkarrekin eta guraso bakarreko familien elkarrekin) koordinatuko ditu batera lan egin dezaten bi urtetan zehar, ondorengo **lan ildoak** jarraituz honako xede hauek lortze aldera:

- Europako familietan gai horren inguruan dauden eztabaida ezberdinak ikertzea eta bazterkeriaren aurkako zerbitzuen edo LGTB pertsona eta adingabeentzako zuzeneko babeserako zerbitzuen alorrean Europako praktikarik onenak aztertzea.
- Nazio mailako eta nazioarteko mintegiak antolatzea agente publiko zein pribatuarekin: hezkuntza erakundeak eta familia elkarrekin, irakasleak eta LGTBen elkarrekin edo hezkuntza esparruan eragin zuzena duten beste motatako elkarrekin.
- Prestakuntza eta sentsibilizazio lantegiak antolatzea irakasleekin eta familia elkarrekin edo ikasleen gurasoekin.
- Dagoeneko dauden elkarrekin egituren bitartez, Europa mailako sareak sortzea eragina duten estrategiak finkatzea aldera, hezkuntza esparruan erantzukizuna duten agenteen (politikan edo hezkuntzan lanean diharduten pertsonak, komunikabideak, etab.) kontzientzia-azpimarratzen duen agenda edo ibilbide-orri baten bidez.
- Proiektuaren emaitzak hedatzea agente guztien artean ondorengo aplikazioan ustezko eragina izan dezaten.

Proiektu hori amaitzen denean eta aipatutako lan ildoekin bat eginez, laburbilduz, hauek izango dira lortu nahi diren **emaitza nagusiak**:

- Familien artean gaiaren inguruan gailentzen diren eztabaiden gaineko ikerketaren emaitzak jasotzen dituzten hainbat herrialdetako txostenak, baita praktikarik onenak jasotzen dituztenak ere. Halaber, alor zehatz horretan dauden baliabideen Europako mapa gaineratzea espero dugu.
- Herrialde bakoitzeko guraso bakarreko familien elkarrean, LGTB adingabeak barne hartzen dituzten familien elkarrean eta parte hartu duten, parte hartzen ari diren edo hezkuntza eremuan LGTB pertsonen eskubideen gaia jorratu nahi duten gainontzeko elkarrean esperientziei lotutako datuak biltzen dituen txostena.
- Guraso bakarreko familien elkarteak, LGTB adingabeak barne hartzen dituzten familien elkarteak eta familien beste elkarte batzuk batzen dituen Europako sare bat sortzea. Elkarte horiek etorkizunean gai horri lotutako eragin handiko estrategiei buruzko agendari atxikitzeko prest egon behar dira (proiektua behin amaituta).
- Haurren eta nerabeen sexu-aniztasunerako eskubidea babesteko lan egin nahi duten helduentzako (irakasleak, gurasoak, baita herri-administrazioetako langile teknikoak ere) gomendio zehatzak jasotzen dituen presakuntza tresna bat eratzea.
- Kontzientziazioa eta eragina (lobbying) hizpide dituzten ekintzak diseinatzea, hainbat familien elkarteekin lankidetzan.

Laburbilduz, 2013. urtean Euskadin egingo den talde osoaren lehenengo bileraren bitartez abian jarriko den proiektu horren garapenaren oinarria gizarte aliantza sendoak ezartzean datza eta xedea herritarren eskubideen alorrean aurrerapausoak ematea da: elkarrean, erakundeen eta hezkuntzaren inguru formalaren arteko aliantzak, gehiengoaren interesak ordezkatzen dituzten elkarrean (ikasleen familien edo gurasoen elkarteak) eta gutxiengoaren eskubideak defendatzen dituzten elkarrean (guraso bakarreko familien elkarteak eta LGTB pertsonen eskubideen babeserako elkarteak) arteko aliantzak. Erakunde honentzat erronka bat izateaz gain, Europa mailan aliantzen prozesu baten buru izateko aukera ezin hobea da. Horri esker, beste herrialde batzuen parean aurrera egingo dugu eta gure elkarrean eta erakundearen sareak konektatuko ditugu haurren, nerabeen eta gazteen aniztasun afektibo-sexuale-rako eskubideen defentsaren alde.

## 5.

### Adingabeentzako web gunea

2011ko otsailean jendaurrean aurkeztu genuen *Eskubideen uhartea* web gunea.

Lehen Hezkuntzako haurrentzako web atari bat da (6 eta 12 urte bitartekoentzat). Bi helburu ditu: batetik, haurrak erakundera gerturatu nahi ditugu, giza eskubideen eta haurren eskubideen inguruko erreferente gisa ezagut dezaten —modu hurbilago eta eskuragarriago batean—; eta, bestetik, haurrak eurak beren eskubideen gainean sentsibilizatu nahi ditugu eta eskubide horien berri zabaldu.

2012an hezkuntza-eduki berriak gehitu zaizkie web orrialdean genituen atalei: *Itsasargia*, neska-mutiek beren eskubideak ezagutzeko tokia; *botila*, haurren eskubideen mapa daukana, ipuin bizidunekin eta e-bookekin; *zurezko upela* edo SOS gunea, non haurrek informazio interesgarria aurki dezaketen, laguntza behar baldin badute; *arrainontzia*, parte-hartzera animatzeko tokia; estekak eta jokoak; eta *itsaspekoa*, gurasoei eta hezkuntzako profesionali bereziki zuzendutako orrialdeko gune bakarra. Gune horretan atal berri bat jarri da abian, udalerriek partaidetza eta haurren eskubideen kultura susta dezaten.

Eusko Jaurlaritzaren *Hezkuntza Sailak* Eskola 2.0ko Eskola Bakegune web orrialderako esteka sartu zuen iaz; horregatik, EAEko lehen hezkuntzako ikasle guztiak eskuragarri dute oraindik ere.

Alabaina, aurreko orrialdea ez dute Euskadiko herritarrek bakarrik bisitatu, bisita ugari jaso baitira beste autonomia erkidego eta herrialde batzuetatik. Orrialdera egindako bisiten erdia, gutxi gorabehera, Espainiatik kanpokoak izan dira eta Kolonbia nagusitzen da beste herrialde batzuen artean (Txile, Argentina, Mexiko eta Peru). Egiaz, Bogotatik bisitatu da gehien orrialdea, eta horren ondoren, Bilbo, Madril, Bartzelona, Txileko Santiago, Coruña, Sevilla eta Donostiatik.

2012ko martxotik, 14.446 erabiltzaile sartu dira web orrialdean, eta horietatik %27 berriro ere orria bisitatu dute beste zenbaitetan. Bisitari gehieneko egunak azaroaren 20aren, hau da, Haurren Eskubideen Hitzarmena onartu zen egunaren urtemugaren ingurukoak izan ziren.

Gehien bisitatu diren edukiei dagokionez, jokoekin eta estekekin lotutakoak izan direla esan dezakegu, baita haurren eskubideei buruzko informazio zehatza ematen duten atalak ere: eskubide zehatzekin zerikusia dutenak -historia bizien bitartez- eta Hitzarmenarekin lotutakoak.



Haur eta nerabeen eskubideen egoera  
**baloratzea**

**W**

**a**

**a t a l a**



## VI. Atala

# Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea

Aurreko kapitulu guztietan aipaturiko problematika, premia, erantzun eta baliabide guztiak orri gutxi batzuetan biltzeak dakarren mugarekin, interes gorenkotzat dauzka-gun hainbat alderdi nabarmentzeko asmoz heldu diogu atal honi, eta, kasuan-kasuan, txostena astiroago irakurtzera animatuko dugu.

2012. urtean bideratu diren kexa-espeditetetatik 300etan aipatu dira berariaz haurrak eta nerabeak eragindako pertsona gisa, hau da, alde batek hala eskatuta erakundeak izapidetutako espeditetetatik %10 baino gehiago. Bideratutako kexen argitan neska-mutilen eskubideen egoerari buruzko azken gogoeta egiteko, kontuan hartu behar dira gizarte-bazterketaren kontra borrokatzeko tresnekin zerkusua duten eta zenbait familiak egin dituzten 1.010 kexak, familia horietan adin txikikoak baitaude, ehuneko handi batean. Ikerketa askotan ikusi denez, baliabide ekonomiko urriak eta ondasun materialak eskuratzeko aukerarik eza nolabait lotuta daude zenbait eskubide -hezkuntza eta osasuna, besteak beste- berdintasunean baliatzeko zailtasunekin, baita ere familia- eta gizarte-harremanetan sortzen dituzten ondorio larriago edo arinagoekin.

Azkenik, bulegoak haurren eta nerabeen eskubideen inguruan jazo daitezkeen egoeren gainean bideratutako jarduerak ofiziozko 13 espeditetetan jaso da, alegia, erakundearen nahiaren ondotik hasitakoetan, baita EAEko **haurren pobrezia**ren egoeraren analisi zehatz baten azterlanaren prestaketa ere.

Hain zuzen, azterlan horren bidez agerian jarritako egoerak txosten honetan gailendu beharreko lehenengo ondoriara garamatza: krisia geroz eta EAEko haur eta nerabe gehiagorengan edukitzen ari den eragina aipatu, ohartarazi. Nabarmendu, beste azterlan batzuk berretsi duten moduan, gabezia materialek haurrak etorkizunean desabantaila eta zaurkortasun egoeran utziko dituztela, haien hezkuntza, gizarte eta lan garapenari eragin diezaiokeela kontuan hartuta.

Horregatik, funtsezkoa da haurrak kontuan hartzea erabakiak hartzerakoan gure gizarteak bizi izan behar dituen erronken aurrean. Eta ez bakarrik haien garapen eta ongizateagatik, baita gizartearenagatik (bere osotasunean) ere, harentzat etorkizuneko kostua handia izan baitaiteke (herritarren eskumen-mailaren murrizketa, produktibitate txikiagoa, langabezia-tasa handiagoak, gizarte kohesio ahula, babes sistemaren kostu handiak, hezkuntza eta osasun sistemaren murrizketa, etab.). Hala, iruditzen zaigu haurrentzako politiketan gizarte gastuari lehentasuna eman behar zaiola eta aurrekontuetan jazotako murrizketek haurren esparruari eragiten ez diotela bermatu behar dela. Horretarako, botere publikoei gogora ekarri behar zaie, beste urtebetez, haurrei babes berezia emateko betebeharra dutela eta batzuetan zuenean haiei eta beste batzuetan haien familiei bideratutako gizarte prestazioak, bai ekonomikoak bai zerbitzuetakoak, haurren pobrezia aurre egiteko oinarritzko baliabideak direla.

Gure analisiarekin jarraituz eta izapidetutako kexen argitan, aurten kudeatutako bolumenaren ondotik berrets dezakegu **hezkuntzaren** esparrua dela zama gehien duen eremua, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduerak guztiekin alderatuz gero.

Ikasleak onartzeko prozesuari buruzko kexak behin eta berriro egoteak eragiten du beste urtebetez indarrean egon dadila, gure ustez, erakunde honek hezkuntza-administrazioari mahaigaineratzen dion gomendioa, alegia, hezkuntza-administrazioak kontu handia izan behar du ikasleak onartzeko prozesuak kudeatzean, plaza nahikorik ez dagoen kasuetarako ezarritako lehentasuneko irizpideak erabat aplikatzen direla egiaztatuz eta beharrezkoak diren helburuetan -famiariaren eta laneko beharrik bateratzea, adibidez- lagundu ezin duten beste horien aplikazioa berraztertuz edo berriz hausnartuz.

Hori horrela, azpimarratu nahi dugu lurralde batzordeak direnean eskolatzeko proposamenak egiten dituztenak,

hezkuntza-administrazioak bermatu beharko duela zentroetan finantzaketa baldintzek, baita eskola-garraio, -jantoki eta -materialerako familiei emandako laguntzek ere, bidea ematen dutela herritar guztiak unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-ikastetxe guztietarako sarbidea izan dezaten, adierazi den moduan, eta are gehiago une hauetan, hain zuzen, hainbat proposamenek dakartzaten eskolatzegastuak gain hartzeko zenbait familiek zailtasun ekonomikoak dituztela esan dutenean.

Halaber, hezkuntza etxean ematea (homeschooling) erabaki duten familia batzuetan antzemandako ondorioak aipatu behar ditugu. Horri dagokionez, kezkatzen gaitu halako egoeren ondotik bideratutako eskolatzegastuak behin-behineko ez betetzea tartean dauden adingabeen zaintza galdu edo kentzeko aukerarekin lotzeak.

Oro har, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eman dizkigun datuek aukera eman digute positibotzat jotzeko hezkuntza-eskaintzaren etengabeko hobekuntzarako ezarritako adierazleak betetzea. Dena den, zailtasunik handienek zero eta hiru urteko hasierako tartean egoten jarraitzen dute, batez ere, bi urteko gelen eskaintzan.

Lehenengo aldi horri dagokionez, Hezkuntza Sailak horren inguruan egindako diagnosiaren ziozko ondorioek, egungo eskaintza egokitzen laguntzeaz gain, estrategiak ezartzeko aukera emango dutelakoan gaude, hain zuzen, azken horiei jarraiki hezkuntza-aldi horretako hainbat kontu eztabaidagarri jorratzeko (adibidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeetako bi urteko geletarako langile laguntzaileak egotea).

Edozelan ere, uste dugu beharrezkoa dela hezkuntza-arduradunek gain hartutako ildo onartzea plangintza demokratikoa hezkuntza-komunitatearen ordezkaritza guztien partaidetzarekin ahalbidetu eta errazteko, nabarmendutako kexa batzuek agerian jartzen duten moduan. Arduradun berriek ildo horretatik jardungo dutelakoan gaude.

Horrez gain, zerbitzu osagarrien konfigurazioan –adibidez, jantokia–, ahal den neurrian, familia erabiltzaileen artean geroz eta gehiago zabalduko eskaera berriak aintzat har daitezkeen animatu nahi dugu –adibidez, halal dieta eskatzen duten horien kasua–.

2012. urtean Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategiakoa abian jarri dela ikusi dugu. Plan horretan, azken batean, ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko zenbait helburu, xede eta ekintza estrategiko ezartzen dira.

Plan horren ebaluazio eta jarraipenaren bitartez kexa batzuk eragin dituzten egoerak pairatzen dituzten ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzuna hobetzen lagunduko dutelakoan dago erakunde hau –adibidez gaitasun benetan handiak dituzten ikasleek kasua, baita arreta faltaren nahasmenduak dituzten ikasleek ere–.

Hori horrela, berriz ere, eskola-ordutegian zehar osasun-premia berezietan emandako erantzuna bizkortzeko premia azpimarratzen dugu.

Azkenik, eskola-bizikidetzari dagokionez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerdiaren artean gertatzen diren tratu txarrekin lotutako episodio posible guztiak ahalik eta arintasun, eraginkortasun eta segurtasun handienaz

jorratzeko egiten ari den ahalegina positibotzat jotzen badugu ere, nabarmendu nahi dugu jarduera burokratizatuak saihestu behar direla eta tratu txarren errealitatearen diagnosi ona lortu, biktimei laguntza, babeseta eta segurtasuna eman eta eragindako familiekin konfiantzazko komunikazio egokia izatea xede duten helburu saihestezinei behar bezala erantzuteko bidea emango duten gida berrien aplikazio sistematikoa eta eraginkorra sakondu behar dela.

Babesik gabeko egoeran dauden haurrentzako **gizarte zerbitzuen** esparruari dagokionez, lehenengo adierazi behar dugu beharrezkoa dela babesik gabeko egoera arin eta neurrikoei erantzuna emateaz arduratzen diren udaleko gizarte zerbitzuetan seme-alabak dituzten familien arreta muturreraino eramatea. Izan ere, ahots guztiak agerian jarri dute zailtasun ekonomikoko une latz hauetan seme-alabak zaintzeko trabak ugaritzen ari direla euskal etxeetan. Eta ez bakarrik oinarrizko premia materialei erantzuna emateagatik –hori ere aintzat hartu beharreko alderdia da–, baita gurasoen ahalmenak baliatzerakoan egoera horiek dakartzaten estres eta estutasun egoerengatik ere. Hala, babesgabeziaren ondoriozko larrienak argi eta garbi desaktibatuz edo minimizatuz haurren garapen-esparruko ongizate eta kohesio baldintzen inguruan zailtasun hasiberrietan laguntzak eta eremu naturaleko eta komunitarioko esku-hartzeak duen balio ordainezina azpimarratzen dugu.

Entzuna izateko eskubidea betetzeari dagokionez, beharrezkoa da arreta muturreraino eramatea gizarte zerbitzuen sistemako arreta jasotzen duten haurren eta nerabeen ahotsa egon dadin eta kontuan har dadin, haren egoera pertsonala eta familiara aztertzerakoan, babeserako neurri egokienak mahaigaineratzerakoan, bisiten erregimena arautzerakoan, haren egoera aldi-aldi berrikus-terakoan, betiere, adingabearentzat onena den ikuspegitik eta hari lehentasuna emanaz beste edozein interesen gainetik.

Aurten inoiz baino gehiago gailendu nahi dugu babesik gabeko egoeran dauden adingabeen egoitza-baliabideetako zaintza eta segurtasun zerbitzuetako jarduera protokoloa egiteko ezinbesteko premia, langile horiek zentroetan burutzen duten eginkizunaren gaineko hausnarketa sakon batekin eta, ondorioz, aipatu baliabideen kokapen, esku-hartze eta kontrolaren gainekoarekin batera.

Beste behin nabarmendu nahi dugu emantzipazio prozesuetan –horiek guztiak banakako hezkuntza programan artikulatuak– ezaugarri bereziak kontuan har daitezela, haurren baliabidetik ateratzeko kontua aurretik jorratu da-dila eta benetako autonomia eskuratu arte beharrezkoa izan daitekeen babeseta jaso dezatela beste programa batzuen eskutik, babes honetan hezkuntza laguntza barne hartuta.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan, dokumentazio kasu orotan entregaren bermeak gehitzea plan honi, tutoretzarekin amaitu dela adieraziz, baita adin nagusitasuna xedatzen duen fiskaltzaren dekretu baten ziozkoa denean ere, errekurtsioa jar daitekeela eta hori egiteko bideen eta epeen berri berriaz emango duen ebazpen administratiboa.

Horrez gain, haurren foru zerbitzuei eskatzen diegu kasu guztietan egin dezatela salbuespeneko inguruabarrengana

tiko bizileku baimenaren eskaerarako gomendio txostena; txostenak modu deskribatzailean jaso ditzala modu objektiboan har daitezkeen elementuak eta alde dagoen edo alde ez dagoen azken jarrera baina beti arrazoitua.

Haurren babeserako sistematik ateratzeko prozesuari emandako arretak ez digu ahaztarazi behar oraindik bakarrik dauden adingabe atzerritarrei premiaz harrera egiteko protokolo komun bat eduki gabe jarraitzen dugula. Aurten aurrerapen garrantzitsuak jazo direla badirudi ere, premia ezinbestekoa da eta atzerapena deigarria. Ildo horretan, berriro azpimarratzen dugu protokoloak argi utzi behar duela zertan datzan berehalako arreta eta nork eman behar duen, baita proba medikoen bitartez adina zehazteko prozesu bat hasi behar denean ere, neska-mutil horien behar bezalako laguntza bermatuz. Halaber, adingabe horiei ofiziozko abokatu-laguntza ematen zaiela bermatu beharko da eta proben emaitzen aurka jarri ahal izateko berme juridikoak eskaini eta, hala badagokio, emaitza berrikusteko proba osagarriak eskatu.

Eta, amaitzeko, bi aipamen: lehenengoa, familia-harrera eta erregulazioaren inguruan urratsak emateko premia azpimarratzea hizpide dituen, hain zuzen, orain arte familia-harreraren gainean definitu gabe dauden alderdiak argituz (familia-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak, baldintzak, eskubide horiek bermatzen dituzten urratsak eta prozedurak, etab.); bigarrena, adopzio-hartzaileen egokitasuna eta adopzioaren osteko laguntza baloratzeko prozesuen inguruan hausnarketa sakona egiteko beharra, porrot aukera minimizatzeko azken xedearekin.

**Familia-politikari** dagokionez, 2011n adierazitakoa berresten dugu: euskal botere publikoek, oro har, jabetu behar dute garrantzitsua dela familientzako laguntzak gehitzea; izan ere, beharrezko babesa ematen dute premia-egoeretan, eta, alde horretatik, kasu askotan osatu eta ordezkatzan dituzte ongizate-estatuaren funtzioak. Herritarren kekek eta elkartegintza-sareak agerrarazi dute familientzako laguntza publikoak ugaritzeko behar hori, batez ere zailtasun bereziak dituztenentzat, hala nola familia ugarientzat, guraso bakarreko familientzat eta beren baitan mendekotasun-edo gaixotasun-egoera bereziren bat duten kideak dituzten familientzat. Uste dugu, gaur egun dauden zuzeneko laguntzez gain, beharrezkoa dela gaur egungo zerga-sistema berrikustea ere, familia-egoera guztietarako laguntza publikoa egituratzeko benetako tresna bihur dadin.

Nolanahi ere, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak aipatzen dituen familia ahulenak zeintzuk diren argiago zehaztu behar dela uste dugu. Gaur egun talde horiek zehazturik ez egoteak, guraso bakarreko familiekin gertatzen den bezala, bide ematen dio horien babesgabetasunari, kaltetu suertatzen baitira har litzaketan prestazioei dagokionez. Espero dugu Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana indarraldian dagoen aldi behin betiko argitzea hori eta ahulen diren familia horiei bereziki onura emateko neurriak ezartzea.

Beste urtebetez, administrazio guztiek guraso bakarreko familiei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei jartzen dizkieten traba formalak edo administratiboak indargabetzeko premia azpimarratu behar dugu, baita ama lesbianen egoera behin betiko argitzeko beharra ere semetasunaren

edo alabatasunaren onarpenari dagokionez ama biologikoaren gaia dela-eta.

Horrez gain, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaben diagnosian eta onarpenean aurrerapausoak eskatzen jarraitzen dugu, momentuz ez baitira indarkeria horren zuzeneko biktimatzat jotzen fisikoki erasotzen ez zaienean. Egoeraren inguruan kontzientziazio geroz eta handiagoa badago ere, oraindik ere asko dago egiteke haurren eskubideen ikuspegitik behar bezalako erantzuna bermatzeko. Aurten EAerako Save the Children erakundeak egindako proposamenak eta gomendioak abiapuntu ona izan daitezke eremu honetan urratsak irmo emateko.

Familia elkarguneei dagokionez, eta horren harira emandako gomendio orokorrean jasotakoaren ildotik, beharrezko da familia elkarguneei eta epaitegi deribatzaileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea, baita epaitegietakoa eskaerei behar bezalako garrantzia ematea ere.

**Osasunaren** esparruan, 2012. urte honetan 18 urtetik bererako atzerritar guztien osasun arreta publikorako eskubidea argitu da, baita ikasketengatik aldi baterako egindako harreretan ere.

Gaixotasun kronikoa duten pertsonen beharretara egokitu, osasunean emaitza hobea lortu eta eraginkortasun gehiagorekin egite aldera osasun sistema eraldatzeko egiten ari den ahalegina azpimarratzen dugu. Kronikotasunaren estrategiaren garapenean aurrerapausoak antzeman ditugu, baita EAEn Gaixotasun Arraroen Estrategiaren Ekintza Planaren garapen hasiberria ere. Horrela bada, diagnosi goiztiarraren esparruan aurrerapausoak egon dira Jaioberrientzako Baheketa Programan 5 gaixotasun berri gaineratzean, baina oraindik ere bide luzea igaro beharra dago prebalentzia baxuko beste gaixotasun edo gaitzen kasuan, hala nola, Dravet sindromearen edo linfedemaren kasuan.

Bestalde, buruko osasun arazoak dituzten haurrekiko arretak erakunde hau kezkatzen jarraitzen du. Azken urteetan egindako aurrerapauso nabarmenak onartu arren, oraindik ere tarte bat dago gaixo eta senideen behar eta itxaropenen eta eskura dauden baliabideen artean, bereziki tarteko egiturei eta gizarte babesari dagokionez.

Bereziki premiazkoa iruditzen zaigu nortasun nahasmendua duten pertsonen -gehien bat nerabeak eta gazteak direnak- erantzuna emateko beharra, izan ere, diagnosia jasotzeko arazoak dituzte, ez dute sendagai espezifikorik eta haiekiko arreta-baliabideak ez dira nahikoak. Hala ere, ezin dugu ahaztu jokabide nahasmendua edo Haurren Eskubideen Batzordeak Espainiari egindako oharrarekin bat egin behar dugula. Bertan azaltzen zenez, AGHA duten haurrei gehiegizko sendagaiak agintzearen fenomeno aztertu beharra dago eta haur horiei zein euren guraso eta irakasleei neurri sorta handia eta tratamendu psikologiko eta hezitzailea eskuratzeko aukera eskaintzen dieten ekimenak sustatu behar dira.

**Mendeko hurrek** gainditu behar izaten dituzten zailtasunek ez dute alde handirik mendeko pertsonen orokorrean gainditu behar dituztenekiko: mendekotasun graduen beharrezko balorazioak eta murrizketa handiak prestazioetan, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoerari arreta eskaintzeko sistemaren garapen amai-

gabean gertatutako atzerapen nabarmenaren ondorio. Mendeko haurren kasuan garrantzi berezia dauka familia ingurunean zaintzak eskaintzeko prestazio ekonomikoan egondako murrizketaren eraginak, izan ere, haur gehienek familia ingurunean jasotzen dute arreta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legeak -gizarte arretaren esparruan gure erkidegoari esleitutako eskumen esklusiboaren eta abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako eskumen osagarriaren erabileraren adierazpen argia- esparru nahikoa eskaintzen digu gure herri administrazioek gizarte zerbitzuen alorrean azken urteetan zehar egiten ari ziren apustu irmoarekin jarraitzeko, arreta eta etengabeko hobekuntza areagotzeko bide horretan oztoporik izan gabe.

Gazte-**justiziako** sistemaren gizarte eta hezkuntza arloko zentro eta programen sareak epaitegien erabakiak eta beharra asetzeko neurri egokia duela dirudi. Hala eta guztiz ere, bateratzearen erabilera handiagoa egon zitekeen, bi-tartekaritza prozesuak bideratzeko aukerak ere miatuz nahitaez errua onartu behar izan gabe.

Era berean, adingabeen berriazko ofiziozko txandan hobekuntzak behar dira, neurri handi batean, letraduen prestakuntza hobeari bidez lortuko dena, garapen eta hezte prozesuan dauden pertsonentzako egokiagoak diren eta, nolana ere, helduen jurisdikzioarenak ez diren lan-moduak bidera ditzaten.

Azkenik, haur eta nerabeekiko hurbilagoa eta atseginagoa den justizia batera hurbiltzeko beharra aipatzen dugu, entzuna izateko, behar bezalako informazioa jasotzeko eta intimitatea edo pribatutasuna babesteko eskubideak, besteak beste, bermatu daitezten. Bereziki biktima edo lekuko gisa parte hartzen dutenean.

**Eskola-kirolaren** esparruan indarreko legeriak foru aldundiei hura arautzen duten xedapenak betetzen direla ikuskatzeko eta kontrolatzeko funtzioak esleitzen dizkie. Horien artean azpimarratu nahiko genuke, bertan parte hartzen duten erakundeek une oro adin horietako kirolaren oinarri izan behar den parte-hartze eta heziketa izpirituarekin bat egin behar dutela. Administrazioak alor horretan zigortzeko arauzko tresnarik ez izateak ez du oztoporik ezarri behar zeregin hori arduraz eta proaktiboki burutzeko. Erakunde honen ustez, kirol zentroek eta klubek zentzu horretan praktika oneko kode bat sinatzea norabide zuzenean doan urratsa da.

Jolaserako, atsedenerako eta **aisia eta kultura jardueretarako** eskubidea bereziki urratzen ari da krisi ekonomikoaren eragin gehien pairatu duten familietako haur eta nerabeen kasuan. Erakunde honek beharrezkotzat jotzen du heziketarako aisialdiko jarduerak burutzeko eta horiez gozatzeko haur guztien aukera berdintasuna bermatzen duen ahalegina mantentzea.

Joera homosexuala (gay eta lesbianak) edo bisexuala eta transgenero edo transexual identitatea (aurrerantzean **lgtb**) duten nerabeen egoerari dagokionez, EAEn Rainbow Europako proiektuaren esparruan egindako lanak agerian utzi du hezkuntza sistemak duen hutsune nabarmena sexu eta genero aniztasunarekiko eskubideekiko erabateko errespetua bateratu, ikusarazi eta sustatzerakoan.

Beste behin, adierazi behar dugu beharrezkoa dela hezkuntza-erakundeek beharrezko estrategiak jorratzea, eskola leku ziur bat izan dadin, adingabeei joera sexuala eta genero-identitatea modu aske eta bete-betekoan garatzeko babesa bermatuko diena, eskolako bizikidetzaren eredu baketsu eta aniztasunaren integrazioa batean. Bestalde, hezkuntza zentroetan haur eta nerabeen identitate aniztasunari eta genero rolei buruzko egoerak edo jokaerak sortzen direnean adingabeak, familiak, irakasleak eta zentroak orientatzeko modua jorratu behar da. Egoera horiek, ezagutu ahal izan dugun moduan, haurrak oso gazteak direnean ere gertatzen dira.

Aurreko paragrafo horietan jorratutako arretako sektore-sistemaren inguruko gogoetei eta bertan antzemandako aurrerapauso eta hobekuntza puntuei amaiera emateko, mugaketa ekonomiko handiko une hauetan horiek **guztiek duten arriskuarekin** batekiko dugun kezka helarazi nahi dugu: administrazio, erakunde edota sail bakoitza, arauaren irakurketa zorrotzetik, bere eskumena denera mugatzea, ordura arte, batzuetan beste sistema, erakunde edo administrazioen lankidetzarekin, eskaintzen ziren prestazio eta zerbitzuak baztertuz, kontuan hartuta herritarrek erabiltzen zuten programa/zerbitzu horren bidez euren behar bat asetzen zutela.

Azkenik, ezin dugu amaitu haurren eskubideen gaineko gizarte kontzientzia indartu eta zabaltzeko eskaera berri bat egin gabe. Egia da duela urte batzuk baino handiagoa dela eta horregatik pozik egon behar gara eta zorionak eman behar ditugu. Baina oraindik asko egin beharra dago, bai maila orokorrean (eskubideen zabalkundea), baina egoera jakin batzuen gaineko kontzientziazioan (zigor fisikoa, tratu txarrak, sexu jazarpena...). Haurren eskubideak eta adingabearen interes gorenaren printzipioa direla-eta, heziketa ikuspuntua hartu beharra dago eta haur eta nerabeekin bideratutako edozein esku-hartze zuzendu behar duten lehenatasunak ezarri behar dira. Hori dela-eta, herri administrazioei eskatu behar diegu gizarte sentsibilizatzeko eta haurren eskubideak sustatzeko ekimenekin jarrai dezatela eta indartu ere egin ditzatela.

Berriro ere Haurren Eskubideen Hitzarmeneko 12. eta 13. artikulua nabarmendu behar ditugu, edo, bestela esanda, **adingabeei beren iritzia adierazteko eta informazioa jaso eta emateko eskubidea dutela. Benetan parte hartzeko bide egonkor** gehiago eratzeko, horri denbora gehiago eskaintzen eta mekanismo egokiak, metodologia erakargarriak eta halakoak ezartzen aurrera egitera animatzen dugu, adingabeei beren bizitzari eragiten dioten arloetan parte hartuko dutela bermatzeko.





# Eranskinak



**a t a l a**



## VII. Atala

# Grafikoak

<b>(1. grafikoa)</b> Kexen banaketa, adingabearekiko harremanaren arabera .....	22
<b>(2. grafikoa)</b> Kexen banaketa, arlo tematikoaren arabera .....	22
<b>(3. grafikoa)</b> Baztertutako eta tramiterako onartutako kexen ehunekoa.....	22
<b>(4. grafikoa)</b> Baztertutako kexak: baztertzeko arrazoiak .....	23
<b>(5. grafikoa)</b> 2012. urtean haurrentzako foru gizarte zerbitzuek artatu dituzten adingabe berrien kopurua .....	28
<b>(6. grafikoa)</b> Egoitza-harrera neurriaren eboluzioa 1995-2012 .....	29
<b>(7. grafikoa)</b> Familia-harrera neurriaren eboluzioa 1995-2012 .....	29
<b>(8. grafikoa)</b> EAEn eta lurraldearen arabera, 2012. urtean egoitza-eta familia-harrera neurrien arteko konparaketa .....	29
<b>(9. grafikoa)</b> Adopzio eskaeren eboluzioa EAEn 1995-2012 (nazionala eta nazioartekoa) .....	30
<b>(10. grafikoa)</b> 2012. urtean EAEn eta lurraldeen arabera burututako adopzioen kopurua (nazionalak eta nazioartekoak) .....	30
<b>(11. grafikoa)</b> Bakarrik dauden adingabe atzerritar "berriak", foru aldundietako haurren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2012 .....	37
<b>(12. grafikoa)</b> Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, abenduaren 31ra arte foru aldundietako haurren gizarte zerbitzuek artatuak. Bilakaera, 2005-2012.....	37
<b>(13. grafikoa)</b> EAEn gauzatutako behin betiko eta kautelazko neurrien kopurua (2009-2012) .....	49
<b>(14. grafikoa)</b> EAEn gauzatutako kautelazko neurrien kopurua, modalitatearen arabera (2009-2012) .....	49
<b>(15. grafikoa)</b> EAEn gauzatutako neurri irmoen kopurua, modalitatearen arabera (2009-2012) .....	50
<b>(16. grafikoa)</b> Pobrezia larri/altuko arriskuan eta pobrezia erlatiboko arriskuan dauden 15 urtetik beherako haurren %. (Eurostat metodoa). EAeko eta Espainiako bilakaera 2008-2012 .....	58
<b>(17. grafikoa)</b> Mantentze-pobrezia arriskuan eta ongizategabeziako arriskuan dauden 15 urtetik beherako haurren %. (Eurostat metodoa). EAeko eta Espainiako bilakaera 2004-2012 .....	58
<b>(18. grafikoa)</b> Mantentze-pobrezia errealeko egoeran dauden 15 urtetik beherako haurren %. EAeko bilakaera 2008-2012 .....	59
<b>(19. grafikoa)</b> Ongizate-gabezia errealeko egoeran dauden 15 urtetik beherako haurren %. EAeko bilakaera 2008-2012 .....	59

**(20. grafikoa)**

Arrazoi ekonomikoengatik 10 urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez duten, oinarritzko premien gastuak murriztu dituzten eta azken urtean bigarren eskuko jantziak erabili dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 1996-2012..... 59

**(21. grafikoa)**

Ordainketak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak) burutu ez dituzten edo atzeratu dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 2004-2012..... 60

**(22. grafikoa)**

Azken neguan unerren batean hotza pasa duten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 1996-2012 ..... 60

**(23. grafikoa)**

Eskolatzeta-tasa garbia 17 urterekin. EAE eta Espainiako bilakaera 1999-2010 ..... 61

**(24. grafikoa)**

Elikadura arazoak (larriak edo oso larriak) dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 2000-2012 ..... 62

## Taulak

**(1. taula)**

2012an adina zehazteko probak egin dituzten bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopurua (eta dagozkien ehunekoa) ..... 38

**(2. taula)**

EAEEn buruturiko neurrien kopurua (2009-2012) ..... 48

**(3. taula)**

Gazteen justizia sistemaren heziketa zentroen sarea ..... 50

**(4. taula)**

Kide guztiak langabezian dituzten familien %. EAE eta Espainiako bilakaera 2006-2012 ..... 61

## Arloko araudia

### Hezkuntzarako eskubideari dagokionez:

- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, hezkuntzarako eskubidea arautzen duena.
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- 2/2006 Lege Organikoa, 3 maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzkoa.
- 19/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzeko dena.

### Babesik edo aterperik ez duten haurrak eta nerabeak babesteari dagokionez:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.
- 54/2007 Legea, abenduaren 28koa, Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 1618/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, elikagaien ordainketa bermatzeko funtsaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Horren xedea da banandutako gurasoen seme-alaba adingabeek diru-kopuru bat hartuko dutela bermatzea —aurrerakintzat hartzen da—, familia-unitateak haien premiei aurre egin ahal izan diezaien, obligaziodunak ordaindu beharreko elikagaiak ordaintzen ez dituela eta.

- 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko.
- 114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena eta, aldi berean, Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzaileen kreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 28ko 263/2003 Dekretua aldatzen duena. (Dekretu hori aldatu du 245/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duenak.)
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena.
- 238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzkoa.
- 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

### Osasunari dagokionez:

- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa.
- 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa
- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena (9.3 artikulua: 12 urtetik aurrera entzuna izateko eskubidea).
- 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa (13.4 artikulua: haurdunaldia borondatez etetea baimentzeko eskubidea).
- 16/2012 Legegintzako Errege-dekretua, apirilaren 20koa, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta bere prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzkoa.
- 175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena.
- 114/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa.

**Desgaitasun eta/edo mendekotasunen bat duten adingabeei dagokienez:**

- 26/2011 Legea, abuztuaren 1koa, araudia Desgaitasuna duten Pertsonei buruzko Eskubideen Nazioarteko Konbentziora egokitzeko.
- 51/2003 Lege Organikoa, abenduaren 2koa, ezinduen aukera berdinerako, bereizkeriarik ezerako eta erabile-rraztasun unibertsalerakoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- 20/2012 Legegintzako Errege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

**Zigor-arloko erantzukizunari dagokionez:**

- 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena eta lege hauek aldatu dutena: 7/2000 eta 9/2000 Lege Organikoak, abenduaren 22koa; 9/2002 Lege Organikoa, abenduaren 10koa; 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25koa; 19/2003 eta 8/2006 Lege Organikoak, abenduaren 4koa.
- 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30koa. Horren bidez, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartu da.
- 163/2008 Dekretua, irailaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- 80/2009 Dekretua, apirilaren 21koa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko ikastetxeei buruzkoa.

**Familia-erantzukizunari eta haren osotasuna babesteari dagokionez:**

- Abenduaren 12ko 13/2008 Legea, familiei laguntzeko.
- 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa.
- 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.
- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1koa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena. Honen bidez aldatu dena: 239/2011 Dekretua, azaroaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena.
- 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.
- 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzekeo sistemari buruzkoa.
- 246/2012 Dekretua, azaroaren 21koa, Bitartekarien Erregistroari buruzkoa eta erregistro horretan inskribatzeko egiaztatu beharreko familia-bitartekaritzako prestakuntza zehazten duena.
- 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25koa. Horren bidez aldatu zen Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa. Araudi horrek, besteak beste, haurrei dagozkien neurriak ezartzen ditu arlo hauetan: etxeko indarkeria, adin txikikoak galbideratzeko delitua eta haurren osotasun fisiko eta psikologikoen kontrakoak.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako erabateko babesari buruzkoa.

# Arartekoaren argitalpenak

## Txosten bereziak

- **Kalabozoak.** Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. 1991.
- **Psikiatrikoak.** Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera. 1992.
- **Adinekoen egoitzak Euskal Autonomi Elkartearen (1992-1993).** 1994.
- **Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994).** 1994.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia (1994-1995).** 1996.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera.** 1996.
- **Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuak.** 1997.
- **Adin txikiko lege-hausleak.** 1998.
- **Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan.** 1999.
- **Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn.** 1999.
- **Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.** 2000.
- **EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna.** 2001.
- **Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan.** 2002.
- **Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn.** 2003.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna.** 2003.
- **Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn.** 2003.
- **Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak.** 2005.
- **Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn.** 2005.
- **Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna.** 2006.
- **Bizikidetzeta eta gatatzak ikastetxeetan.** 2006.
- **Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn.** 2007.
- **Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa.** 2008.
- **Gizarte ekintza sektoreko lan baldintzak.** 2008.
- **Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.** 2009.
- **Adingabekoei balioak transmititzea.** 2009.
- **Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin.** 2009.
- **EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan.** 2010.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera.** 2010.
- **EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa.** 2011.
- **Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak.** 2011.
- **EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa.** 2011.

## Urteko txostenak

- Liburukiak: 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012.

## Arartekoaren gomendioak

- **Gomendioak** 2002, 2003, 2004.

## Bestelako argitalpenak

- **Idatz arauak / Normas de redacción.** 1992.
- **Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia.** 1993.
- **Esanak eta eginak / Dichos y hechos. Juan San Martín, Arartekoa.** 1994.
- **XV Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo.** 2000.

## Faksimilak

- **Jaquin-bide Iritarautia** - 1820. Kadizko Konstituzioari buruz euskaraz idatzitako eskuizkribu argitaragabea, irakaskuntzarako moldatua. 1991.
- Gaioren **Institutionum.** 1992. (Gaztelaniazko lehen argitaralditik aterea, Madril, 1845).
- Aita Frantzisko Vitoriakoaren **De indis insularis. De iure belli.** 1993. (Lyonen 1557an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Valentín de Forondaren **Cartas sobre la policía.** 1998. (Iruñean 1820an egindako bigarren argitaralditik aterea).
- Miguel de Lardizábal y Uriberen **Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias.** 2000. (Madrilen 1786an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Manuel de Lardizábal y Uriberen **Discurso sobre las penas contrahido á las leyes criminales de España, para facilitar su reforma.** 2001. (Madrilen 1782an egindako lehen argitaralditik aterea).
- Xabier Maria Muniberen **Discursos inéditos.** 2002.
- Rita de Barrenechea eta beste emakume batzuk. **Catalin y otras voces de mujeres en el siglo XVIII.** 2006.

## «P. Francisco de Vitoria» Giza eskubideen saila (bekadunen lanak)

- E. J. Ruiz. **El derecho al ambiente como derecho de participación.** 1993.
- M. Á. Encinas. **Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991).** 1994.
- G. Varona. **La inmigración irregular. Derechos y deberes humanos.** 1994.
- A. Bergara. **Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean.** 1996.
- M<sup>a</sup> J. Fernández de Landa. **El control interinstitucional en la Unión Europea.** 1996.
- I. P. Sánchez. **Rechazo social hacia las personas seropositivas en la CAPV.** 1998.
- J. Morquecho. **Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión.** 1999.
- G. Moreno. **Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto.** 2003.
- A. Olarte. **Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad.** 2006.
- B. Sicilia. **Derechos fundamentales y Constitución Europea.** 2006.
- J. Zarauz. **Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular.** 2007.
- I. Mujika. **Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi.** 2007.

## «Francisco de Vitoria» Giza eskubideen bilduma

### Hausnartzeko eta parte hartzeko foroak

- **Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak.** 2007.
- **Nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualak: trabak eta gaitzespenak beren garapen pertsonalean, harremanetan eta sozializazioan.** 2008.
- **Cannabisa. Erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak.** 2011.

### Jardunaldiak

- **Eskubide sozialen egungo egoera.** 2008.
- **Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratu batean.** 2009.
- **Eskubide sozialak krisi garaian (CD-ROM).** 2012.



## «Juan San Martín» Giza eskubideen bilduma (bekadunen lanak)

- J. M. Septién. Mugarik gabeko eskola. *Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban*. 2006.
- A. Bacigalupe, U. Martín. *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean*. 2007.
- J. L. Fuentes, T. L. Vicente. *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak*. 2007.
- F. J. Leturia, N. Etxaniz. *Adinekoen eskubideak eta tratu desagokiaren prebentzioa*. 2009.
- I. Orbegozo, A. I. Pérez, L. Pego. *Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari*. 2009.
- A. Gozalo, E. Jiménez, L. Vozmediano. *Adingabeak edo atzerritarrak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainekoa*. 2010.
- M. Arnos, M. Mazkian, A. Arnos, S. Luciani, A. Villalón, A. Otaegi. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2011.
- Farapi: Ana Beatriz Rodríguez Ruano, Oihane García Santiago, Amaia Benito Pumarejo, Aritz Rodríguez Gutiérrez, Nerea Elías Muxika, Begoña Pecharromán Ferrer. *Aplicación de los Derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco* (CD-ROM). 2012.

## Material didaktikoak

- G. Azkarate, L. Errasti, M. Mena. *Giza Eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak* (Bigarren Hezkuntza). 2000.
- Zenbait egile (IPE). *Gure eskubideak* (Lehen Hezkuntza). 2001.
- E. Acero, I. Mier. *Giza eskubideak jokoan* (Bigarren Hezkuntza). 2001.
- Mugarik Gabe. *Sortuz / Generando* CDa. 2004.
- Ikasleen lanak. *Gure eskubideak / Nuestros derechos*. 2004.
- *ZiberBullying-a. Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa*. 2008.
- *Leihoak. Abentura ERREALA Mundu BIRTUALEAN. Gozatu Internetez... Sarean erori gabe*. 2008.

## «Giza eskubideei buruzko jardunaldiak» bilduma

- *El derecho a la no discriminación por motivo de raza*. 1997.
- *Vigencia y futuro de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en su 50 aniversario*. 1998.
- *Los derechos no caducan con la edad: el año internacional de las personas mayores*. 1999.
- *Una cultura de paz: cimiento para los derechos humanos*. 2000.
- *Responsabilidad penal de los menores: una respuesta desde los derechos humanos*. 2001.
- *Derechos humanos y nuevas tecnologías*. 2002.
- *La prevención y erradicación de la tortura y malos tratos en los sistemas democráticos*. 2003.
- *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro*. 2004.
- *Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia*. 2005.
- *Arartekoa: XXI. menderako Ombudsmana*. 2006.
- *Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealtatea?* 2007.
- *Osasun mentala eta pertsonen eskubideak*. 2008.
- *Haurrak babesteko sistemak eta horien erronkak*. 2009.
- *Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean*. 2010.
- *Gaixotasun arraroak: arreta publikoa behar duen errealtate baten argi-itzalak*. 2011.
- *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta enpresa pribatuek interes orokorreko zerbitzuak egitea* (CD-ROM). 2012.



**aRarteko**

Herriaren Defendatzaila  
*Defensoría del Pueblo*

[www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)